



# **Etxeetako eta saltokietako hondakinak Nola hobetu administrazioen arteko koordinazioa kudeaketa eraginkorrago eta efizienteagoa lortzeko**



*2022ko iraila*



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA



## AURKIBIDEA

ORRIALDEA

LABURDURAK .....	3
I. SARRERA .....	4
II. ALDERDI OROKORRAK .....	5
II.1. Sarrera .....	5
II.2. Garapen jasangarria eta ekonomia zirkularra .....	6
II.3. Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana eta Nafarroako Hondakin Plan .....	7
II.4. Hondakin kudeaketaren antolaketa Nafarroan .....	10
III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK .....	14
IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK .....	18
V. ERANTZUKIZUNA .....	21
VI. FISKALIZAZIOAREN EMAITZAK .....	22
VI.1. Hondakin kudeaketari buruzko araudia, plangintza eta politikak .....	22
VI.2. Zerbitzua kudeatzeko lurralde-eredua .....	30
VI.3. Hondakin zerbitzuaren ondoriozko gastuak eta diru-sarrerak .....	52
ERANSKINAK .....	63
1. ERANSKINA. ARAU-ESPARRUA .....	64
2. ERANSKINA. BILKETA ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK MANKOMUNITATEETAN .....	67
3. ERANSKINA. PAPER-KARTOIEN FRAKZIOAREN ZIRKUITUA .....	68
4. ERANSKINA. ONTZI ARINEN ZIRKUITUA .....	71
5. ERANSKINA. BEREIZ BILDUTAKO FRAKZIO ORGANIKOAREN ZIRKUITUA .....	73
6. ERANSKINA. ERREFUS FRAKZIOAREN ZIRKUITUA .....	76
7. ERANSKINA. HONDAKIN HANDIEN ZIRKUITUA .....	79
8. ERANSKINA. 2017-2027 ALDIRAKO NAFARROAKO HONDAKINEN PLANeko HONDAKIN-KUDEAKETAREN ADIERAZLE NAGUSIAK .....	81
9. ERANSKINA. MANKOMUNITATEETAKO SORRERAREN, BALORIZAZIOAREN ETA EZABAKETAREN LABURPEN-TAULA ..	82
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	83
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	





## Laburdurak

**NFKA** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa  
**EZGA 2030** Ekonomia Zirkularra Garatzeko 2030 Agenda  
**IIZ** Iruñerriko Ingurumen Zentroa  
**AAEE** Autonomia erkidegoak  
**NFK** Nafarroako Foru Komunitatea  
**CTR** Hondakinak tratatzeko zentroa  
**LGID** Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua  
**HEZ** Hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua - 2008/98/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko azaroaren 19koa  
**BBFO** Bereiz bildutako frakzio organikoa  
**HF** Hondakinen Funtsa  
**GAN-NIK** Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA  
**HFL** 14/2018 Foru Legea, ekainaren 18koa, hondakinei eta haien fiskalitate-ari buruzkoa  
**HLKL** 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa  
**HLKLEZ** 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, ekonomia zirkularrerakoa  
**IM** Iruñerriko Mankomunitatea  
**TEEDM** Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa  
**HMN** Hondeatutako material naturalak  
**NILSA** Navarra de Infraestructuras Locales SA  
**GJH** Garapen jasangarrirako helburua  
**OPREC** Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoa  
**HKEEP** Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana 2016-2022  
**TIP** Toki Inbertsioen Plana  
**NHP** Nafarroako Hondakinen Plana 2017-2027  
**TEEH** Tresna elektrikoen eta elektronikoen hondakinak  
**EEH** Eraikuntzako eta eraispenetako hondakinak  
**ESH** Etxeetako eta saltokietako hondakinak  
**SCRAP** Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboak  
**GIB** Gorde, itzuli eta bihurtzeko sistema





## I. Sarrera

Nafarroako Kontuen Ganberak bere urteko fiskalizazio programan sartu zuen auditoretza txostena egitea Nafarroako etxeetako eta saltokietako hondakinen kudeaketari buruz.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne; bigarrenean, Nafarroako hondakinen kudeaketaren alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak azaltzen dira; laugarrenean konklusioak eta gomendioak jaso dira; eta bosgarrenean eta seigarrenean, erantzukizunak eta fiskalizazioaren emaitzak.

Bederatzi eranskin ditu: aplikatzekoa den arau esparrua, hondakin frakzio nagusien ibilbideen infografiak, Nafarroako hondakinen kudeaketari buruzko adierazle nagusiak, bilketa zerbitzuaren ezaugarrien taula orokorra mankomunitatez mankomunitate, eta, azkenik, hondakinen sorreraren, balorizazioaren<sup>1</sup> eta ezabaketaren laburpen-aula mankomunitatez mankomunitate.

Lana 2022ko otsailetik 2022ko ekainera bitartean egin zuen auditoretzako hiru teknikaririk eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, lan honen emaitzen berri eman zitzairen Iruñerriko Mankomunitateari eta Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako Departamentuari eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, alegazioak egin ahal zitzaizkien.

Kontuen Ganberak ezarritako epean Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariak soilik aurkeztu ditu alegazioak. Alegazio horiek aztertu ondoren, txostenean jaso dira, eta behin betikoa bihurtu da txostena.

Lan hau egiteko eman diguten laguntza eskertu nahi diegu entitate hauetako langileei: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko (LGID) Ekonomia Zirkularraren Zerbitzua, batez ere Hondakinen Atala; Nafarroako Hondakinen Partzuergoa (Partzuergoa) eta Navarra de Infraestructuras Locales SA sozietate publikoa (NILSA); hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateak; Baztango Udala; eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA sozietate publikoa.

---

<sup>1</sup> Prozesu honen bitartez hondakin bat eraldatu egiten da beste helburu baterako erabiltzeko, edo materialak ordeztzeko beste industria-prozesu edo beste produktu batzuetan.







Hondakin batek jaso behar duen tratamenduaren mota eta lehentasuna adierazten dituen kontzeptua da hondakinen hierarkia. Administrazio eskudunek, hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko politiketan nahiz legegintzan, hierarkia hori aplikatu behar dute ingurumen emaitza globalik onena lortzeko eta klima aldaketaren aurkako borrokan laguntzeko.

## II.2. Garapen jasangarria eta ekonomia zirkularra

2015ean, Nazio Batuen Erakundeko estatuek Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onetsi zuten. Agenda horrek garapen jasangarrirako 17 helburu biltzen ditu (GJHak), eta horien barnean ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetako 169 xede integratu daude.

Agendak konpromiso komun eta unibertsala aldarrikatzen du. Hala ere, estatuek erabateko subiranotasuna dute beren ondasunen, baliabideen eta jarduera ekonomikoaren gain, eta bakoitzak bere helburu nazionalak finkatzen ditu, GJHen arabera.

Hondakinei dagokienez, 11. GJHak (Hiri eta komunitate jasangarriak) eta 12. GJHak (Ekoizpen eta kontsumo jasangarriak) aipagai dute, beste kontu batzuen artean, hondakin gutxiago sortzea eta sortzen direnak kudeatzea, ekintza globaletan eta tokikoetan fokua jarrita eta baliabide naturalen erabilera efizientea kontuan izanda. Zeharbidez badute horrekin zerikusirik 3. GJHak (Osasuna eta ongizatea), 13. GJHak (Klima babesteko ekintza), 15. GJHak (Lehorreko ekosistemako bizia) eta, azkenik, 17. GJHak (Helburuak lortzeko itunak).

11. GJHak ezartzen du 2030erako murriztu egin behar dela hirietako per capita ingurumen inpaktu negatiboa, arreta berezia jarritz airearen kalitatean eta udalerrietako hondakinen eta bestelakoen kudeaketan. Bestalde, 12. GJHaren xedea da hondakin gutxiago sortzea prebentzioaren, murrizketaren, birziklapenaren eta berrerabileraren bitartez, bai kontsumoan bai ekoizpenean.

Horrez gain, Europako Batzordeak 2015ean Ekonomia Zirkularrerako Lehen Ekintza Plana onetsi zuen. Guztira 54 neurri jaso zituen Europar Batasunean ekonomia zirkularrerantz aurrera egiteko.

Neurriok produktuen bizi zikloko etapa guztietan eragiten zuten. 2020aren amaieran beste plan bat onetsi da: Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plana Europa Garbiago eta Lehiakorrago baten alde.

Hain zuzen ere, "2030 Agenda Inplementatzeko Ekintza Plana. Garapen Jasangarrirako Espainiako Estrategiarantz" izeneko dokumentuan ezarritakoaren arabera, ekonomia zirkularra 2030 Agendan finkatutako GJHak bultzatzeko funtsezko politiketako bat da.

Ekonomia linealeko eredutik eredu jasangarri batera pasatzea du helburu: erauzi, ekoitzi, kontsumitu eta bota beharrean, dauden baliabideak maximizatu,



ahalik luzaroen iraunarazi ekoizpen zikloan, eta hondakinen sorrera ahalik gehien murriztu.

Asmoa da produktuaren bizi zikloa aldatu eta ekoizpen katea berriz diseinatzea, ekoizlearen erantzukizunaren printzipioari lotuta, behean ikus daitekeen bezala:



### II.3. Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana eta Nafarroako Hondakinen Plana

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legea (HLKL) eta hura indargabetzen duen apirilaren 9ko 7/2022 Legea, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa eta ekonomia zirkularrerakoa (HLKLEZ) direla bide, Estatuak eta autonomia erkidegoek (AAEE) kudeaketa planak egin behar dituzte, eta toki entitateek hondakinak kudeatzeko programak garatzen ahal dituzte beren eskumenen esparruan.

Eginbehar hori betez, Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (PEMAR) argitaratu zen 2016-2022 aldirako. Bertan daude jasorik, autonomia erkidegoetako planek aintzat har ditzaten, hondakinei buruzko politikaren estrategia orokorra, orientabideak eta egitura, bai eta gutxieneko helburuak ere, prebentzioari, berrerabiltzeko prestatzeari, birziklatzeari, baliarazteari eta ezabatzeari dagokienez.



PEMARek autonomia erkidegoak behartzen ditu gutxienez ere Estatuko helburuak betetzera autonomia erkidego bakoitzaren lurraldean sortzen diren hondakinekin.

Plan hori gogoan, eta ekonomia zirkularren kontzeptua eta hondakinen hierarkia kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak 2016ko abenduan Nafarroako Hondakinen Plana onetsi zuen Nafarroako hondakinen prebentziarako eta kudeaketarako politikaren oinarritzko tresna gisa, eta plan horrek 2017-2027 aldirako helburuak ezartzen ditu bere eremu geografikoan.

Nafarroako Hondakinen Planaren egiturari bi atal daude, Prebentzio Programa eta Kudeaketa Plana, honako eskema honetan azaltzen den moduan:



*Iturria: Nafarroako Hondakinen Plana 2017-2027*

### *II.3.1. Zer helburu ezarri diren Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Planean (2016-2022) eta Nafarroako Hondakinen Planean*

#### *Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana*

PEMARek helburu orokor hauek ezartzen ditu, besteak beste: informazioa eta gardentasuna hobetzea, informazio sistema partekatu bat abian jartzea, tasak eta bitarteko ekonomikoak harmonizatzea autonomia erkidegoen arteko langak saihesteko, eta komunikazio eta sentsibilizazio hobea lortzea hiru administrazioetan (zentrala, autonomikoa eta tokikoa).

Beste neurri batzuk ere planteatzen ditu:







- Gaikako bilketa eta instalazio espezifikoaren bidezko tratamendua indartzea.
- Sorrerari eta kudeaketari buruzko informazioa hobetzea.
- Ingurumen fiskalitateari buruzko esparru bat ezartzea, batetik pizgarriak eman eta bestetik atzera eraginen duena, hondakinen hierarkiaren aplikazioa sustatzeko eta birziklatzearen arloan aurrera egiteko Europar Batasunaren helburua betetze aldera.
- Lortzen diren material eta produktueterako merkatuak garatu eta sendotzea.

### *Nafarroako Hondakinen Plana*

NHPk zazpi helburu estrategiko ezartzen ditu, oinarri hauek dituztenak: hondakinen sorreraren prebentziorako neurriak bultzatzea, ekonomia zirkularrean oinarritutako hondakin-politikak, klima aldaketaren aurkako borrokaren estrategia, eta ikuspegi globala duen kudeaketa partekatua edo gobernantza ezartzea.

Beraz, honako helburu hauek ditugu: ekonomia zirkularra eta klima aldaketa, prebentzioa, gobernantza, komunikazioa eta sentsibilizazioa, berrerabiltzeko prestatzea, gaika biltzea eta birziklatzea, eta, azkenik, ezabatzea.

Halaber NHPk 58 helburu espezifiko ezartzen ditu, haren garapena zuzentzen dutenak, eta horiek 78 neurritan eta 268 ekintzatan xehakatzen dira, jarraipenerako 40 adierazlerekkin.

Nafarroan gutxi gorabehera hau da hondakin mota bakoitzaren pisua: ehuneko 60, eraikuntzako eta eraispenetako hondakinak (EEH) eta hondeatutako material naturalak (HMN); ehuneko 27, industria hondakinak; ehuneko bederatzi, etxeetako eta saltokietako hondakinak (ESH); eta gainerako ehuneko laua, bestelako hondakinak.

Kudeaketan lehenesten diren fluxuak ESHenak dira. Izan ere, 2027rako hala-koen ehuneko 75 baliaraztea lortu behar da.

Hondakin horiei dagokienez, Nafarroako Hondakinen Planean ezarritako helburu nagusiak honako hauek dira (horien adierazleak VI. atalean azaltzen dira):

- 2010eko mailaren aldean, sortzen diren hondakinen kopurua 2020rako ehuneko hamar murriztea eta 2022rako ehuneko 12.
- Gaikako bilketa: materia organikoaren bilketa selektiboa (BBFO) hedatzea eta bilketa selektibo hori nahitaezkoa izatea; garbiguneen sarea sendotzea; tamaina handiko hondakinen, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen (TEEH) eta abarren ethez etxeko bilketa hedatzea.
- Berrerabiltzeko prestatzea ehunak, TEEHak, altzariak eta tamaina handiko hondakinak.





- Birziklatzea eta baliaraztea: biohondakinen ehuneko 100 birziklatzea 2020an; horretarako NHPk lau konpost fabrika berri aurreikusten ditu<sup>2</sup>. Ontziei dagokienez, helburutzat ezarri da erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboei (SCRAP) atxikitako ontzien ehuneko 80 birziklatzea. Gainerako materialetarako, ehuneko 50eko birziklatze indizea ezarri da 2020rako.

- Ahalik eta hondakin gutxien ezabatzea. Hondakindegien zergaren ezarpena dela eta, planak aurreikusten du gero eta ESH tona gutxiago eramanen direla hondakindegira. ESH guztietatik hondakindegian ezabaten direnak ezin dira izan ehuneko 35 baino gehiago 2020an eta ehuneko 25 baino gehiago 2027an.

#### II.4. Hondakinen kudeaketaren antolaketa Nafarroan

ESHak dira lanaren xede nagusiak. Bizileku partikular, denda, bulego eta zerbitzuetan sortutako hondakinak dira horiek, baita arriskutsutzat jotzen ez direnak eta haien izaera edo konposizioa dela-eta goian aipatu ditugun leku edo jardueretan sortutakoekin parekatu daitezkeenak ere. Hauek ere sartzan dira, besteak beste: bide publiko, berdegune eta atsedenlekuetako garbiketako hondakinak, etxeko animalien gorpuak, altzari eta tresnak. Eta, azkenik, obra txikietako hondakinak.

Horrelako hondakinak gaur egun sortzen diren hondakin guztien ehuneko berderatzi dira. Gainerakoak industria hondakinak, eraispeneko eta eraikuntzako hondakinak eta hondeatutako material naturalak dira gehienbat.

Baina ESHak kudeatzen zailenetakoak dira, eta haien kudeaketak erronka batzuk sortzen ditu: haien osagaien aniztasun eta konplexutasun handia, herritarrekiko hurbiltasuna, ikusgarritasun publiko nabarmena eta ingurumenaren eta gizakien osasunaren gaineko eragina.

#### *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa*

LGIDeko Ekonomia Zirkularraren Zerbitzuko Hondakinen Atalak hondakinen kudeaketan parte hartzen du eta eginkizun hauek ditu, besteak beste:

- Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoan (OPREC) integratzea, eta, orobat, bulegoaren koordinazio, lankidetzan eta jarraipen lanak egitea.

- Nafarroako Hondakinen Planaren (NHP) jarraipena egitea.

- Nafarroako Hondakinen Funtseko kudeatzea.

---

<sup>2</sup> Instalazio horietan hondakin organikoak birziklatzen dira tratamendu biologikoa emanez, eta konpost edo ongarri organikoa lortzen da.





- Nafarroan Ekonomia Zirkularra garatzeko Agenda (NEZGA 2030) prestatzea, berrikustea eta haren jarraipena egitea.
- Nafarroan ekonomia zirkularra sustatzeko dibulgazio eta sentsibilizazio lana egitea.
- Nafarroako Hondakinen Sortzaileen eta Kudeatzaileen Erregistroa kontrolatu eta mantentzea, eta haren ingurumen jarraipena egitea.
- Lurzoruak kutsatzen ahal dituzten jardueren kontrola eta jarraipena.

Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak toki entitateak finantzatzen ditu eta laguntza eta aholku ematen die beren eskumenak balia ditzaten.

### *Nafarroako Toki Administrazioa*

ESHak bildu, tratatu eta ezabatzea udalen eskumena da. Entitate horiek (Baztango Udalak eta beste sei udalerrik izan ezik) 16 mankomunitateren esku utzi dute hondakinak biltzeko eskumena. Baztango Udala da zerbitzua zuzenean kudeatzen duen bakarra, eta beste sei udalerrik hitzarmenak dituzte Nafarroatik kanpoko lurralde mugakideekin bai hondakinen bilketarako bai tratamendurako.

Sei udalerrri hauek dira:

- Iparraldean, Urdazubiko eta Zugarramurdiko udalek hitzarmena sinatu zuten Bizi Garbiarekin (hondakin-bilketarako Donibane Lohizuneko sindikatu mistoa).
- Mendebaldean, Cabredo, Genevilla, Lapoblación eta Marañongo udalek hondakinen bilketarako eta tratamendurako hitzarmena dute Arabako Mendialdeko Kuadrillarekin, Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillarekin eta Arabako Aldundiarekin.

Aipatu mankomunitateek, bestalde, Iruñerrikoak izan ezik, Partzuergoaren esku utzi dute hondakinak garraiatu, tratatu eta ezabatzeko eskumena.

Partzuergoa 2007an eratu zen. NFKAk eta hondakinen tratamendurako eskumena duten toki entitateek osatzen dute, Iruñerriko Mankomunitateak izan ezik.

Partzuergoak kudeaketa organo hauek ditu: Kudeatzailetza, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza. Kudeatzailetzaren ardura NILSA sozietate publikoari eman zaio, eta Idazkaritzan eta Kontu-hartzailtzan Partzuergoko entitatearen bateko lanpostu horietako langileak aritzen dira.

Gaur egun Partzuergoa NFKAri atxikita dago, hondakinak kudeatzeko zerbitzuaren prestazioa noiz antolatuko zain, Hondakinei buruzko Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioa Erreformatzeko 4/2019 Legean ezarritakoaren esparruan.





Hona hemen Nafarroan hondakinak biltzeko zerbitzua egiten duten mankomunitateen mapa:



Iruñerriko Mankomunitateak (IM), bilketaz gain, hondakinak tratatzen eta ezabatzen ditu.





## Taula honetan mankomunitate bakoitzaren datu nagusiak ageri dira:

Mank. / Udala	Udalerrien kopurua	Biziguneen kopurua	Biztanleak 2020an	Azalera (km <sup>2</sup> )	Bizt. dentsitatea	Bildutako tonak	kg/bizt./urte
Araxesgoiena	2	7	897	46,3	19,37	379	423
Nafarroatik kanpo <sup>(1)</sup>	6		899	58,79	15,29	Daturik ez	Daturik ez
Bidausi	14	22	2.358	446,42	5,28	1.350	573
Ezka-Zaraitzu	19	26	2.762	848,96	3,25	1.291	467
Malerreka	13	15	5.435	223,88	24,28	2.462	453
Irali	11	33	5.571	701,38	7,94	2.577	463
Mendialdea	6	20	6.555	289,38	22,65	2.963	452
Baztan	1	15	7.850	376,81	20,83	3.640	464
Bortzirriak	5	5	8.563	184,54	46,40	4.609	538
Zangoza	14	20	9.344	636,76	14,67	4.344	465
Izarbeibar	13	13	11.366	400,93	28,35	6.136	540
Sakana	15	29	20.261	305,77	66,26	8.408	415
Mairaga	19		26.327	947,64	27,78	13.041	495
Erriberagoiena	9	9	32.157	434,74	73,97	14.027	436
Jurramendi	59	129	52.485	1.564,59	33,55	25.427	484
Erribera	19	19	90.167	910,46	99,03	41.155	456
Iruñerria	48	280	378.200	1.226,94	308,25	147.353	390
Beste batzuk	-	-	-	-	-	2.847 <sup>(2)</sup>	-
<b>Guztira, oro har</b>	<b>272</b>		<b>661.197</b>	<b>9.604,27</b>	<b>68,84</b>	<b>282.009</b>	<b>427</b>

(1) Lehen aipatutako sei udalerriak dira.

(2) Bildutako beste tona batzuk, inongo mankomunitateri ez dagozkionak (parke naturalak etab.)

Bi entitate arduratzen dira hondakinen garraioaz, tratamenduaz eta ezabaketaz: Partzuergoa, zeinak Baztango Udala eta Iruñerrikoa ez beste mankomunitate guztiak biltzen baititu, eta Iruñerriko Mankomunitatea.

Hona hemen bi entitate horiek Nafarroako lurralde osoan duten hedadura:

Entitatea	Udalerriak	Biztanleak	Azalera (km <sup>2</sup> )
Nafarroako Hondakinen Partzuergoa	% 80,5	% 42,7	% 86,6
Iruñerriko Mankomunitatea	% 17,3	% 57,3	% 12,8

### *Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboak*

Azkenik, hondakinen azken prozesuaren funtsezko atalak dira ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboak (SCRAP). Fabrikatzaile eta inportatzaileek osatutako irabazi asmorik gabeko erakundeak dira. Haien eginkizuna da sortutako hondakinen kudeaketa egokia bideratzea, hondakinak berrera-bili, birziklatu eta baliaraz daitezzen sustatzeko, hondakinen kudeaketa egokia finantzatzuz.

SCRAP horiek hitzarmenak sinatzen dituzte NFKArekin eta mankomunitateak akordio horiei atxikitzen zaizkie. ESHen arloan SCRAP garrantzitsuenak





Ecoembes eta Ecovidrio dira, lehenbizikoa paper-kartoi eta ontzi arinetarako eta bigarrena beirazko ontzietarako.

### III. Helburuak, norainokoa eta mugak

Lan honen helburua da aztertzea ea Nafarroako Foru Komunitatean eraginkortasunez kudeatzen diren ESHak.

Horretarako, honako helburu hauek zehaztu ditugu, galderetan jasota:

1. helburua: Onetsi eta inplementatu al dute administrazio publikoek hondakinen prebentziorako eta kudeaketarako estrategiarik edota politikarik? Jarraipen egoia egiten al zaie?
2. helburua: Egokia, eraginkorra eta efizientea al da Nafarroan hondakinak bildu, tratatu eta ezabatzeko zerbitzuaren lurralde-kudeaketaren eredua?
3. helburua: Homogeneoak eta zentzuzkoak al dira hondakinen zerbitzuak dakartzan gastuak eta diru-sarrerak?

Helburuak hainbat azpichelburutan banakatu dira, eta bakoitzerako ikuskapen-irizpide egokienak definitu ditugu, horiek betetzeari buruzko konklusioak ateratzeko. Hurrengo orrialdeetan aurkezten dira auditoretzako azpichelburuak eta irizpideak haietako bakoitzerako:

1. helburua. Onetsi eta inplementatu al dute administrazio publikoek hondakinen prebentziorako eta kudeaketarako estrategiarik edota politikarik? Jarraipen egoia egiten al zaie?

Azpichelburuak	Irizpideak
1.1. Toki entitate guztiek onetsi al dituzte hondakinak biltzeko zerbitzua arautzen duten ordenantzak, eta aplikatzen al dira? Eta tratamenduarenak?	Ordenantza onetsi duten toki entitateen kopurua. Partzuergoa.
	Betetzen dela egiaztatzeko jarduketak. Ikuskapenak. Ezarritako zehapenak
1.2. Onetsi al ditu NFK-k Europako eta Estatuko araudian ezarritako lege, plan eta programak, hondakinen prebentzioari dagokionez?	NFK-k onetsitako legeak, hondakin planak eta estrategiak
	Lege eta planen helburuak bat datoz HEZren printzipioekin
	NFK-k onetsitako prebentzio programak
	Hondakindegien zerga edo kanona
1.3. Inplementatu al dira onetsitako planak, estrategiak eta programak, eta egiten al zaie jarraipena?	Planaren gutxieneko edukia Hondakinei buruzko Legearen (HLKL) V. eranskinaren arabera
	Jarraipenaren ardura duen zerbitzua edo atala. Giza baliabideak
	Gauzatutako ekintzen edo programen kopurua
	Egindako oroitidazkien kopurua
	Onetsitako plan eta programetarako gastua
Arauk ez betetzeagatik ezarritako isun eta zehapenak	
Hondakinen Funtsaren kargura emandako laguntzak. Atxikitako gerakina.	





## 2. helburua: Egokia, eraginkorra eta efizientea al da Nafarroan hondakinak bildu, tratatu eta ezabatzeko zerbitzuaren lurralde-kudeaketaren eredua?

Azpihelburuak	Irizpideak
2.1. Prebentzioa, bilketa, tratamendua eta ezabaketa egiten dituzten entitateen antolaketa egokia al da?	Zenbat entitatek parte hartzen duten zerbitzuan (mankomunitateak, Partzuergoa, NG, IM, SCRAPak...)
	Entitate horien arteko koordinaziorako eta plangintzarako lidergoa
	Entitateen arteko komunikazioa
2.2. Ba al dago bilketarako behar adina instalazio, eta homogeneoak al dira mankomunitate guztietan?	Edukiontzien kopurua
	Garbiguneen kopurua
	Tamaina handiko hondakin etxez etxeko bilketa
2.3. Hondakin-sortzaile handiekin kudeaketa berezia egiten al da mankomunitate guztietan?	Zenbat komunitatek egiten duten kudeaketa hori
	Azpiegituren kokapenaren azterketa
2.4. Nahikoak eta egokiak al dira ESHak tratatzeko eta ezabatzeko dauden azpiegiturak?	Mankomunitateetatik transferentzia instalazioetara eta nasetara eta horietatik amaiera puntura dagoen distantzia
	Instalazioen gehieneko edukiera. Horretatik zenbat erabiltzen den (%)
	Tratamendu-instalazioetan lortutako errendimendua
	Zenbat prebentzio kanpaina egin diren
2.5. Gauzatu diren prebentzio politikak nahiko al dira?	Zenbat prestakuntza ikastaro egin diren
	Prebentziorako baliabideak (NGren buleg., NHPren buleg., mankomunitateenak...)
	Hondakin sorreraren murrizketa-ehunekoa (tona/pertsonako)
	Frakzio organikoaren bilketa selektiboaren hedapena.
	Bereiz bildutako materia organikoa, sortutako guztien aldean (%)
	Inpropioen kopurua eta materia organikoaren kalitatea.
	Garbiguneen kopurua. Gutxienez garbigune bat mankomunitateko.
	Hondakin handi, TEEH eta ehunen etxez etxeko bilketa.
	Obra txikietako hondakin bilketa.
	Ontzien bilketa selektiboaren gehikuntza 2014ko aldean
	Zenbat TEEH, ehun, altzari eta bestelako hondakin prestatzen diren berrerabiltzeko, sortutako hondakin guztien aldean.
	Bildutako biohondakin kopurua birziklatzea edo/eta baliaraztea.
	Bildutako ontzietatik zenbat eramaten diren birziklatzera.
Sortutako ESH guztietatik zenbat eramaten diren birziklatzera.	
Bildutako hondakin handi guztietatik zenbat eramaten diren birziklatzera.	
Errefusaren frakziotik zenbat eramaten den tratatzera, guztizkoaren aldean.	
Zenbat ESH ezabatzen diren hondakindegian, sortutako guztien aldean.	
Zenbat hondakin ezabatzen diren hondakindegian aurretiazko tratamendurik gabe.	





### 3. helburua: Homogeneoak eta zentzuzkoak al dira hondakinen zerbitzuak dakartzan gastuak eta diru-sarrerak?

Azpihelburuak	Irizpideak
3.1. Tasak zerbitzuaren kostuaren arabera eta "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioaren arabera finkatzen al dira?	Bilketa tasak eta tratamendu tasa konparatiboa
	Zerbitzuaren kostua kalkulatzan duten mankomunitateak
	Aurrekontu-defizitaren edo -superabitaren kalkulua.
	Sorreraren arabera osagai aldakorra duten mankomunitateak (bilketa eta tratamendua)
3.2. Zentzuzkoak eta homogeneoak al dira zerbitzua ematearen ondoriozko gastuak?	Zerbitzu homogeneoak mankomunitate guztietan edo mankomunitateko udalerrri eta kontzeju guztietan
	Gastu osoak / Bildutako hondakin tonak
	Gastu osoak / Bilketa eremuaren azalera (km <sup>2</sup> )
	Gastu osoak / Biztanleak - Gastu osoak / Emandako zerbitzuak
3.3. Hondakinak kudeatzeko zerbitzuak dakartzan diru-sarrerak zerbitzu horren gastuak estaltzen al dituzte?	Gastuak, bilketa sistemaren arabera
	Gastuen estaldura tasa: Diru-sarrerak / Gastuak
	Gastuak / Bildutako tonak, eta Diru-sarrerak / Bildutako tonak
	Biztanle bakoitzeko gastuak eta diru-sarrerak
	Inbertsioetako gastuak eta lortutako dirulaguntzak


Lanaren norainokoak 2020ko ekitaldia hartu du, baina horrek ez du galarazi beste ekitaldi batzuk berrikustea, baloratu beharreko datuak lehenagokoak edo geroagokoak izan direnean.

Gure lana egiteko, honako informazio hau aztertu dugu:

- Hondakinei buruzko Europako, Estatuako eta Foru Komunitateko araudia, 1. eranskinean xehakatuta dagoena.
- Hondakinak Kudeatzeko Estatuako Esparru Plana 2016-2022.
- Nafarroako Hondakinen Plana 2017-2027.
- Nafarroako Hondakinen Planaren jarraipen oroitidazkiak eta Partzuergoaren oroitidazkiak.
- Kontrol organoen eta elkarte, fundazio eta erakunde espezializatuen txostenak.
- Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistema kolektiboen oroitidazkiak eta auditoretza-txostenak.
- Hondakinen inbentario eta estatistikei buruz LGIDek eta GAN-NIKek emandako informazioa.
- Estatuako eta Europako hondakinen estatistikei buruzko informazioa.
- Mankomunitateen, LGIDen eta Partzuergoaren informazio ekonomikoa eta aurrekontuei buruzkoa.








Lana egin bitartean muga hauek detektatu ditugu:

- Iruñerriko Mankomunitateak bereizi egiten du ematen dituen zerbitzuen gastua, baina gastu orokorrak zerbitzu bakoitzari egozteak faltako litzateke. Gastu horiek gastu guztien ehuneko 15 egiten dute.
- Partzuergoaren eta Partzuergoko entitateen arteko eragiketa ekonomikoak eta aurrerontu eragiketak ez dituzte beti ekitaldi berean kontabilizatzen bi alderdiek, ezta irizpide berarekin ere, eta horrek zaildu egiten du zenbait datu agregatu lortzea.
- Helburuak betetzearen adierazleetako batzuk kalkulatzeko, egiaztatu ezin ditugun zenbatespenak erabili dira.

Muga horiek gorabehera, uste dugu froga egoki eta nahikoek eusten dietela lortutako konklusioei.





#### IV. Konklusioak eta gomendioak

Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoko arau esparruek gaikako bilketa oinarri duen eredia aurreikusten dute hondakin kudeaketan, birziklatze eta berberabiltze helburuak lortzeko, hondakinak ekonomia zirkularreko baliabidetzat hartuta.

Nafarroan sortutako hondakin guztien ehuneko bederatzi dira ESHak, eta kudeatzen zailak dira, askotarikoak direlako, osaera konplexua dutelako eta eragin handia dutelako ingurumenean eta gizakien osasunean.

ESHen kudeaketari buruz egindako azterketatik konklusio hauek atera ditugu:

- NFK-k arau esparru zabal bat garatu du, Europako eta Estatuko esparruekin bat datorrena, baina erregelamendu bidezko garapena falta zaio ekitaldi publikoetako hondakinei buruz eta hondakinak kudeatzeko azpiegiturak dituzten udalerrientzako kalte-ordainei buruz. Halaber, Hondakinei buruzko Foru Legea eta 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakin Plan ez zaizkie oraindik egokitu HLKLEZren ondoriozko zenbait arau-aldaketari eta egungo errealitateari, ezarritako helburuei dagokionez.

- 2018-2021 bitartean Hondakin Funtsean 13,74 milioi bildu dira guztira, eta 2,47 milioi gastatu, ehuneko 18 baino ez. 2023ko urtarriletik aurrera diru gehiago biltzea espero da HLKLEZk onetsitako zerga igoera dela medio. Beraz, funtsa nabarmen haziko da.

- NFK-k 661.000 biztanle inguru ditu, eta 9.600 km<sup>2</sup>-ko azalera. Hondakin bilketa kudeatzen duten 16 entitate ditu, eta hondakin tratamendua eta ezabaketa kudeatzen dituzten bi entitate; bakoitzak bere instalazioak erabiltzen ditu. Ondorioz, zenbait hondakin frakziok kilometrotako joan-etorriak egiten dituzte foru lurraldean, eta horrek ekonomian eta ingurumenean eragiten du, hurbiltasun printzipioaren kontra.

- Hondakin biletaz arduratzen diren Partzuergoko entitateetan kudeaketa modu asko daude, haiek osatzen dituzten udalerrien baliabideen, beharizanen, tamainaren eta ezaugarrien arabera. Bakoitzak bere erara kudeatzen ditu bildutako hondakin frakzioak, eta horrela efizientzia gabeziak, gailuzkoak eta Partzuergoekin gurutzatutako eragiketak izaten dira, kudeaketa koordinatua eta bateratu edo zentralizatua ezarrita saihestu ahalko lirakeenak.

- Nafarroako Hondakin Planak 2020rako ezarritako helburuak betetzeari dagokionez, ez da bete murrizketaren helburua, eta goranzko joerak badirauenez, ez dirudi helburu hori beteko denik 2027rako. Jatorrian ekin beharra dago, diseinu eta ekoizpen fasean, banaketaren eta salmentaren etapan eta, azkenik, erabilera eta kontsumo fasean.

- Gainerako helburuetan mankomunitateen kudeaketa eraginkorra izan da. Izan ere, Erriberako Mankomunitatean eta Iruñerriko Mankomunitatean izan ezik guztie-





tan bete dira 2020rako ezarritako helburu gehienak. Hala ere, amaierako adierazleetan erabakigarriak dira IMren eta Erriberako Mankomunitatearen kudeaketa eta emaitzak, kudeatutako hondakin guztien ehuneko 67 mankomunitate horietan sortzen baitira.

- IMk ez du betetzen isurketei buruzko Europako araudia, errefus frakzio osoa hondakindegira eramaten baitu aurretik tratatu gabe.

- Entitate kudeatzaileek onesten dituzten bilketa eta tratamendu tasak, oro har, ez dira izaten sortutako hondakin araberakoak. Horrek ez dio pizgarririk ematen zergadunari, eta ez dator bat “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioarekin.

- Partzuergoko entitateetan zerbitzuak dituen kostuen gaineko zenbait datu falta dira, batez ere ibilgetua amortizatzeko zuzkidurarena, eta horrela ezin dira egokiro aztertu efizientzia eta ekonomia. Mankomunitate batetik bestera garrantzizko aldeak daude bai gastuetan bai diru-sarreretan. Nolanahi ere, bilketa zerbitzuak defizita du, oro har.

- Kontuan izanik herritarren lankidetzaren hondakin kudeaketa egokirako giltzarri dela, administrazio publikoek gizartearen kontzientziazioa sustatu behar dute bi mezu nagusi zabalduz: hondakin gutxiago sortu behar ditugu, eta birziklatzeari buruzko arauak bete.

Ateratako konklusioak kontuan hartuta, hona hemen aztertutako hondakin-kudeaketa hobetzen lagundu dezaketen *gomendioak*:

- *Toki maparen erreformari buruzko legean aurreikusitako eskualdeen sorrerari ekitea eta Hondakinei buruzko Foru Legean aurreikusitako entitate publikoa sortzea, mankomunitate guztiak batuta, instalazioen sare integratua izateko eta eskalako ekonomiak baliatuz zerbitzuaren kudeaketa hobetzeko.*

- *Hondakinak tratatzeko estrategia berriak zehaztea Nafarroan dauden instalazio guztiak kontuan harturik, eta hurbiltasun printzipioa betetzea egungo kostu ekonomikoak eta ingurumenekoak ahalik gehien arinduz.*

- *Administrazio publikoetatik herritarren kontzientziazioa bultzatzea hondakin gutxiago sortzeko eta birziklatzeari buruzko arauak betetzeko.*

- *Europako Batzordeari aurkeztutako ekintza planean jaso diren aukera horietakoren bat lehenbailehen aztertu eta ezartzea Iruñerriko Mankomunitateko errefus frakzioa hondakindegira eramanez aurretik tratatzeko, araudiak eskatzen duen bezala, Iruñerriko Ingurumen Zentro berria funtzionatzen hasten den arte behintzat.*

- *Nafarroako Hondakin Planean hondakin prebentziorako jasotako ekintzak indartzea hondakin-sorreraren egungo joerari buelta emateko eta 2027rako ezarritako helburua betetzeko.*





- *Frakzio organikoaren bilketa selektiborako kanpainak areagotzea NFK osoan, eta bilketa sistema eraginkorrenak –hala nola atez ateko bilketa edo edukiontzi adimendunak– ezartzeko aukera aztertzea, egungo ratioak baino handiagoak lortzea ahalbidetu dezaten.*
- *Zerbitzuen kostuan oinarritutako tasak onestea, sorreraren araberako ordainketa kontuan hartuz eta “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioari jarraituz, eta baloratzea ea komeni den osagai finko bat eta errefus frakzioaren araberako osagai aldakor bat ezartzea.*
- *Hondakinen Funtsa kudeatzeko aukerak aztertzea hura modu zuzen, efiziente eta eraginkorren banatzeko, hondakinen hierarkiako goiko mailak lehenetsiz eta helburuak beteko direla bermatuz.*
- *Hondakinen arloko zehapen guztiak Hondakinen Funtsera egozte, eta eskubi-dea aitortu eta hurrengo urteetan egindako kobrantzen jarraipena egitea.*
- *Baloratzea ea komeni den hondakinen entitate publikoaren edo partzuergoaren bitartez kontratazio bateratua egitea paper-kartoiak eta hondakin frakzio bereziak saltzeko, sinergiak baliatuz eta egungo efizientzia gabeziak saihestuz.*
- *Bilketa berezia egitea hondakin-sortzaile handiei, oraindik halakorik martxan jarri ez duten mankomunitateetan.*
- *Hondakin handien frakzioaren tratamendua egitea hondakindegira eraman baino lehen, birziklatzen ahal den materialik egon ez dadin hondakindegian.*
- *Industrialdeetan biltzen diren hondakinen ezaugarriak aztertzea, etxeetako hondakinekin parekatzen ahal direnak bakarrik biltzen direla bermatzeko.*
- *Partzuergoaren eremuan etxe eta komunitateetako konpostatze programen jarraipena egitea, izena emandako familiak programa betetzen ari direla egiaztatzeko.*
- *Hondakinak tratatzeko instalazioek fakturatzen dituzten gastu guztien egozpena berrikusi eta erkatzea.*





## V. Erantzukizuna

### *Nafarroako Gobernuaren, mankomunitateen eta Partzuergoaren erantzukizuna*

LGIDeko Ekonomia Zirkularraren Zerbitzuaren ardura da koordinazio, kontrol eta jarraipen lanak egitea NFK-ko hondakinen kudeaketaz eta Hondakinen Funtsaren kudeaketaz.

Partzuergoaren ardura da NFK-ko entitate partzuergokideek biltzen dituzten hondakinak garraiatu eta tratatzea, bai eta NFKarekin elkarlanean aritzea ere Nafarroako Hondakinen Planaren aplikazioan.

Hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateen eta Baztango Udalaren ardura da beren eremu geografikoan hondakinak biltzea, eta Iruñerriko Mankomunitatearen ardura da hondakinak bildu, tratatu eta ezabatzea.

Aipatu entitateek bermatu behar dute egindako kudeaketa-jarduerak eta -eragiketak bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta behar diren mekanismoak ezarri behar dituzte proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezen eta helburu horiek lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezzen, horretarako beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarri.

### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarritutako konklusioak adieraztea, NFKn etxeetako eta saltokietako hondakinak kudeatzeko jarritako baliabideak direla eta.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere fiskalizazio operatiboei buruzko ISSAI-ES 300 araua aplikatu dugu, bai eta fiskalizazio operatiboen garapenari buruzko ISSAI-ES 3000 eta 3100 arauetan jasotako jarraibideak eta kanpo kontroleko organoen fiskalizazio gidak ere (GPF- OCEX). Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako konklusioak oinarrituko dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarri egokia jasotzen du, ateratako konklusioei funtsa emateko.





## VI. Fiskalizazioaren emaitzak

### VI.1. Hondakin kudeaketari buruzko araudia, plangintza eta politikak

**1. helburua:** Onetsi eta inplementatu al dute administrazio publikoek hondakin prebentziorako eta kudeaketarako estrategiarik edota politikarik? Jarraipen egokia egiten al zaie?

#### VI.1.1. Arautzeko eta planifikatzeko jarduketak

1.1. Toki entitate guztiek onetsi al dituzte hondakinak biltzeko zerbitzua arautzen duten ordenantzak, eta aplikatzen al dira? Eta hondakin tratamenduari buruzkoak?

Partzuergoko toki entitate guztiek onetsi dituzte ESHak biltzeko zerbitzua arautzen duten ordenantzak, eta Iruñerriko Mankomunitateak onetsita dauka hondakin kudeaketa arautzen duen ordenantza, barnean hartzen dituen hondakin bilketa, garraioa, tratamendua eta ezabatzea.

Partzuergoak badauka hondakinak garraiatu, tratatu eta ezabatzeko zerbitzua-  
ren tasa arautzen duen ordenantza, baina Partzuergoko entitateak dira tasa hori bildu eta Partzuergoari eskualdatzen diotenak.

Ordenantza guztietan ezartzen da zein diren haietan jasotako aurreikuspenak ez betetzearen ondoriozko arau-haustea eta dagozkien zehapenak. Hala ere, ia mankomunitate batek ere ez du zehapenik ezarri aztertutako ekitaldian.

Hori dela eta, entitateek adierazi dute zehatzeko eskumena eduki arren zaila dela, askotan, arau-haustea nork egin duen frogatzea, eta, beraz, azkenean ezin izaten dutela zehapenik ezarri detektatutako arau kontrako egitatearengatik. Iruñeko Mankomunitateak eta Erriberakoak bakarrik ezarri dituzte zehapen banaka batzuk.



**Konklusio gisa**, egiaztatu da toki entitate guztiek eta Partzuergoak badauzkatela onetsita hondakinen kudeaketari buruzko arauak, baina oso zehapen gutxi ezarri dituztela.

1.2. Onetsi al dira Europako eta Estatuko araudian ezarritako lege, estrategia, plan eta programak, hondakinen prebentzioari dagokionez?

NFKAk 2016ko abenduan onetsi zuen 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Plana, hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko politikarako oinarritzko tresna, 2017-2027 aldian Nafarroan lortu beharreko helburuak ezartzen dituena.

NHPn, kudeaketa planaz gainera, berariazko prebentzio programa bat dago; horrek bost ildo estrategiko ditu, eta helburu partzialak, helburu orokorrak, adierazleak eta neurriak aurreikusten ditu lehentasunezkoztat jotzen diren hondakin-fluxuetarako.

NHPk badu Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legean ezarritako gutxieneko edukia.

2018an, NHPn ezarritako neurri eta ekintzei erantzunez, ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legea onetsi zen, hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoa (HFL). Lege horrek kudeaketarako antolaketa-neurriak eta ekonomia zirkularra sustatzeko tresna ekonomikoak aurreikusten ditu.

Helburu hauek ditu, besteak beste: bermatzea hondakinak kudeatzen direla ingurumena eta giza osasuna arriskutan jarri gabe; pizgarriak ematea hondakin gutxiago sortzeko eta gaika egoki biltzeko, eta hondakinak hondakindegian ezabatzea sustatzeari uztea; eta hondakindegian ezabatzearen gaineko zergaren araubide juridikoa ezartzea.

HFLk bi eskumen berri esleitu dizkio NFKAri: hondakindegian ezabatzearen gaineko zergaren kobrantza eta kudeaketa, eta Nafarroako Hondakinen Funtsaren kudeaketa. Horiek IV.1.2 puntuan azalduko ditugu.

Halaber, 15. artikulua aurreikusten du Nafarroako hondakinen erakunde publikoa sortzea, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek osatua, kudeaketa koordinatuagoa, efizienteagoa eta kohesionatuagoa egiteko eta eragile guztien arteko sinergiak eragiteko. Beste eginkizun batzuen artean, aholkularitza eta koordinazio lanak eginen lituzke hondakinen prebentzioari, garraioari eta tratamenduari, erosketarako zentralari eta zergaren likidazioari dagokienez.

Erakunde publiko horrek hondakin zerbitzuaren kudeaketa hobetzen lagundu behar du, sinergiak baliatuz eta Partzuergoak bere forma juridikoa dela-eta gaur egun dituen mugak kenduz. Kalitatezko zerbitzua sustatu behar du, lurralde oreka lortuko duena, eta sorreraren araberako ordainketan oinarritutako formula





ezarri behar du tasa kalkulatzeko, zergadunek hondakin gutxiago sortzeko pizgarria izan dezaten.

Erakunde publikoaren sorrera sustatzeko epea sei hilabetekoa zen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, eta aspaldi amaitu da epe hori.

2019ko abenduan, 29/2019 Foru Legeak, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoak, azken xedapenetako laugarrenean aldaketak egin zituen Hondakinei buruzko Foru Legean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/904 (EB) Zuzentarauaren gidalerroak txertatzeko, plastikozko poltsak erabiltzeari eta erabili eta botatzeko kapsula edo dosi bakarreko ontzietan saltzen diren produktuei dagokienez.

2022an, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak aldatu egin zuen Hondakinei buruzko Foru Legea, erosketara publiko berdeari eta ekitaldi publikoetan edari ontziratuak saltzearen ordezkari aukerei dagokienez.

Azkenik, 2030 Agendan finkatutako Garapen Jasangarrirako Helburuak direla eta, NFKAk, 2019an, Ekonomia Zirkularra Garatzeko 2030 Agenda (EZGA 2030) onetsi zuen. Dokumentu horrek helburu eta lan-ildoetan zehazten du ekonomia zirkularrerako trantsizioa eta Nafarroa lerrokatzen du arlo horretako Europako eta Estatuko politikekin eta 2030 Agendarekin. EZGA 2030 dokumentu tresna nagusietako bi dira Nafarroako Hondakinen Plana eta Hondakinei buruzko Foru Legea. Gainera, badira Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategia (S3) eta Klima Aldaketaren Bide Orria (Klina).

Gaur egun, LGIDeko zerbitzu teknikoak ekitaldi publikoetako hondakinei buruzko erregelamenduen garapena bukatzen ari dira HFLn aurreikusi bezala. Egiteko dago bosgarren xedapen gehigarria aplikatzeko erregelamendua, hondakinak kudeatzeko azpiegiturak dituzten udalerrientzako kalte-ordainei buruzkoa.

**Konklusio gisa**, uste dugu NFK-k arau esparru zabal eta gaurkotua prestatu duela eta betetzen duela bai Europako esparruan bai Estatuko esparruan ezarritakoa, baina oraindik egiteko daudela goian aipatutako erregelamenduzko garapena eta hondakinen erakunde publikoaren sorrera.







## VI.1.2. Onetsitako plan eta programen jarraipena

### 1.3. Inplementatu al dira onetsitako planak, estrategiak eta programak, eta egiten al zaie jarraipena?

#### *Nafarroako Hondakinen Planaren jarraipena*

Batez ere OPRECI dagokio plan eta programak inplementatzeko eta jarraipena egiteko ardura.

2018an, NHPn ezarritakoarekin bat, HFLren 18. artikulua OPREC sortu zuen, NHPn aurreikusitako ekintzetan dinamizatzaile, aholkulari eta kudeatzaile jarduteko eginkizunarekin. Nafarroako Gobernuak da OPRECeko buru, eta kide dira halaber Nafarroako Ingurumen Kudeaketa sozietate publikoa (GAN-NIK), Partzuergoa, Iruñerriko Mankomunitatea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa.

Partzuergoak eta IMk beren prebentzio bulegoak ere badituzte, eta horiek OPRECekin koordinaturik dihardute.

OPRECen xedea da 2017-2027 aldirako NHPn ezarritako prebentzio helburuak betetzea. Horretarako, hondakin kopurua murriztea sustatzen du, NHPko xedapenen jarraipena egiten du, kudeatzaileen arteko sinergiak sustatzen ditu, gizartea prebentzioaren alde dinamizatzen du, jarduketa eta proiektu pilotuak garatzen ditu eta hondakinen prebentzioarekin zerikusia duten ikerketak bultzatzen ditu. OPRECek urtero onesten du bere prebentzio programa.

2018an NHPren Jarraipen Batzordea eratu zen, plana ebaluatu eta eguneratze aldera, haren garapena, ezarpena eta onesten diren arau berriak kontuan hartuta. Batzorde horrek gutxienez bilera bat egiten du urtean. Edonola ere, 2022an planaren ebaluazio eta berrikuspen osoa egitea erabaki zen, hartutako neurrien eta garatutako ekintzen eraginkortasuna aztertzeko.

OPRECek GAN-NIK enpresa publikoaren laguntza du. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak urtero honako arlo hauetarako mandatua egiten dio enpresa horri:

- Laguntza teknikoa hondakinen arloan (hondakinen inbentarioa, karbono aztarna, lurzoru kutsatuak, hondakinen funtsa, ekitaldiak, etab.).
- Hondakinak Kudeatzeko Plana (gaikako bilketa, karakterizazioak, etab.).
- NHP 2017-2027ren jarraipena eta kontrola.
- Beste administrazio publiko batzuen kontsultetarako zerbitzua.
- Arau garapena (ekitaldiei buruzko erregelamendua, elikagaiak alferrik galtzearen kontrako agenda, etab.).





Mandatuan ezartzen da zer txosten eta oroitidazki egin behar dituen arlo ba-koitzak eta zer epetan aurkeztu behar diren. Zehazki, txosten, oroitidazki eta fitxa tekniko hauek egin dira:

Dokumentuak	Zenbat
Hondakin inbentarioak	16
Inbentarioen eta zentroen laburpen-fitxak	22
ESHen inbentarioa egiteko metodologiari eta irizpideei buruzko txostena	1
Bizi zikloaren azterketaren gaineko txostenen eta BZAren berrikuspenerako txostenen aurrera-pena	1
Mankomunitateetako gaikako bilketen bilakaerari eta bilketa ereduaren efizientziari buruzko txostena	1
Esperientziaren garapenari eta konklusio nagusiei buruzko txostena	1
Eragindako entitateek karakterizatu beharreko hondakin frakzioei eta parametroei buruzko txostena	1
Paperaren eta egurraren bilketari eta birziklatze tasei buruzko txostena	1
Txostenak hiru hilean behin, autolikidazioen eta hiru hilean behingo oroitidazkien arteko lotu-rari buruz	4
Beste entitate batzuentzako txostenak, LGIDek eskatuz gero	10-20
Legegintzako dokumentuak	2

Hondakinen inbentarioak eta fitxa teknikoak hondakin frakzio guztienak dira, ez bakarrik ESHenak.

2020ko planaren jarraipen txostenean NHPren egoera azaltzen da: berariazko 58 helburuetatik ehuneko 32,5 bete dira, ehuneko 35 aurrera doaz, eta gainera-koak, ehuneko 32,5, ez dira bete. Aurreikusitako 268 ekintzetatik ehuneko 34 gauzatu dira, hau da, 92 ekintza; gainerako 176 ekintzak gauzatu gabe daude.

### *Onetsitako plan eta programetarako gastua*

Ekonomia Zirkularraren Zerbitzuak 2020an izan duen gastu zenbatetsia be-heko taulan ageri da:

Kontzeptua	2020
Hondakinen arloko mandatua GAN-NIKi	169.084
Hondakinen arloko beste gastu batzuk	163.831
Ekonomia Zirkularraren Zerbitzuan hondakinei egotzitako langile gastua	240.000
<b>Guztira:</b>	<b>572.915</b>

Gastu hori da hondakin fluxu guztietara bideratzen den gutxienekoa. Gainera, badira zeharkako jarduketetarako gastu lerro batzuk hemen sartu ez direnak.





### Ikuskapenen eta zehapenen arloko jarduketak

Ingurumen Ikuskapenen Atalak du eskumena ingurumen arloko esku-hartzearen mende dauden jarduerak eta instalazioak ikuskatzeko, hondakinen tratamenduari dagozkion guztiak barne. Hala, bere urteko ikuskapen planean jasotako jarduketak egiten ditu. Atal horrez gain, badute ikuskatzeko eskumena Ingurumen Kudeaketaren Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzuak, SEPRONA-Natura Babesteko Zerbitzuak eta Foruzaingoak, eta azken horrek badu Ingurumena Babesteko Brigada.

Azken lau urteetan ikuskapen hauek egin dira:

Dptu.	2018	2019	2020	2021	2021/18 aldea	2021/20 aldea
LGID	112	173	138	222	% 98	% 61
Beste batzuk	3	2	50	50	% 16	% 0
<b>Guztira</b>	<b>115</b>	<b>175</b>	<b>188</b>	<b>272</b>	<b>% 136</b>	<b>% 45</b>

2020an beste erakunde batzuen ikuskapenen gehikuntza ikus daiteke, eta 2021ean nabarmen handitu da LGIDek egindako ikuskapenen kopurua. Adierazitako zenbakiak ingurumen arloko esku-hartzearen mendean dauden jarduera eta instalazioen ikuskapen guztiei dagozkie, eta ez dakigu zenbat dauden lotuta hondakinekin.

Hondakindegia dituzten hondakin-mankomunitateei azken lau urteetan egindako ikuskapenak aztertu ditugu, eta laburpen hau egin dugu:

Entitatea	Ikuskapenak 2018-2021	Zehapen espedienteak	Egoera	Oharra
Sakanako Mankomunitatea	4	0		
Servicios de Montejurra SA	4	1	Ebatzita	21.001 euroko isuna
		1	Bideratzen	
Erriberako Mankomunitatea	6	1	Ebatzita	Iraungi da eta artxibatzeko agindu da
		1	Errekurrituta	Isuna: hasieran 90.000 euro, gero 20.000 euro
		1	Bideratzen	20.000 euroko isuna
Iruñerriko Zerbitzuak SA	6	1	Ebatzita	12.000 euroko isuna
		2	Bideratzen	

Hona konklusioak: oro har, ez-betetze errepikatuak izan dira, eta mankomunitateek errekurtsioak jarri izan dituzte zehapenen aurka. Zehapen handiena, 110.000 euroko isuna, 2019an ezarri zioten Iruñerriko Zerbitzuak SAri. Errekurtsioa jarri zuen, eta epaian arau-haustea arintzat kalifikatu zen, aplikatzekoa zen araudiaren ondorioz, eta isuna 12.000 eurora jaitsi. Baina 2020ko abenduan beste lege bat onetsi da ingurumenean eragiten duten jarduerak arautzeko. Horren bidez lege esparrua Estatuko araudiari egokitu zaio eta segurtasun juridiko handiagoa eman zaio Nafarroari.

Hona hemen laburbilduta azken urte hauetan hondakinen arloan ezarri diren zehapenak, Hondakinen Funtsen parte direnak:





Partida	2018	2019	2020	2021	Guztira
Hondakinen arloko isunak eta kalte-ordainak	150.284	191.585	97.765	75.985	515.619
* Entitate publikoak	5.100	122.525	16.651	1.500	145.776
* Entitate pribatuak	145.184	69.060	81.115	74.485	369.844

Hala ere, ikusi dugu hondakinekin zerikusia zuten zehapen batzuk oker egotzi zaizkiola isunen partida orokor bati, isun batzuk kobratu gabe daudela, eta hiru isun, guztira 61.001 euro, kobratuta daudela baina ez direla sartu Hondakinen Funtsean.

### Hondakinen Funtsa

“Hondakinen Funtsa” deritzona hondakinekin zerikusia duten ingurumen arloko jarduketak finantzatzeko erabiltzen da (prebentzio jardueren sustapena, hondakinen kudeaketaren arloko I+G jarduerak, sentsibilizazioa eta kanpainak, ekonomia zirkularren sustapena, bilketa, birziklatze eta balorizazio sistemen hobekuntza, etab.).

Hondakinen Funtsa bi iturri nagusitatik elikatzen da: 2018an Hondakinei buruzko Foru Legeak sortutako zerga, NFKn hondakinak erraustearen eta hondakindegian ezabatzearen gainekoa, eta hondakinekin zerikusia duten ingurumen arloko arau-hausteengatik NFKAk ezartzen dituen zehapenak. ESHen gaineko zerga Iruñerriko Mankomunitateak eta Partzuergoak ordaintzen dute. Azken horrek mankomunitate kideen kontura ordaintzen du zerga, eta gero mankomunitatei ordainarazten die dagokien zenbatekoa.

Hondakinei buruzko Foru Legearen arabera, LGIDek urtero banatuko du Hondakinen Funtsa, hondakinen entitate publikoari kontsulta egin ondoren, aintzat harturik hondakinen hierarkiako goiko mailak lehenesten dituen irizpidea, helburuak, ingurumen-premiak eta legean bertan adierazitakoak.

Diru-sarreretako partida banatan egotzi dira zerga eta zehapenak. Partida horietan diru kopuru hauek sartu dira 2018tik 2021era bitarteko urteetan:

Kontzeptua	2018	2019	2020	2021	Guztira
Hondakindegia zerga	624.442	3.661.501	4.499.895	4.703.854	13.489.692
Zehapenak eta isunak	19.226	134.425	41.006	56.079	250.736
Guztizkoak:	643.668	3.795.926	4.540.901	4.759.933	13.740.428

Zehapen eta isunen zenbateko horiek eskubidea aitortu den urtean kobratutakoak dira. Ez zaie jarraipenik egin ondorengo urteetan Hondakinen Funtsera egozteko kobratutako zenbatekoei.

Hondakinak hondakindegian ezabatzearen gaineko zerga dela-eta lau ekitalditan 13,5 milioi bildu dira guztira; ehuneko 56 Iruñeko Mankomunitateari dago kio eta ehuneko 29 Partzuergoari.





Hondakinen Funtsean hiru hondakin mota bereizten dira: etxeko hondakinen fluxua, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen (EEH) eta hondeatutako material naturalen (HMN) fluxua, eta bestelako hondakin arriskugabeen fluxua. Hondakin fluxu bakoitzarengatik funtsari egiten zaion ekarpena honako taula honetan azaltzen da:

	2018	2019	2020	2021
Etxeko hondakinen fluxua	% 31	% 40	% 60	% 56
EEH eta HMNen fluxua	% 36	% 26	% 8	% 19
Bestelako hondakin arriskugabeen fluxua	% 33	% 34	% 32	% 25
<b>Guztira</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>

Aurreko taulan ageri denez, etxeko hondakinen fluxuak gehikuntza nabarmena izan du urte hauetan, eta 2019tik aurrera berak du pisu handiena bildutako guztizko diru kopuruan. Sailkapen hori garrantzitsua da, Hondakinen Funtsa banatzerakoan errespetatu egin behar baita fluxu bakoitzak zergaren bitartez egindako ekarpenaren proportzioa.

Hondakinen Funtsa banatzeko, urtero foru agindu bat onesten da, eta gero zenbait deialdi onesten dira toki entitateek garatutako proiektuak finantzatzeko. Deialdi horiek berandu egin dira eta oso gauzatze maila txikia izan dute; hala ere, 2021ean zertxobait hobetu dira. Kasu honetan, proiektuak prestatzeko bitarteko edo baliabide gehien dituzten entitateek dirulaguntzak lortzeko aukera gehiago dituzte.

Hurrengo taulan jaso ditugu bai sortutako funtsa edo sarrera, bai banaketarako foru aginduen bitartez zuzkitutakoa eta benetan gauzatutakoa:

	2018	2019	2020	2021	Metatua
Sortutako funtsa / Sarrera	643.668	3.795.926	4.540.901	4.759.933	13.740.428
Funtsaren zuzkidura		637.888	3.571.044	4.351.385	8.560.317
Funtsaren gauzatzea		0	430.389	2.041.594	2.471.984
HF dela-eta atxikitako gerakina(*)	643.668	4.439.594	8.550.105	11.268.444	

(\*) HF dela-eta atxikitako gerakina = Aurreko urteko gerakina + Sortutako funtsa - Funtsaren gauzatzea

2021aren amaieran, sortutako funtsaren ehuneko 18 eta egindako zuzkidura-  
ren ehuneko 29 baino ez dago gauzatuta, eta guztira 11,27 milioi gelditzen dira atxikitako gerakin gisa gauzatu gabe. Atxikitako zenbatekotik, gutxi gorabehera bost milioi dagozkio ESHen fluxuari.

Hona gauzatze txiki horren arrazoiak: egindako zuzkidura baino zenbateko txikiagoko deialdiak egiten direla, dirulaguntzek gehieneko muga dutela entitateko, eta, gainera, epeak oso laburrak direnez, lanak egiteko denbora faltagatik alde handia dagoela hasieran emandako zenbatekoaren eta behin betiko likidazioaren artean. Ondorioz, 2020an, lehenbiziko gastu-urtean, zuzkitutako funtsaren ehuneko 12 gauzatu zen, eta 2021ean ehuneko 47 gauzatu da.





Kudeaketa hobetze aldera, 2021ean dirulaguntzen urte anitzeko deialdia onetsi da, proiektuak planifikatu eta gauzatzeko epe luzeagoa eman behar delako, eta, bestalde, deialdia argitaratzen denean, ekain aldera, aurrekontua jada onetsita egoteagatik eskaera aurkezteko eta proiektuak gauzatzeko mugarik izan ez dadin.

**Labur esanda**, ez dira betetzen ari Hondakinen Funtsa sortzean ezarri ziren helburuak, lehenbiziko urte hauetan gauzatu gabe gelditu baitira toki proiektu batzuk; hala ere, kudeaketaren akatsak zuzentzen ari dira 2021ean.

## VI.2. Zerbitzua kudeatzeko lurralde-eredua

**2. helburua:** Egokia, eraginkorra eta efizientea al da Nafarroan hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuaren kudeaketa eredua?

### VI.2.1. Zerbitzua kudeatzeko prozesuaren antolaketa

2.1. Hondakinen prebentzioa, bilketa, tratamendua eta ezabaketa egiten dituzten entitateen antolaketa egokia al da?

#### *Prebentzioa*

Batez ere, lehen aipatutako hiru entitateak arduratzen dira prebentzioaz: LGI-Deko OPREC, Partzuergoko Prebentzio Bulegoa eta IMko Prebentzio Bulegoa. Gainera, Partzuergoko toki entitateek prebentzio jarduketak egiten dituzte eta Partzuergoak zati bat finantzatzen die.

#### *Bilketa*

Txosten honen II.3 atalean adierazi dugun moduan, hondakinak bildu, garraiatu, tratatu eta ezabatzeko eskumenak mankomunitateen, Baztango Udalaren, Partzuergoaren eta Iruñerriko Mankomunitatearen artean banatuta daude.

Mankomunitateek eta Baztango Udalak egiten duten bilketa zerbitzuen ezau-garriak 2. eranskinean azaltzen dira.

Bilketa egiten duten mankomunitateak tamaina askotakoak dira. Txikiena bi udalerrik eta 897 biztanlek osatzen dute, eta handiena 48 udalerrik eta guztira 378.200 biztanlek. Beraz, mankomunitateek giza baliabide eta bitarteko tekniko eta ekonomiko oso desberdinak dituzte zerbitzu gero eta zorrotzago eta konplexuago bat kudeatzeko edo emateko. Izan ere, mankomunitate txikienek ez dute behar adina teknikari prebentzio eta komunikazio jarduerak kudeatzeko, administrazio publikoetan izapideak egiteko, dirulaguntzak edo kostuen azterlanak bideratzeko, eta ez dute handienek bezainbeste baliabide zerbitzua ongi emateko.





Nahiz eta bilketa sistema eta zerbitzua emateko modua (kanpokoekin edo langile propioekin) ez izan homogeenak mankomunitateetan, gehienek mota guztietako hondakin frakzioak kudeatzen dituzte.

Ezari den azken hondakin frakzioa materia organikoarena da. Hala ere, 2020an zenbait mankomunitatek ez zuten frakzio organikoaren bilketa selektiborik egiten, nahiz eta haietatik gehienek, Erriberako eta Araxesgoieneko mankomunitateek salbu, komunitateko eta etxeko konpostatzearen aukera eskaintzen zuten.

Paper eta kartoiaren frakzioa mankomunitate guztietan biltzen da, eta bakoitzak bere aldetik saltzen dio kudeatzaile baimendunari, Araxesgoieneko, Mendialdeko eta Sakanako mankomunitateek izan ezik, batera kudeatzen baitute. Hala, 3. eranskinean ageri denez, banakako kudeaketak efizientzia galera dakar, baterako kudeaketa eginez alferrikako garraioak saihesten baitira.

TEEHak, ehunak eta oinetakoak, pilak, hondakin handiak eta olioaren mankomunitate guztietan biltzen dira, eta obra txikietako hondakinak ere guztietan, lau mankomunitate txikienetan izan ezik.

Hondakin handien kudeaketan garrantzizko aldeak daude, honako taula honek erakusten duen bezala:

Entitatea	Hondakindegia	Bildutako tonak	Hondakindegira donana (%)
Araxesgoiena	Gongora	6,79	28
Bidausi	Gongora	36,54	28
Ezka-Zaraitzu	Gongora	40,91	28
Malerreka	Gongora	89,97	45
Irati	Gongora	66,99	27
Mendialdea	Gongora	152,14	13
Baztan	Gongora	191,75	27
Bortziriak	Gongora	252,79	24
Zangoza	Tutera	63,71	100
Izarbeibar	Gongora	324,76	23
Sakana	Gongora/Arbizu	361,80	14
Mairaga	Tutera	540,24	94
Erriberagoiena	Tutera	590,94	97
Jurramendi	Gongora/Cárcar	2.709,53	77
Erribera	Tutera	3.396,00	100
Iruñerria	Gongora	4.471,69	27
<b>GUZTIRA</b>		<b>13.296,55</b>	

Zangozako, Mairagako, Erriberagoieneko eta Erriberako mankomunitateek bildutako tona ia guztiak botatzen dituzte hondakindegira aurrez frakzio birzi-





klagarriak bereizi gabe, baina lehenbizikoak Emauseko Trapuketariak fundazioarekin<sup>3</sup> itundu du frakzio horren bilketa 2021etik aurrera. Mairagako Mankomunitateak bilketa bat egiten du bere ekarpen-arloen bitartez eta hondakindegira eramaten du bildutakoa; bilketaren beste zati bat Emauseko Trapuketariak egiten dute, eta haiek bai, bereizi egiten dituzte birziklatzen eta berrerabiltzen ahal diren materialak. Gainerako mankomunitateen isurketa ehunekoa askoz txikiagoa da. Hitzarmena dute Emauseko Trapuketariak.

Heterogeneotasun bera gertatzen da etxeetakoekin parekatzen ahal diren hondakin bilketan, udalerrietako industrialdeetan. Hiru mankomunitatek ibilbide berariazkoa eta bakarra egiten dute industrialdeetan horrelako hondakinak biltzeko, eta bereiz garraiatzen dituzte helmugako instalaziora. Han industria hondakin gisa tratatzen dira, ez etxeko hondakin gisa.

Desberdintasun horrek Partzuergoari urtean 500.000 euroko gainkostua dakarkio gutxienez, industria hondakin eta etxeetako hondakin isurketa tasen arteko aldea dela-eta.

Ez da toki entitateen egitekoa industria hondakinak biltzea, enpresetan sortzen diren etxeetakoekin pareko hondakinak biltzea baizik. Kontua da enpresek batzuetan edukiontzietan uzten dituztela udalen eskumenekoak ez diren hondakinak, eta horrek arazoak sortzen ditu.

Entitateen tamaina erabakigarria da hondakin bilketa eraginkorra eta efiziente izateko. Izan ere, gero eta zehatzagoa eta konplexuagoa da bilketa, eta egungo antolaketarekin entitate bakoitzak bere kabuz kudeatzen du, efizientzia gabeziak eta desberdintasunak sortuz.

**Laburbilduz**, efizienteagoa litzateke Partzuergoak edo etorkizuneko entitate publikoak kontratazio bateratua egitea gutxienez ere paper-kartoiatarako eta hondakin frakzio berezietarako (TEEHak, pilak, hondakin handiak, ehunak, olioak eta abar), kontratazio baldintza hobekak lortzeko eta, halaber, Partzuergoaren eta entitate kideen arteko eragiketa gurutzatuak eta egungo sistemaren beste efizientzia gabezia batzuk saihesteko.

### *Garraioa, tratamendua eta ezabaketa*

Bi entitate handi aritzen dira garraioan, tratamenduan eta ezabaketan, bata bestetik bereiz funtzionatzen dutenak: Iruñeko Mankomunitatea eta Partzuergoa. Ondorioz, zenbait hondakin frakziok foru lurraldean zehar hainbat kilometro egiten dituzte tratatuak izateko, eta horrek karbono aztarnan eragiten du<sup>4</sup>. Hurrengo

<sup>3</sup> Laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak hartzen dituen irabazi-asmorik gabeko fundazio bat da, objektuak bildu, berrerabili eta birziklatzeko prestatu eta saltzen dituenak.

<sup>4</sup> Karbono aztarnak, kasu honetan, errepedeko garraioari lotutako berotegi efektuko gasen isurketak neurtzen ditu. CO<sub>2</sub> tonatan adierazten da, eta klima aldaketaren gaineko inpaktua neurtzen du.







taulan, hondakin frakzio nagusiek egiten dituzten bidaia luzeenak erakusten ditugu:

Tarteko instalazioa	Tonak	Bidaia kop.	Hondakin frakzioa	Helmuga	Kilometroak
Iparraldea	5.548	157	errefusa	Tutera	157
Iparraldea	582	107	ontziak	Azkoiien	126
Iparraldea	591	53	mat. organikoa	Caparroso	127

Iparraldeko transferentzia instalaziotik, errefus frakzioak 157 kilometro egiten ditu Tuterako tratamendu instalazioraino. Berdin gertatzen da Azkoiengo instalaziora eramaten diren ontziekin (126 km) eta Caparrosora doan frakzio organikoarekin (127 km). Hiru hondakin frakzio horien ibilbideen infografiak daude 4.-7. bitarteko eranskinetan, eta instalazio bakoitzean sartzen eta irteten diren tona kopuruak ere azaltzen dira.

Europako zuzentarauan jasotako hurbiltasun printzipioaren arabera, ez du zentzurik Doneztebeko edo Arbizuko instalazioetako hondakinak aurreko taulan adierazitako tokietara eramateak, Iruñerrian instalazio bat egonda. Beste horrenbeste gertatzen da Bidausiko hondakinekin (Iratitik pasatzen dira ezinbestez) eta Iratikoekin: Zangozako tarteko instalaziora garraiatzen dira, eta handik arestian aipatutako instalazioetara.

Bereiz funtzionatzen duten bi entitate publiko izateak kudeaketa horren eraginkortasun gabezia larriak dakartza, eta beharrezkoa da administrazio guztiek apustu estrategiko orokorra egitea norabide berean.

**Laburbilduz**, toki maparen erreforman aurreikusitako eskualdeak sortu behar lirateke, eta Hondakinei buruzko Foru Legean aurreikusitako hondakin entitate publikoa ere bai; mankomunitate guztiak partaide izanen lituzke eta modu zentralizatuan bere gain hartuko lituzke udalen eskumenetako batzuk, eskalako ekonomiak baliatzeko eta prebentzio, kontratazio eta komunikazio ekintzak batera egiteko, besteak beste. Helburua da zerbitzu hobea ematea, homogeenagoa eta lurralde desoreka txikiagokoa, eta egun Partzuergoak dituen muga batzuk saihestea.





## VI.2.2. Bilketa, tratamendu eta ezabaketa instalazioak

2.2. Ba al dago bilketarako behar adina instalazio, eta homogeneous al dira mankomunitate guztietan?

### VI.2.2.1. Bilketa instalazioak

#### Edukiontzia

Bilketa instalazioak ez dira homogeneous, mankomunitate batetik bestera aldatzen direlako tamaina, ezaugarri geografikoak eta biztanleriaren sakabanatze maila, eta entitate bakoitzak bere antolaera duelako. 2020aren amaieran baziren hiru mankomunitate ez materia organikoaren bilketa selektiborako edukiontzirik ez konpostatze komunitariorik ez zutenak (Erribera, Araxesgoiena eta Ezka-Zaraitzu).

Beste zazpi mankomunitatek ez zuten materia organikoaren bilketa selektiborik, baina materia organikoa bereiz biltzen zieten sortzaile handiei, hau da, supermerkatu, hotel, jatetxe eta horrelakoei.

Nafarroan 2020aren amaieran bilketaren lau eredu hauek zeuden:

Mankomunitatea	Bilketa ereduak				Konpostatzea Etxekoa/Komunitarioa
	4 edukiontzi <sup>5</sup>	4 edukiontzi (hezea/lehorra)	Atez ate	5 edukiontzi	
Araxesgoiena	X				X
Bidasi	X			X	X
Ezka-Zaraitzu	X				X
Malerreka	X			X	X
Irati	X			X	X
Mendialdea	X			X	X
Baztan	X			X	X
Bortzirriak	X			X (*)	X
Zangoza	X			X	X
Izarbeibar				X	X
Sakana	X		X	X	X
Mairaga				X	X
Erriberagoiena				X	X
Jurramendi		X		X	X
Erribera	X				X
IM	X			X	X

**X Sakana:** lau edukiontzien sistema erabiltzen du bi herri handienetan (Altsasu eta Irurtzun), atez atekoa herri ertainetan eta sistema misto bat herri oso txikietan.

**X** Sortzaile handiei biltzen diete edukiontzi txikietan, eta Bortzirietan 5. edukiontzia ezarri dute Lesakan.

**X** Partzuergoko entitate guztiek etxeko konpost ontzia ematen diete hala eskatzen duen orori.

<sup>5</sup> Lau edukiontziak dira paper eta kartoiarena (edukiontzi urdina), beirarena (iglu berdea), ontziena (edukiontzi horia) eta errefusarena (edukiontzi berdea edo grisa). Bosgarren edukiontzia materia organikoarena da (marroia).





Materia organikoaren edukiontzirik ez, baina etxeko edo komunitateko konpostatzea badagoen mankomunitateetan, biztanleria osoaren ehuneko 15 eskaera iristen da.

HLKLEZk ez du modalitate bateraturik zehazten toki eskumeneko hondakin frakzioak bereiz biltzeko. Toki entitate bakoitzaren inguruabarretara egokitu behar da gaikako bilketa, HLKLEZren 25.2 artikuluan aipatzen diren eredu efizienteenak kontuan izanik, hala nola atez ateko bilketa edo edukiontzi itxiak edo adimendunak.

Iruñeko Mankomunitateak 2018tik aurrera gaikako biletaren proba pilotua egin zuen Artika Berria eta Azpilagaña auzoetan. Edukiontzi itxiak jarri zituen eta txartel elektronikoen bidez irekitzen ziren. Gaur egun, ezarpen hori hedaturik dago eta biztanleen ehuneko 50engana iritsi da. IMk emandako datuen arabera, emaitzek erakusten dute oso handia izan dela materia organikoaren bilketa selektiboaren gehikuntza, eta ontzien eta paper-kartoiaren frakzioen bilketa ere hazi egin dela neurri txikiagoan. Horrenbestez, errefusaren frakzioa ehuneko 20 inguru murriztu da. Ezarpen hori 2023ko maiatzerako amaitzea aurreikusten da.

### *Garbiguneak eta beste instalazio batzuk*

Mankomunitate guztiek, Araxesgoienekoak salbu, 2020aren amaierarako bazituzten garbigune finkoak edo mugikorak, eta arlo horretan aurrera pauso handiak egin dira Nafarroako Hondakinen Plana onetsi zenetik. Izan ere, orduan baino 39 garbigune gehiago daude guztira, eta gainditu egin dira Nafarroako Hondakinen Planean ezarritako helburuak. Honako taula honetan jaso dira 2017-2021 bitartean inbertsio horietan egindako gastua eta NFKAren Toki Inbertsioen Planetik (TIP) jasotako dirulaguntza:

Entitatea	Gastua BEZik gabe	Dirulaguntza	Dirulaguntza- ren ehuneko
Bortzirietako Mankomunitatea	357.020	266.991	75
Iruñerriko Mankomunitatea	657146	503.751	77
Erriberako Mankomunitatea	430.945	337.038	78
Mairagako Mankomunitatea	216.931	162.606	75
Jurramendiko Mankomunitatea	245.558	185.596	76
Bidautsi H. H. Mankomunitatea	53.600	32.000	60
Erriberagoieneko H. H. Mankomunitatea	994.754	795.388	80
Irati H. H. Mankomunitatea	213.302	166.961	78
Sakanako Mankomunitatea	311.673	42.536	14
Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea	372.352	347.047	93
Izarbeibarko Mankomunitatea	284.273	87.356	31
Mendialdea Mankomunitatea	116.774	87.484	75
<b>Gutzizko orokorra</b>	<b>4.254.328</b>	<b>3.014.755</b>	<b>71</b>

**Laburbilduz**, uste dugu bilketa instalazioak nahiko direla eta Nafarroako Hondakinen Planean ezarritakoa betetzen edo gainditzen dela.





### 2.3. Hondakin-sortzaile handiekin kudeaketa berezia egiten al da mankomunitate guztietan?

Nafarroako Hondakinen Planean jasotako neurrietako bat da hondakinen gaitako bilketa hobetu eta zabaltzea hondakinak sortzen diren esparru guztietan; eta neurri horretarako jasotako ekintza zehatza, berriz, bilketa sortzaile handiei zuzentzea da, hondakin asko sortzen baitute.

Beheko taulan, sortzaile handiei zuzendutako bilketaren egoera azaltzen dugu mankomunitate bakoitzean:

Entitatea	Bilketa berezia sortzaile handientzat	
	Frakzioa	Oharrak
Araxesgoiena	EZ	
Bidausi	M.O.	
Ezka-Zaraitzu	EZ	
Malerreka	M.O. eta P.-K.	
Irati	M.O.	Atez ate
Mendialdea	M.O.	
Baztan (Udala)	M.O. eta P.-K.	Paper-kartoiak atez ate
Bortziriak	M.O. eta P.-K.	Paper-kartoiak atez ate
Zangoza	M.O.	
Izarbeibar	M.O. eta P.-K.	
Sakana	Guztiak / M.O. + P.-K.	Herri batzuetan frakzio guztiak eta beste batzuetan sortzaile handiei bakarrik
Mairaga	Beira eta P.-K.	
Erriberagoiena	M.O.	
Jurramendi	M.O. eta P.-K.	Atez ate
Erribera	EZ	
Iruñerria	M.O., P.-K. eta beira	Atez ateko bilketa alde zaharreko establezimenduetan

M.O = Materia organikoa / P.-K. = Paper-kartoiak

Bilketa berezirik egiten ez duten mankomunitateak hiru baino ez dira: Araxesgoiena eta Ezka-Zaraitzu. Beren tamaina dela eta, ez dute sortzaile handi askorik. Baina Erriberako Mankomunitateak bai, 19 udalerrri eta 90.167 biztanle biltzen baititu.

**Laburbilduz**, 16 mankomunitateetatik 13k inplementatu dute sortzaile handiei hondakinak biltzeko neurria, baina biztanle kopuruaren aldetik bigarren handiena den mankomunitateak inplementatu gabe dauka.





## 2.4. Nahikoak eta egokiak al dira hondakinak tratatzeko eta ezabatzeko dauden azpiegiturak?

### VI.2.2.2. *Tratatzeko eta ezabatzeko instalazioak*

Hondakin bilketaz arduratzen diren mankomunitate partzuergokideek tar-teko biltegiratze instalazioetara eramaten dituzte hondakinak (transferentzia instalazioetara eta zamatze nasetara), eta handik Partzuergoak tratamendu eta ezabatze instalazioetara garraiatzen ditu kamioi handietan.

Transferentzia instalazioen eta zamatze nasen arteko aldea tamainan datza. Lehenbizikoak handiagoak dira, eta zaborra trinkotzen dute azken tratamendu tokira garraiatu baino lehen. Zamatze nasetan, aldiz, ez dira trinkotzen hondakinak.

Hauek dira Nafarroako biltegiratze instalazioak:

Azpiegitura mota	Herria	Jabea
Transferentzia planta	Doneztebe	Partzuergoa
Transferentzia planta	Zangoza	Partzuergoa
Transferentzia planta	Tafalla	Partzuergoa
Zamatze nasa	Arbizu	Sakanako Mankomunitatea
Zamatze nasa	Azkoien	Erriberagoieneko Mankomunitatea
Zamatze nasa	Lizarra	Jurramendiko Mankomunitatea

Hiru transferentzia instalazio daude (Iparraldean Doneztebekoa, Erdialdean Tafallakoa eta Pirinio aldean Zangozakoa), eta hiru zamatze nasa. Hiru transferentzia instalazioak Partzuergoarenak dira, eta nasak mankomunitateenak dira; instalazio horiek Partzuergoaren esku jartzen dituzte bi alderdiek sinatutako hitzarmenen bitartez.

Nafarroako Hondakin Planean aurreikusten zen Iruñerrian transferentzia instalazio bat eraikitze aukera, errefus frakzioa tratatzeko azpiegiturarik ezean. Baina ez da eginen instalazio hori, dagoeneko Iruñerriko Ingurumen Zentroaren (IIZ) proiektua badelako Imarkoainen.





## Tratamendua eta ezabaketa

Tratamendu instalazioak, publikoak eta pribatuak, honako hauek dira, hondakin motaren arabera:

### **Materia organikoa:**

Instalazio mota	Herria	Jabea	Hondakin mota
Triajea + konpostatzea	Cárcar	Jurramendiko M.	BBFO (Jurramendi, Erriberagoiena, Erribera, Izarbeibar eta Mairaga)
Konpostatzea	Arazuri	IM	FB + Araztegiko lohiak
Konpostatzea	Irunberri	Josenea enpresa	BBFO (Iratí, Zangoza)
Biometanizazioa	Caparrosa	HTN enpresa (**)	BBFO (IM, Erriberagoiena, Sakana, Doneztebeko tratam. inst.)
Konpostatzea	Artaxoa	Ecofert enpresa	BBFO (Izarbeibar eta IM)
Biometanizazioa	Mendigorría	Biomendi enpresa	BBFO (Izarbeibar)

\* BBFO (bereiz bildutako frakzio organikoa) eta FB (frakzio berdea)

\*\* HTN – Hibridación Termosolar Navarra SL - Hondakin-kudeatzailea, materia organikoa tratatzen du bere biogas instalazioan

Nafarroako Hondakinen Planak lau konpost instalazio publiko berri aurreikusten ditu zona hauetarako: Erdialdea, Doneztebe eta Arbizu (gehienez 3.000 tona urtean instalazio bakoitzeko) eta Iruñerria (gehienez 50.000 tona urtean).

Txosten hau bukatzerakoan eraikita dago Arbizuko instalazioa eta 2022-2024 TIPEan jasota dago bi instalazio berri eraikitzea Tafallan eta Donezteben. Gainera, 2023rako aurreikusten da Imarkoainen Iruñerriko Ingurumen Zentro berria eraikitzen hastea, materia organikoa tratatzeko instalazio bat barne.<sup>6</sup>

Jarraian azalduko dugu zenbateko distantzia dagoen mankomunitate bakoitzetik dagokion transferentzia instalaziora edo nasara eta tarteko instalazio horretatik amaierako tratamendu instalaziora edo, kasua bada, ezabatze instalaziora. Mankomunitatetik nasa edo instalaziorako garraioa dela-eta Partzuergoak konpentsazioa ordaintzen die mankomunitateei.

<sup>6</sup> IMko lehendakariaren bigarren alegazioaren ondorioz aldatutako paragrafoa.





Mankomunitatea	Materia organikoa						GUZ-TIRA
	Egoitzatik tarteko instalaziora		km	Tarteko instalaziotik trat. instalaziora		km	
MENDIALDEA	Leitza	Arbizu	47	Arbizu	Caparroso	99	146
BORTZIRIAK	Bera	Doneztebe	20	Doneztebe	Caparroso	113	133
BAZTAN	Elizondo	Doneztebe	15	Doneztebe	Caparroso	113	128
MALEERREKA	Doneztebe	Doneztebe	0	Doneztebe	Caparroso	113	113
SAKANA	Altsasu	Arbizu	13	Arbizu	Caparroso	99	112
IZARBEIBAR	Gares	Tafalla	29	Tafalla	Cárcar	44	73
IM				Iruña	Caparroso	69	69
IRATI			36	Agoitz	Irunberri	21	57
ERRIBERA	Tutera	Tutera	0	Tutera	Cárcar	54	54
MAIRAGA	Tafalla	Tafalla	0	Tafalla	Cárcar	44	44
JURRAMENDI	Lizarra	Lizarra	0	Lizarra	Cárcar	37	37
ZANGOZA				Zangoza	Irunberri	19	19
ERRIBERAGOIENA	Azkoien	Azkoien	0	Azkoien	Cárcar/Caparroso	18 / 15	18 / 15

**Ontzi arinak:**

Mankomunitatea	Herria	Hondakin mota	Tratatutako tonak 2020	Instalazioaren errendimendua (%) (*)	Instalazioaren eraginkortasuna (%) (*)
Iruñerria	Gongora	Ontzi arinak	9.900	56,3	71,9
Jurramendi	Cárcar	Ontz. arin. +errefusa	9.066	15,1	Ez da aplikatzen
Erriberagoiena	Azkoien	Ontzi arinak	3.767	64,6	81,1
Erribera	Tutera	Ontzi arinak	3.719	62,0	76,5

(\*) Ecoembesen arabera.

Carcarko HTZn (hondakinak tratatzeko zentroa) ontzi arinak eta errefusa batera tratatzen dira, bilketa sisteman edukiontzi horira batera botatzen direlako ontziak eta errefusa. 2020aren amaiera aldera, Jurramendiko Mankomunitatea bosgarren edukiontzia edo “pixoihal eta beste batzuen” edukiontzia ezartzen hasi zen. Oraindik ez da herri guztietara hedatu.

Erriberagoieneko Mankomunitatean bertako ontziak eta ontzietarako instalaziorik ez duten gainerako mankomunitateetatik jasotako ontziak tratatzen dira. Horretarako, Partzuergoak 2016tik hitzarmen bat sinatuta dauka Erriberagoieneko Mankomunitatearekin.

Erriberako Mankomunitatean Aragoitik ekarritako hondakinak ere tratatzen dira. 2020an tratatutako tonen datua azaltzen da 4. eranskinean; bada, Aragoitik ekarritako hondakinak ehuneko 38 dira datu horretan.

Instalazio automatikoen eraginkortasun balio egokia<sup>7</sup>, Ecoembesen irizpidearen arabera, ehuneko 85 da, eta Nafarroako instalazioak ez dira iristen ehuneko horretara. Datu hori kalkulatzeko, sailkapen instalazioetara sartzen diren ontzien

<sup>7</sup> Instalazioaren eraginkortasuna = Ateratako tonak / Sartutako tonak + inpropioak // Instalazioaren errendimendua = Berreskuratutako mat. / Sartutako tonak





zenbatespena egiten da, oinarri hartuta ontziak sailkatzeko instalazioetan Ecoembesek urtean bospasei aldiz egiten dituen karakterizazioak<sup>8</sup>.

Hondakin frakzio horrek honako distantzia hauek egiten ditu mankomunitate-tik ontzien sailkapenerako instalazioetara:

Mankomunitatea	Ontziak						
	Egoitzatik tarteko instalaziora		km	Tarteko instalaziotik trat. instalaziora		km	Guztira
Mendialdea	Leitza	Arbizu	47	Arbizu	Azkoien	103	150
Araxes	Arribe	Arbizu	40	Arbizu	Azkoien	103	143
Bortziriak	Bera	Doneztebe	20	Doneztebe	Azkoien	118	138
Baztan	Elizondo	Doneztebe	15	Doneztebe	Azkoien	118	133
Bidausi	Garralda	Zangoza	65	Zangoza	Azkoien	62	127
Ezka-Zaraitzu	Izaba	Zangoza	63	Zangoza	Azkoien	62	125
Malerreka	Doneztebe	Doneztebe	0	Doneztebe	Azkoien	118	118
Sakana	Altsasu	Arbizu	13	Arbizu	Azkoien	103	116
Irati	Agoitz	Zangoza	36	Zangoza	Azkoien	62	98
Zangoza	Zangoza	Zangoza	0	Zangoza	Azkoien	62	62
Izarbeibar	Gares	Tafalla	29	Tafalla	Azkoien	28	57
Jurramendi	Lizarra	Lizarra	0	Lizarra	Cárcar	37	37
Mairaga	Tafalla	Tafalla	0	Tafalla	Azkoien	28	28
IM				Iruña	Gongora	15	15
Erriberagoiena	Azkoien	Azkoien	0	Azkoien	Azkoien	0	0
Erribera	Tutera	Tutera	0	Tutera	Tutera	0	0

### Errefus frakzioa (birziklatzea):

Birziklatzea	Instalazioak	Zenbat	Non
Errefus frakzioa	Egungo instalazioak (kudeaketa publikoa)	2	Carcarko HTZ (*) Culebreteko HTZ
	Instalazio berria (proiektua)	1	Imarkoain

(\*) Hondakinak sailkatzeko Carcarko instalazioko tratamenduko errefusa.

Badago errefus frakzioa tratatzeko instalazio bat Tuteran, eta Komunitate oso-tik jasotzen du hondakin mota hori, Iruñerriko eta Jurramendiko mankomunitateetatik izan ezik; lehenbizikoak gaur egun Gongorako hondakindegira (Aranguren Ibarra) bidaltzen du errefusa, eta bigarrenak Carcarko ontzien sailkapen instalaziora, ontzi arinekin batera tratatzeko.

NHPk Iruñerriko Ingurumen Zentro berria ere jasotzen du. Imarkoainen proiektatuta dago eta 2025ean abiaraztekoa da.

<sup>8</sup> Eskuzko triajearen bidezko hondakin-karakterizazioetan hondakin frakzioak bereizten dira, eta zehaztu egiten da frakzio bakoitzaren izaera, zer ehunekotan dagoen, zein hondakin baliarazi ahal diren, eta abar.







Aukera efizienteagoa litzateke Iruñeritik hurbilen dauden mankomunitateetako hondakinak Iruñerriko Mankomunitatean tratatzea (hurbiltasun printzipioa). Adierazitako zonetatik tratamendu instalazioetaraino hondakinek egiten dituzten kilometroek kostu oso handia sortzen dute ekonomian eta ingurumenean.

Hondakin frakzio horrek mankomunitatetik azken tratamendu gunera arte egiten dituen distantziak honako hauek dira:

Mankomunitatea	Errefus frakzioa						
	Egoitzatik tarteko instalaziora		km	Tarteko instalaziotik tratamendu instalaziora		km	Guztira
Mendialdea	Leitza	Arbizu	47	Arbizu	Tutera	140	187
Araxes	Arribe	Arbizu	40	Arbizu	Tutera	140	180
Bortziriak	Bera	Doneztebe	20	Doneztebe	Tutera	154	174
Baztan	Elizondo	Doneztebe	15	Doneztebe	Tutera	154	169
Bidausi	Garralda	Zangoza	65	Zangoza	Tutera	92	157
Ezka-Zaraitzu	Izaba	Zangoza	63	Zangoza	Tutera	92	155
Malerreka	Doneztebe	Doneztebe	0	Doneztebe	Tutera	154	154
Sakana	Altsasu	Arbizu	13	Arbizu	Tutera	140	153
Irati	Agoitz	Zangoza	36	Zangoza	Tutera	92	127
Izarbeibar	Gares	Tafalla	29	Tafalla	Tutera	65	94
Zangoza	Zangoza	Zangoza	0	Zangoza	Tutera	92	92
Mairaga	Tafalla	Tafalla	0	Tafalla	Tutera	65	65
Erriberagoiena	Azkoien	Azkoien	0	Azkoien	Tutera	48	48
IM				Iruña	Gongora	15	15
Jurramendi							0
Erribera	Tutera	Tutera	0	Tutera	Tutera	0	0


IIZ berriak Iparralde-Sakana eta Bidausi-Irati eta Ezka-Zaraitzu aldeetako hondakin guztiak hartzeko ahalmena izan lezake, eta egungoa baino aukera efizienteagoa litzateke, hondakinek egiten dituzten kilometroak kontuan izanik.

### *Errefus frakzioa (ezabatzea):*

Ezabatzea	Instalazioak	Zenbat	Non
Hondakindegia	Egungo instalazioak (kudeaketa publikoa)	4	Carcarko HTZ
			Gongorako HTZ
			Culebreteko HTZ
			Sakanako HTZ (ind. hond. soilik)
	Balizko hondakindegia berria	1	Iruñeko eskualdea

Iruñeko eskualdean hondakindegia berri bat egiteko aukera jaso da NHPn, eta, hala ere, IIZ berriaren proiektuan ez dago inolako aurreikuspenik hondakindegira eramanen den errefusari buruz. Proiektuan instalazio multzo bat aurreikusten da, erabilera anitzeko instalazio integratuak eta malguak, materia organikoaren frakzioa, ontziak eta errefus frakzioa tratatu ahal izateko.





Bada ez-betetze nabarmen bat, eragina duena NFK-ko adierazle nagusietako batzuetan (birziklatzera eramaten diren hondakinak, tratatzera eramaten den errefus frakzioa eta aurrez tratatu gabe ezabatzen diren hondakinak): hain zuzen ere, IMk aurrez tratatu gabe bidaltzen du hondakindegira errefus frakzio osoa, hau da, bere ESHen ehuneko 40 inguru 2020an. Kontuan izanda IMk 2023rako amaituta edukiko duela edukiontzietarako sarbideak kontrolatzeko sistemaren hedapena, aurreikusten da nabarmen murriztuko dela errefus frakzioa eta, horrenbestez, tratatu gabeko tona kopurua.

Hala ere, zuzeneko isurketa horrek ez du araudia betetzen. LGIDek isurketak ikuskatzen eta zehapenak ezartzen ditu. Hala ere, nahiz eta Iruñerriko Mankomunitateak urteak daramatzen hondakinak tratatzeko instalazio berri bat eraikitzeko ahaleginetan, orain arte ezin izan du eta ez zaio erantzunik eman arazoari<sup>9</sup>.

2018an, Europako Batzordeak, hondakinaren isurketari buruzko 1999/31/EE Zuzentaraua eta HEZ betetzen ote ziren aztertzeko programa pilotu batean, Espainiako bost hondakindegia ikuskatu zituen, Gongorakoa tartean, eta presako neurriak exijitu zituen, EBko Justizia Auzitegiak Malagrottako hondakindegia buruz emandako epaia behar bezala aplikatzeko, isurketei zegokienez<sup>10</sup>.

LGIDek 2019ko otsailean ekintza plana aurkeztu zion Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari (MITERD), detektatutako akatsak eta ez-betetzeak zuzentzeko. Plan hori, gainerako autonomia erkidegoetakoekin batera, Europako Batzordeari aurkeztu zion MITERDek.

Ekintza planak hiru proposamen zituen: Iruñeko Mankomunitateko errefus frakzioa Partzuergoaren tratamendu instalazioetara eramatea; Gongoran hondakinak tratatzeko behin-behineko konponbide bat instalatzea; edo Nafarroatik kanpoko tratamendu instalazioetara bidaltzea.

2021eko apirilean Europako Batzordeak ekintza plan guztiak eguneratzeko eskatu zuen. Nafarroak, Gongorari dagokionez, aurreko planeko neurri berak jaso ditu, eta instalazio berriaren eraikuntzaren atzerapena aurreikusten du bertan.

**Laburbilduz**, Imarkoainen IIZ eraikitzen denean zuzeneko isurketaren arazoa konponduko da, baina, adierazi dugun bezala, 2025. urtera arte ez da aurreikusten hura erabat martxan jartzea<sup>11</sup>. Beraz, epe laburrean, IMk presaz aztertu behar

<sup>9</sup> IMko lehendakariaren lehen alegazioaren ondorioz aldatutako paragrafoa.

<sup>10</sup> EBko Justizia Auzitegiak, 2014an, Italia kondenatu zuen Malagrotta auzian, Erromako eta Latinako probintzietako hiri hondakinak aurrez inolako tratamendurik jaso gabe hondakindegietara eramateagatik.

<sup>11</sup> IMko lehendakariaren 3. alegazioaren ondorioz aldatutako paragrafoa.





ditu errefus frakzioa hondakindegira eraman aurretik tratatzeko beste aukera batzuk, araudiak eskatu bezala, eta LGIDek areagotu egin behar du ikuskatze eta hertsatze ekintza, arauak behin eta berriz urratzea eragozteko.

### VI.2.3. *Prebentzio politikak eta helburuen betetzea*

#### 2.5. Gauzatu diren prebentzio politikak nahiko al dira?

Prebentzioari dagokionez, OPREC eta Partzuergoaren eta IMren prebentzio bulegoak elkarrekin koordinaturik aritzen dira. IMk eta Partzuergoak badute urteroko prebentzio programa, eta Partzuergoak, gainera, entitate kideen prebentzio jarduketak finantzatzen ditu.

Hona hemen 2020ko ekintza eta kanpainetako batzuk:

- Gaikako bilketa sanferminetan, GIB esperientzia pilotuak, berriz erabiltzeko baxera, plastikozko poltsen kanpaina, tuper banaketa dendetan, orgen banaketa erabili eta botatzeko poltsarik ez erabiltzeko, ekitaldi jasangarriak, eraikin publikoetako kudeaketa planak.
- IMren Ingurumen Hezkuntzako Programa. 20.000 bat eskola-umek parte hartu dute.
- Materia organikoaren bilketa selektiboa bultzatzeko laguntza toki entitateei, hondakin handiei buruzko komunikazio kanpaina, “Ibaiko beste arrainak” erakusketa, ekonomia zirkularra Araxes ikastetxe publikoan, ikasleentzako hezkuntza programa 111 ikastetxetan.
- IMren eta Nafarroako Elikagai Bankuaren arteko hitzarmena, ekoizle handiei elikagaiak biltzeko eta horiek baliatzeko.
- Hondakindegietarako ikuskapen prozedura berariazkoa, hondakin biodegradagarriak jasotzen ez dutela egiaztatzeko.
- Eskualde arteko lankidetzarako LCA4Regions proiektu europarra, baliabideen erabilera eraginkorrerako politikak hobetzea helburu duena.





Prebentzio jardueretako gastuak honako hauek izan dira 2020an:

Entitatea	Kontzeptua edo partida	Aurreikuspena	ABG	Betetzea (%)
IM	Hezkuntza programa	Daturik ez	310.306	
IM	Akonpainamendua, materia organikoa	Daturik ez	59.660	
IM	Elikagaiak biltzeko programa	Daturik ez	145.000	
IM	"Arreglátelas" programa	Daturik ez	130.310	
Partzuergoa	Partzuergoaren prebentzio jarduerak	101.000	102.303	101
Partzuergoa	Mankomunitateen prebentzio jarduerak	60.088	45.002	75
Partzuergoa	Hezkuntza programa	73.689	36.457	49
Partzuergoa	Hitzarmena Izarbeibarko M. Prebentz. Bul.	55.608	57.796	104
Partzuergoa	Akonpainamendua, materia organikoa	141.960	50.013	35
Preb.Bul.NG	Prebentzio gastuak	Daturik ez	194.833	-
<b>Guztira</b>			<b>1.131.680</b>	

Partzuergoaren zenbait partidaren gauzatzea txikia izan da, pandemiaren ondorioz, batez ere. Hala ere, 2021. urtean "Akonpainamendua, materia organikoa" partida antzeko portzentajean gauzatu da, eta gainerako partidak osorik gauzatu dira. Gauzatze txiki horren arrazoia da, mankomunitateen arabera, epe laburrak izaten dituztela gastua egiteko. Beraz, mankomunitateen kanpainak indartu behar lirateke, nahikoa denbora lehenago haien esku jarriz kanpainetarako behar dituzten baliabideak.

Oro har, ahalegin handia egin da prebentzioan, OPRECEk eta Partzuergoaren eta IMren prebentzio bulegoek egindako kanpainekin, baina ezarritako helburua betetzetik urrun ibili da, hurrengo atalean azaltzen dugun bezala. Mankomunitate txikiaren kanpainak indartu behar lirateke, zenbaitetan ez baitute behar adina baliabiderik.

## 2.6. Lortu al dira Estatuko eta autonomia erkidegoko araudi eta planetan ezarritako helburuak?

Atal honetan aztergai dugu, batez ere, zenbateraino bete diren NHPn 2020rako ezarritako helburu partzialak. Helburu horiek PEMAREkin eta HEZrekin lerrotaturik daude. 8. eranskineko taulan azaltzen dira 2020rako helburu nagusiak eta horien betetze maila, eta 2022rako eta 2027rako helburuak.

### • *Prebentzioa eta murrizketa*


NHPn ezarritako helburua da hondakin gutxiago sortzea eta material eta produktuetan substantzia kaltegarrien edukia murriztea, halako moldez non 2010eko aldean ehuneko 10eko eta 12ko murrizketa lortu behar baita 2020an eta 2027an, hurrenez hurren.






Nafarroan ESHen sorrera ehuneko 0,50 hazi da 2020an, 2010eko datuekin erkatuta. Beraz, ez da bete ezarritako helburua. 2021eko behin-behineko datuak ehuneko 0,46ko gehikuntza dakar 2010eko aldean. Beraz, aurreko urtetik jaitsi-era txikia izan den arren, oraindik urrun dago 2027rako ezarritako helburua. Sorreraren murrizketa ekoizlearen esku dago neurri handian, eta kasu honetan legegintzako neurriak erabakigarriak dira helburuak lortzeko.

Nafarroan 2010. urtetik hona per capita hondakin-sorrerak eboluzio hau izan du:



Konparatzen baditugu 2020ko per capita sorreraren datu gordinak Europako, Estatuko eta zenbait autonomia erkidegotako batezbestekoekin, hona emaitzak:





Nafarroan 427 kilogramo sortu dira biztanleko 2020an, Europako eta Estatuko batezbestekoen azpitik. Hala ere, Nafarroak ez du bete 2020ko helburua, eta oso urrun dauka 2027ko helburua. Adierazi dugun bezala, kasu honetan arauzko neurriak hartu behar dira, sorrera eragotziz eta fokua ekoizleengan jarritz. Izan ere, behin produktua merkaturatutakoan zailagoa da hondakinen sorrera murriztea.

Horren harira, HLKLEZk prebentzioaren helburua betetzeko neurri garrantzitsuak biltzen ditu.


### • *Gaikako bilketa*

Nafarroako Hondakinen Planak ESHen gaikako bilketari dagozkion zazpi helburu kuantitatibo ezartzen ditu. Helburu guztiak bete dira, frakzio organikoa bereiz biltzearena izan ezik.

- Lehenbiziko adierazlea frakzio organikoaren bilketa selektiboaren hedapenari dagokio; biztanleen ehuneko 75engana iristeko helburua ezarri zen 2020rako. Biztanleen ehuneko 84k dute eskura bilketa selektibo hori. Beraz, helburua bete da.

- Bigarren adierazlea da bereiz bildutako materia organikoaren ehunekoa, sortutako kopuru osoaren aldean; 2020rako helburua zen ehuneko 50era iristea. Sortutako kopurua zenbatespena da, hondakinen guztizko kopuruaren ehuneko jakin bat oinarri, PEMARen ezarritakoa (ehuneko 39,45). 2020an ehuneko 37ra iritsi da, sortutako kopuru osoaren aldean, kontuan izanda BBFO frakzioa, autokonpostatzea eta landare frakzioa. Kalkuluan frakzio berdea kanpoan uzten bada, portzentajea ehuneko 23ra jaisten da.

Nafarroan konpost bihurtzen diren hondakinen ehunekoa eta Europako, Estatuko eta beste autonomia erkidego batzuetako batezbestekoa honako hauek dira 2020an:





- Hirugarren adierazleak hondakin inpropioen<sup>12</sup> ehuneko eta materia organikoaren kalitatea erakusten ditu. Inpropioak gehienez ere ehuneko 20 izan behar ziren 2020rako, eta adierazlea ehuneko 13 izan da; beraz, helburua bete da.
- Ontziei dagokienez, bereiz bildutako ontzien kopuruaren ehuneko bosteko gehikuntza lortu behar zen 2014ko aldean, eta adierazleak ehuneko 39ko gehikuntza eman du; beraz, helburua aise bete da.
- Aurrekoetz gain, Nafarroako Hondakinen Planean beste hiru helburu ezarri dira honako gai hauetan: mankomunitate bakoitzeko garbiguneen kopurua; hondakin handien, TEEHen eta ehunen etxez etxeko bilketa hedatzea; eta, azkenik, obra txikietako hondakinen bilketa indartzea.

Garbiguneen kasuan, mankomunitate bakoitzean gutxienez ere garbigune bat izatea zen helburua, eta gaur egun Araxesgoieneko Mankomunitatea falta da helburu hori betetzeko, baina kontuan izan behar da mankomunitate txikiena dela eta zerbitzu hori beste batzuekin hitzartu lezakeela ekonomiaren eta efizientziaren mesedetan. Gainerako entitateek gainditu egin dituzte aurreikuspenak.

Hondakin handien, TEEHen eta ehunen etxez etxeko bilketaren kasuan ehuneko 25eko helburua ezarri zen 2020rako, eta ehuneko 100eko hedapena lortu da hiru hondakin frakzio horien etxez etxeko eta garbiguneetako bilketan.

Obra txikietako hondakinei dagokienez, helburutzat ezarri zen biztanleen ehuneko 75ek bilketa hori eskura izatea, eta ehuneko 84 lortu da 2020an.

**Laburbilduz**, gaikako bilketaren hierarkian, nahiz eta biztanleen ehuneko 84k eskuragarri duten materia organikoaren bilketa, sortutako guztizko kopuru zenbatetsiaren ehuneko 23 baino ez da biltzen. Beraz, komenigarria litzateke frakzio horren bilketa sustatzeko kanpainak indartzea eta biltzeko beste sistema efizienteko batzuk ezartzeko aukera aztertzea, ratio handiagoak lortu ahal izateko.

#### • *Berrerabiltzeko prestatzea*

Ezarritako helburua ehunen, TEEHen, altzarien eta berrerabiltzeko prestatu ahal diren beste hondakin batzuen frakzioei dagokie. Honako helburu hau ezarri zen 2020rako: berrerabiltzeko prestatzera bideratzea etxeetako hondakinen ehuneko bi, sortutako hondakin guztietatik.

2020ko adierazlea ehuneko 0,14 izan da, eta 2021eko behin-behineko datuetan ehuneko 0,39 lortu da. Beraz, ez da bete helburua. Berrerabiltzeko prestatzeari buruzko datuak Emauseko Trapuketariak erakundeak eman ditu, hura baita hondakin mota horren kudeatzaile baimendua.

---

<sup>12</sup> Kasu honetan, materia organikoaren frakziokoak izan gabe materia organikoaren edukiontzira botatzen diren hondakinak dira





• **Birziklatzea eta baliaraztea**


NHPk bost helburu ezartzen ditu, sei adierazlerekin. Biohondakinetan, helburua da bereiz bildutako biohondakinetatik ahalik eta gehien birziklatzea edo/eta baliaraztea. 2020rako ezarritako helburua ehuneko 100ekoa zen, eta bete egin da, bereiz bildutako materia organiko guztia konpostatzen edo/eta birziklatzen baita.

• Ontziei dagokienez, NHPk ezartzen du sistemari atxikitako ontzi merkaturatuetatik gutxienez ere ehuneko 80 bideratu behar direla birziklatzera 2020an; ezartzen du, gainera, bereiz bildutako ontzien ehuneko 90 bideratu behar direla birziklatzera. Lehenbiziko kasuan ehuneko 82 lortu da eta bigarren kasuan ehuneko 94; beraz, ezarritako helburuak bete dira.

• Errefus frakzioari dagokionez, 2017aren amaiera baino lehen frakzio horretako hondakin guztiak tratatu behar zirela ezarri zen. 2020an, frakzio horren ehuneko 45ak tratamendurik gabe jarraitzen du, Iruñerriko Mankomunitateak ez duelako tratatzen frakzio hori, gorago esan dugun bezala.

• Hondakin handiei dagokienez, NHPk 2022rako helburutzat ezarri zuen frakzio horretan bildutako hondakin guztien ehuneko 50 birziklatzera bideratzea. 2020an ehuneko 35 birziklatzea lortu da, eta, beraz, urrun dago 2022rako ezarritako helburua.


• Hondakin guztiei dagokienez, 2020rako helburua zen sortutako hondakin guztien ehuneko 50 birziklatzea oro har, eta ehuneko 46 birziklatzea lortu da; beraz, ez da bete ezarritako helburua.



Taula horretan mankomunitateen arteko konparazioa jaso da balorizazioaren eta ezabaketaren adierazle orokorreari dagokienez; horien xehetasunak 9. eranski-nean azaltzen dira. NFK-ko balorizazioaren adierazlea hartuko dugu. Ehuneko 46 da, eta ikusten dugu Erriberako Mankomunitatea portzentaje horretara iritsi








dela eta Iruñeko Mankomunitateak ehuneko 39 lortu duela. Gainerako en balorizazio tasa askoz handiagoa da, baina Nafarroako adierazlean pisu handiena dutenak IMrena eta Erriberako Mankomunitatearena dira, kudeatutako tona guzti-etatik ehuneko 52 eta ehuneko 15 dagokielako, hurrenez hurren.

Bigarren taula honetan baliarazte eta ezabatze indizeak erakusten ditugu zenbatespenetan oinarrituta ez dauden hondakin frakzioak soilik kontuan hartuta, hau da, pisaketen bitartez lortutako datu errealak; hortaz, kanpoan utzita etxe eta komunitateetako konpostatzea:




Mankomunitate guztiek murriztu dute balorizazio tasa Erriberako Mankomunitateak izan ezik; han ez dago etxe eta komunitateetako konpostatzerik, eta horregatik lehengo mailari eutsi diote.

Etxe eta komunitateetako konpostatzea kalkulatzeko, zenbait parametroren arabera zenbatespena egiten da, baina ez da jarraipenik egiten familiek konpostatze programetan zenbateraino parte hartzen duten ikusteko. Horrek badu eragina amaierako emaitzan, ehuneko 100 baliarazten dela ulertzen baita balorizazioaren adierazlelarako.

Gaika bildutako material birziklatuen ehunekoaren adierazlea (ez dira sartzen biohondakinak) Nafarroako Hondakin Planean jasorik ez badago ere, argibide gisa konparazioa egin dugu honako grafiko honetan:





Nahiz eta Estatuko batezbestekoa gainditu, Nafarroa Europako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Kataluniako batezbestekoen azpitik dago.

- ***Ahalik eta hondakin gutxien ezabatzea***

NHPk bost helburu ezartzen ditu hondakinak ezabatzeari dagokionez, eta horietatik hiru kualitatiboak dira.

Lehenbizikoak hondakin frakzio birziklagarririk batere ez isurtzeari egiten dio erreferentzia. Ez da inongo helbururik kuantifikatu. Hondakindegia duten zentroen (Gongora, Cárcar eta Culebrete) ingurumen baimen integratuen bidez kontrolatzen da alderdi hori. Izan ere, zentro horiek debekatuta daukate hondakindegian baliarazi ahal diren hondakinak hartzea.

- Helburu horrekin lotuta dago bigarren helburua, hau da, hondakindegian hondakinak onartzeko prozesuak betetzei buruzkoa.

- Hirugarren helburua da hondakin biodegradagarri gutxiago isurtzea. Honela kuantifikatzen da: hondakindegira bideratu diren udal hondakin biodegradagarrien kopurua, 1995ean sortutako guztizko hondakin kopuruaren aldean. Adierazleak ehuneko bostekoa izan behar du 2027rako, baina 2020ko balioa ehuneko 40 da, helburutik urrunekoa.


- Laugarren helburua da aurrez tratatu gabeko hondakinik ez eramatea hondakindegira, hau da, zuzeneko isurketarik ez egitea. Nafarroan, 2020an, hondakindegian 92.987 tona ezabatu ziren aurrez tratatu gabe, hots, sortutako hondakin guztien ehuneko 33.





• Azken helburua da ahalik eta hondakin gutxien eramatea hondakindegira. Helburu hau ezarri zen 2020rako: sortutako hondakin guztien ehuneko 35 bideratzea hondakindegira. Helburu hori ere ez da bete, hondakindegira doazen etxe eta saltokietako hondakinak ehuneko 53 baitira 2020an.

Hurrengo grafikoan Nafarroako datuak Europako eta Estatuko babes bestekoekin eta beste autonomia erkidego batzuekin konparatzen dira, hondakinak hondakindegian ezabatu edo errausteari dagokionez.



Hondakindegian ezabatzen den kopurua askoz handiagoa da ezarritako helburua baino, batez ere Iruñeko Mankomunitateak 2020an guztira 83.400 tona hondakin ezabatu dituelako hondakindegian, aurrez tratatu gabe. Errefus frakzio hori tratatuko balitz, ezabatze indizea ehuneko 42ra jaitsiko litzateke.

Hondakindegiko ezabaketa eta errausketa batzen baditugu, Nafarroa Europako batezbestekoa baino goraxeago eta Estatuko batezbestekoa baino beherago dago.

**Laburbilduz**, ez da helburua betetzen BBFO bilketan, errefus frakzioaren tratamenduan, hondakin handien birziklapenean, birziklapenean eta hondakindegiko ezabaketan. Gomendatzen da materia organikoaren bilketa hedatzen ahalegintzea, biztanle gehien dituzten herrietan bereziki, horrek lagunduko baitu gainerako frakzioen bilketa selektiboak nabarmen hobetzen eta errefus frakzioa murrizten.





### VI.3. Hondakin zerbitzuaren ondoriozko gastuak eta diru-sarrerak

**3. helburua:** Homogeneoak eta zentzuzkoak al dira hondakin zerbitzuak dakartzan gastuak eta diru-sarrerak?

Zerbitzuaren ondoriozko gastuak eta diru-sarrerak kalkulatzeko, zenbatespenak eta doikuntzak egin ditugu hondakin bilketaz gain beste zerbitzu batzuk ematen dituzten mankomunitateen kontuetan:

- Hondakinak kudeatzeko zerbitzua baino ematen ez duten entitateen kasuetan, aurrekontu-betetze osoa hartu dugu kontuan, bai gastuena bai diru-sarrerena.
- Zenbait zerbitzu eman, baina bakoitzari kode organiko bat esleitzen dioten mankomunitateetan, hondakin sailkapen organikoa hartu dugu kontuan.
- Kontabilitatean identifikatu gabeko zenbait zerbitzu ematen dituzten entitateetan, batez ere sailkapen funtzionalaren arabera zenbatetsi ditugu hondakinak kudeatzeko zerbitzuari egotzi ahal zaizkion gastuak eta diru-sarrerak.

Hala ere, kontuan izan behar da datu eta kalkulu horiek 2020. urteari dagozkiola, urte horretan izandako salbuespenezko gastu eta diru-sarrera, egindako inbertsio eta jasotako finantzabide guztiekin. Beraz, emaitzetan aldaketak izan daitezke beste ekitaldi batzuen aldean.

Txosten hau egiterakoan, Araxesgoieneko Mankomunitateak eta Ezka-Zaraitzu Mankomunitateak 2020ko kontuak Toki Administrazioiko Departamentuari bidali gabe dauzkate, baina laga egin dizkigute, behin betiko onetsita ez egon arren.

**3.1. Tasak zerbitzuaren kostuaren arabera eta “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioaren arabera finkatzen al dira?**



### Hondakinen bilketa eta tratamendu tasak

Bilketa eta tratamendu tasa hauek zeuden indarrean 2020an:

Entitatea	Ones- pen ur- tea	Bilketa tasa 2020	Tratamendu tasa 2020	Guztira
Mendialdea Mank.	2020	86,90	65,68	152,58
Erriberako Hondakin Solidoen Mank.	2020	71,76	65,68	137,44
Sakanako Mank.	2020	83,16	65,68	148,84
Erriberagoieneko H.H.S. Mank.	2020	59,17	65,68	124,85
Izarreibarko Mank.	2020	89,32	65,68	155,00
Malerekako Mank.	2020	75,82	65,68	141,50
Mairagako Mank.	2019	13,28 + 0,281080 €/m3	65,68	Dat.ez
Bortzirietako H.H.S. Mank.	2019	79,80	65,68	145,48
Araxesgoieneko Mank.	2008	40,00	65,68	105,68
Jurramendiko Mank.	2020	39,95	65,68	105,63
Zangozako. Esk. Zerb. Mank.	2020	70,26	65,68	135,94
Irati H.H.S. Mank. (10. eremua)	Dat.ez	56,25	65,68	121,93
Baztango Udala	2020	67,77	65,68	133,45
Bidautsi H.S. Mank.	2013	45,40	65,68	111,08
Ezka-Zaraitzu H.S. Mank.	2009	66,18	65,68	131,86
Iruñerriko Mank.	2020	47,36 + Katastro balioaren arab. kuota.	Gehienez 128,52	

Bilketaren tarifetan desberdintasun handiak daude. Merkeenak, 40 euro urtean, Araxesgoienekoa eta Jurramendikoa dira. Izarreibarren 89 euro dira urtean eta Mendialdean 87.

Oro har, ez dago jasorik tasak aurretiazko kostu azterketa baten arabera ezarri direnik, Iruñeko Mankomunitatean izan ezik. Izarreibarko Mankomunitateak eta Erriberako Mankomunitateak, ordea, kostuen azterketa egin dute eta hortik ondorioztatu dute tasek ez dutela estaltzen zerbitzuaren kostua.


Bestalde, IMk eta Mairagako Mankomunitateak bakarrik ezarri dute osagai aldakor bat onetsitako tasan. Lehenengoak etxebizitzaren katastro balioaren arabera ezarri du, eta bigarrenak ur kontsumoaren arabera. Gainerako entitateetan etxeetako tarifak finkoak dira, kontuan hartu gabe zenbat lagun bizi diren etxebizitza bakoitzean eta hondakin gehiago edo gutxiago sortzearekin zerikusia izan dezaketen beste inguruabar batzuk.

Mankomunitate gehienek hobariak ezartzen dituzte tarifetan, irizpide sozialak eta edukiontzira dagoen distantzia aintzat harturik, bereziki.

Partzuergoak ezarritako tratamendu eta ezabatze tasaren kasuan, Partzuergoko mankomunitateetako bizilagun guztiek oinarritzko tasa bera ordaintzen dute, baina badaude hobariak frakzio organikoaren bilketa selektiboa edo konposta egiten dutenentzat eta errefus frakzioan inpropioen ehunekoa batez bestekoaren azpikoa duten mankomunitateentzat. Kasu horretan, bilketa tasekin gertatzen den bezala, tasak ez dira kostuen azterketa baten arabera ezartzen, Partzuergoen aurrekontu-beharrizanen arabera baizik.



Tasak eboluzio hau izan du onetsi zenetik:



Iturria: Partzuergoa

Beheko taulan azaltzen da nola eboluzionatu duten azken sei urteetan Partzuergoaren tratamendu tasak eta haren finantza ahalmenaren isla diren gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinek (GODG):

Kontzeptua	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Tasaren zenbatekoa	46,32	52,16	57,11	65,68	65,68	71,04
Aurreko urtearekiko igoera	0	% 13	% 9	% 15	% 0	% 8
2017. urtearekiko igoera		% 13	% 23	% 42	% 42	% 53
GODG (milioikotan)	2,12	1,50	2,36	3,21	3,78	

**Laburbilduz**, entitate gehienetan tasak ez dira ezartzen aurretiaz egindako kostu azterketa baten arabera, eta ez da betetzen “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa, ez bilketa tasetan, ezta tratamendu tasetan ere. Zero isurketatik hurbilagoko emaitzak dituzten Europako ekimen batzuetan, tasek osagai finkoa eta osagai aldakorra dituzte; azken hori, edukiontzira botatzen den errefus frakzioaren kopuruaren arabera.

### 3.2. Zentzuzkoak eta homogeneousak al dira zerbitzua ematearen ondoriozko gastuak?

Kasu honetan mankomunitate bakoitzeko bilketa gastuak azertu ditugu.<sup>13</sup>

<sup>13</sup> IMko lehendakariaren 5. alegazioaren ondorioz aldatutako paragrafoa

*Gastuak biztanleko, tonako eta azalera unitateko*

Entitatea	Biztanleak	€/bizt.	€/t	€/ km <sup>2</sup>	Bizt. dentsitatea
Araxesgoiena	897	64	151	1.233	19,4
Bidausi	2.358	129	225	680	5,3
Ezka-Zaraitzu	2.762	118	252	346	3,1
Malerreka	5.435	45	100	1.098	24,3
Irati	5.571	107(*)	232(*)	851(*)	7,9
Mendialdea	6.555	75	166	1.700	22,7
Baztan	7.850	55	119	1.147	20,8
Bortzirriak	8.563	107	199	4.965	46,4
Zangoza	9.344	89	191	1.525	16,8
Izarbeibar	11.366	85	158	1.971	24,2
Sakana	20.261	83(*)	201(*)	5.528(*)	66,3
Mairaga	26.327	53	107	1.478	27,8
Erriberagoiena	32.157	45	103	3.334	74,0
Jurramendi	52.485	31	65	1.116	35,6
Erribera	90.167	78	171	7.751	99,0
Iruñerriko Mankomunitatea	378.200	58	148	17.754	308,2
	660.298	65	153	4.466	69,2

(\*) Iratiin eta Sakanan datuak araztu egin dira, egindako inbertsioak kenduz

Emaitza horiek 2020ko aurrekontu-gastu guztiekin kalkulatu dira, inbertsioak barne direla, eta, ondorioz, urte horretan inbertsio eta bestelako kapital-gastu handienak egin dituzten entitateei nabarmen igo zaie tonako, biztanleko eta azalera unitateko kostua. Irati eta Sakanako mankomunitateen gastua araztu egin dugu, horietako bakoitzean egindako milioitik gorako inbertsioak kenduz.

Biztanleko eta tonako gastu handiena Bidausi, Ezka-Zaraitzu eta Irati mankomunitateek izan dute, hirurek duten biztanle dentsitate txikiarengatik, ziur asko. Segidan Sakana dago. Tonako gastua batez bestekoa baino askoz handiagoa izan du, atez ateko bilteta sistemaren kostu handiagorengatik, ziurrenik. Bortzirietako Mankomunitateak ere biztanleko eta tonako gastu handia du, barnean sartzan duelako Malerrekako eta Baztango zenbait frakzio biltzeko gastua, gero entitate horiei likidatzen eta kobratzen diena.

*Partzuergoaren eta mankomunitateen artean hitzartutako gastuengatik likidazioak*

Partzuergoaren eta mankomunitateen arteko kontabilitateko eragiketa erreplikakorrak honako hauek dira:

- Transferentzia instalazioak eta zamatze nasak mantentzea. Gastu hori Sakanarekin bakarrik dago hitzartuta, gainerakoak Partzuergoaren eta kanpoko enpresa baten arteko kontratuan sartuta baitaude.





- Beste frakzio batzuk tratatzea, gehienbat hondakin handiak. Mankomunitateek Emauseko Trapuketariengana jotzen dute, eta gero Partzuergoak gastuak ordaintzen dizkie.
- Garbiguneak kudeatzea. Garbiguneetan langileak dituzten entitateek hondakinak bereizi eta sailkatzeko lana egiten dute; hori tratamendutzat jotzen da eta Partzuergoak konpentsatu egiten du alderdien artean hitzartutako moduan.
- Ontzien errefusa tratatzea. Partzuergoak Erriberako Mankomunitateari bakarrik konpentsatzen dio gastu hori, Moratielgo (Erriberagoiena) instalazioan tratatutako ontzien errefusa jasotzen baitu mankomunitate horrek.
- Garraioa. Partzuergoa sortu zen arte, entitate bakoitzak hurbileko hondakindegia batera eramaten zituen bere hondakinak. Partzuergoa sortutakoan gune horiek itxiz joan dira, eta hondakinak transferentzia instalazioetara eta nasetara eramaten dira. Partzuergoak mankomunitateei konpentsazioa ematen die egin behar duten kilometraje erantsi horrengatik.
- TIP garbiguneak. Partzuergoak mankomunitateei finantzatzen die garbiguneetako inbertsioen kostuaren eta TIPeko dirulaguntzaren arteko aldea.
- Transferentziengatikoko beste gastu batzuk: hemen sartzten dira Partzuergoko entitateek prebentzioan, komunikazioan eta sentsibilizazioan egindako gastuak, materia organikorako akonpainamendua eta Prebentzio Bulegoko langileak direla eta Izarreibarko Mankomunitatearekin egindako hitzarmena.

Gastu horien lagin bat berrikusi dugu, eta Partzuergoak behar bezala justifikatuta eta kontabilizatuta daude.

Bestalde, Partzuergoak hitzarmenak sinatu ditu tratamendu-instalazioen titularrak diren Erriberagoieneko, Erriberako eta Jurramendiko mankomunitateekin, hondakinen tratamendu zerbitzuak emateko, eta 2020an egindako likidazioak eta hiru hitzarmenak berrikusi ditugu.

*a) Moratielgo instalazioa (Erriberagoieneko Mankomunitatea)*

Kontzeptua	Likidazioa
Langile gastuak	688.354,84
Gastu arruntak	258.619,17
Amortizazioak	66.649,28
<i>Kostuak, guztira</i>	<i>1.013.623,30</i>
<i>Tratamenduaren diru-sarrerak</i>	<i>1.129.413,01</i>
Ontzien tratamenduaren zenbateko garbia	-115.789,71

Partzuergoak egiaztatu egiten du likidatutako gastuak zentzuzkoak direla, baina langile gastuen kasuan (gastu osoaren ehuneko 68) mankomunitateak ez ditu aurkeztu nominak eta gizarte aseguruak, ezta Partzuergoak eskatu ere; gastuak aurreko ekitaldikoekin konparatzen ditu, eta zentzuzkoak badira, balidatu egiten ditu.







Egiaztatu dugu mankomunitateak Partzuergoari egindako likidazioa ez dato-rrela bat mankomunitatearen aurrekontu-betetzeari aplikatutako egozpen hitzar-tuen emaitzarekin, eta alde nagusia langile gastuan dagoela. Mankomunitateak orde-zko eta laguntzako langileen partidan justifikatzen du alde hori. Mankomu-nitateak langileen nominak eta gizarte aseguruak aurkeztu behar dizkio Partzu-ergoari, hark egiaztapena egin eta likidazioa balida dezan.

*b) Carcarko instalazioa (Jurramendiko Mankomunitatea)*

Kontzeptua	Likidazioa
Langile gastuak	1.067.350,00
Gastu arruntak	513.245,00
Zeharkako kostuak, udalarekiko hitzarmena, hondakindegia	342.447,00
Amortizazioak	272.431,00
<i>Kostuak, guztira</i>	<i>2.195.473,00</i>
<i>Tratamenduaren diru-sarrerak</i>	<i>477.050,00</i>
<i>Diru-laguntzen aldizkatzea</i>	<i>196.234,00</i>
<b>Ontzien tratamenduaren kostu garbia, guztira</b>	<b>1.522.189,00</b>

Kasu honetan egiaztatu behar da langile gastuak tratamendukoak direla, ez bilketakoak. Hor datza zailtasuna.

Servicios de Montejurra SA sozietateak Partzuergoari fakturatzen dio kostu garbia gehi jasandako BEZaren ehuneko 10, guztira 1.674.408 euro.


*c) Culebreteko instalazioa (Erriberako Mankomunitatea)*

Kontzeptua	Partzuergoaren gastua	BEZa, % 10	Erriberako Mank. diru-sarrera
Biometanizazio instalazioa, guztira	4.031.697	366.518	3.665.179
Bioegonkortze instalazioa	64.607	5.873	58.734
Industrialdeetako bilketa	512.316		512.316
Bestelakoak	6.350		6.350
<b>Guztira</b>	<b>4.614.970</b>	<b>372.391</b>	<b>4.242.579</b>

Likidazioa egiteko formula 2008an itundu zen eta 2011n aldatu egin zen. Tra-tatutako tonetan oinarrituta dago batez ere, eta KPIaren arabera eguneratzen da.

Hau da tratatutako tonen eta kostuaren eboluzioa:





Ikus daitekeenez, 2011n formula berrikusi zenetik kostuak tratatutako tonen gaitetik kokatzeko joera du.

**3.3. Hondakinak kudeatzeko zerbitzuak dakartzan diru-sarrerak zerbitzu horren gastuak estaltzen al dituzte?**

*Gastuen estalduraren tasa*

Partzuergoaren tasa, zeina Partzuergoaren finantzaketa iturri ia bakarra baita, entitate kideek igortzen eta kobratzen dute haren kontura. Partzuergoak ez du egiaztatzen, ezta urteroko laginketa baten bidez ere, mankomunitateek eta Baztango Udalak aldiari behin ordaintzen dizkioten zenbatekoak zuzenak ote diren. Halaber, ez dira bete, oro har, entitateek bildutako tasak Partzuergoari ordaintzeko ezarritako epeak.

Partzuergoko entitateek eta Partzuergoak berak hondakin kudeaketa delata dituzten gastuak eta diru-sarrerak jaso dira taula honetan:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Kontzeptua	Zenbatekoa
Partzuergoko entitateen gastuak, guztira	31.795.153	Partzuergoko entitateen diru-sarrerak, guztira	32.417.418
Partzuergoaren gastuak, guztira	11.281.184	Partzuergoaren diru-sarrerak, guztira	12.497.186
<i>Gastu gordinak, guztira</i>	<i>43.076.338</i>	<i>Diru-sarrera gordinak, guztira</i>	<i>44.914.603</i>
Bilketaren doikuntza	-399.373	Partzuergoarekiko eragiketen doikuntza	-9.144.995
Tratamenduaren doikuntza	-9.139.614		
<b>Hondakin gastu garbiak, guztira</b>	<b>33.537.351</b>	<b>Hondakin diru-sarrera garbiak, guztira</b>	<b>35.769.608</b>

Partzuergoko entitateen gastu gordina honela banatzen da: ehuneko 25 langile gastuetan, ehuneko 62 ondasun arrunt eta zerbitzuetan, ehuneko hamar inbertsiotetan eta gainerako ehuneko hirua dirulaguntza eta finantza-eragiketetan.





Partzuergoari dagokionez, ehuneko 92 ondasun arruntetan eta zerbitzuetan izandako gastuak dira, ehuneko zazpi dirulaguntzenak, eta gainerako ehuneko bata inbertsioenak.

Diru-sarreraren ehuneko 100 eta ehuneko 84 tasetatik eta salmentetatik dator Partzuergoan eta Partzuergoko entitateetan, hurrenez hurren. Partzuergoko entitateen gainerako diru-sarrerak dirulaguntzak eta finantza-eragiketak dira (ehuneko 12 eta ehuneko lau, hurrenez hurren).

Egindako doikuntzak Partzuergoaren eta Partzuergoko entitateen arteko eragiketak dira; gastuaren atalean daude, besteak beste, transferentzia instalaziorainoko garraioa, garbiguneen kudeaketa, mankomunitateen instalazioetako tratamendu gastuak eta prebentzio gastuak. Diru-sarreretan, tratamendu instalazioak dituzten mankomunitateek Partzuergoari egindako fakturazioarengatik eragiketak doitu dira.

Kalkulatutako datuak ez dira zehatzak, Partzuergoak eta mankomunitateek ez dituztelako beti kontabilizazio irizpide berak erabiltzen, eta, gainera, BEZa ere ez dutelako beti modu berean erabiltzen. Hala ere, egindako zenbatespenen ondoren konklusioak ez dira nabarmen aldatzen.

Hona saldo zenbatetsia, bai bilketarena bai tratamenduarena:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Kontzeptua	Zenbatekoa	Saldoa
Bilketaren gastuak	21.250.413	Bilketaren diru-sarrerak	20.839.997	-410.416
Tratamenduaren gastuak	12.286.937	Tratamenduaren diru-sarrerak	14.929.611	2.642.674
<b>Guztira</b>	<b>33.537.350</b>		<b>35.769.608</b>	<b>2.232.258</b>

Hondakinen kudeaketak saldo positiboa du, baina bilketak defizita izanen luke hondakinen tratamenduaren saldo positiboak konpentsatuko ez balu.





Entitateka, datu hauek ditugu:

Entitatea	Diru-sarrerak	Gastuak	Saldoa	Gastuaren es-talduraren tasa (%)
Araxes	45.305	59.397	-14.092	76
Bidausi	295.791	312.097	-16.306	95
Ezka-Zaraitzu	280.604	337.628	-57.024	83
Malerreka	369.409	261.579	107.830	141
Irati	1.191.757	1.753.855	-562.098	68
Mendialdea	426.477	511.286	-84.808	83
Baztan	372.807	452.932	-80.125	82
Bortzirriak	1.012.263	944.194	68.069	107
Zangoza	1.113.702	1.158.298	-44.596	96
Izarbeibar	907.151	1.001.760	-94.609	91
Sakana	2.308.744	3.048.225	-739.481	76
Mairaga	1.911.895	1.509.952	401.943	127
Erriberagoiena	1.787.569	1.572.509	215.060	114
Jurramendi	3.015.833	1.838.953	1.176.880	164
Erribera	8.233.117	7.493.503	739.614	110
Partzuergoa	12.497.186	11.281.184	1.216.001	111
<b>Guztira</b>	<b>35.769.608</b>	<b>33.537.351</b>	<b>2.232.258</b>	<b>107</b>

Taulako datuak aztertuta, hau ikusten da:

- Mankomunitate txikienek defizita dute eta handienek superabita, aurrekontu-gastua bakarrik kontuan izanda eta, beraz, amortizazioak eta aurrekontuan islatzen ez diren gainerako kostuak egotzi gabe.

- Hondakinak kudeatu besterik egiten ez duten entitate gehienek defizita dute. Salbuespenak Erriberagoieneko eta Bortzirietako mankomunitateak dira. Lehenak ontziak sailkatzeko instalazioa du, eta bigarrenak bilketa zerbitzua ematen die Malerrekarari eta Baztani.

- Bestalde, Iratiren defizita nabarmentzen da. Neurri handian, nabeko inbertsioaren finantzaketaren desbideratzeak eragiten du. Azkenik, 2020an defizit handiena duen mankomunitatea Sakana da, baina, kasu honetan ere, inbertsioetan (konpost instalazioa eta garbigunea) egindako gastuaren eta dagokion finantzaketaren arteko denbora-bitartearen ondorio da.

- Malerrekan, berriz, diru-sarreratzat egotzi da mankomunitate horren zerbitzuen defizita estaltzeko udalek egindako ekarpenaren zati bat, eta diru-sarrera hori kontuan hartu gabe saldoa gutxi gorabehera zero izanen litzateke.

- Iruñerriko Mankomunitateari dagokionez, bilketa eta tratamenduaren guztizko gastuaren kalkulua bakarrik dago jasorik (33,54 milioi), baina hor ez da sartu gastu orokorren banaketa, eta gastu horiek IMren zerbitzu guztien gastuaren ehuneko 15 dira.





Beheko taulan erakusten dugu IMk igorritako tarifek zenbateraino estaltzen dituzten gastuak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Gastuak, guztira	33.538.130
Salmenten bidezko diru-sarrerak	6.967.107
Zuzeneko kostu garbia	26.571.023
Medialen banaketa <sup>14</sup>	248.087
Kostu garbi osoa	26.819.110
Dirulaguntzen aldizkatzea	1.174.025
Ordenantzako tarifek finantzatzekoa	25.645.085
Ordenantzaren bidezko diru-sarrerak	26.861.694
Egitura kostuak	Daturik ez
<b>Aldea</b>	<b>1.216.609</b>

Beraz, egiaztatu dugunez, kostu orokorrak kontuan hartuko ez balira superabit txikia lortuko litzateke, baina gastu orokorren zenbateko handia kontuan hartuz gero, azken emaitza defizita izanen litzateke.

*Bilketa eta tratamendu tasen bidezko diru-sarrerak biztanleko eta tonako*

Entitatea	Bizt.	t	AEG, tasak	€/bizt.	€/t	Bizt. dentsitate
Araxesgoiena	897	379	61.926	69,04	163,39	19,37
Bidausi	2.358	1.350	209.569	88,88	155,24	5,28
Ezka-Zaraitzu	2.762	1.291	434.745	157,40	336,75	3,12
Malerreka	5.435	2.462	442.545	81,42	179,75	24,28
Irati	5.571	2.577	639.584	114,81	248,19	7,94
Mendialdea	6.555	2.963	550.760	84,02	185,88	22,65
Baztan	7.850	3.640	676.080	86,12	185,74	20,83
Bortziriak	8.563	4.609	738.721	86,27	160,28	46,4
Zangoza	9.344	4.344	841.014	90,01	193,60	16,83
Izarbeibar	11.366	6.136	1.113.425	97,96	181,46	24,18
Sakana	20.261	8.408	1.809.197	89,29	215,18	66,26
Mairaga	26.327	13.041	2.292.669	87,08	175,80	27,78
Erriberagoiena	32.157	14.027	2.497.418	77,66	178,04	73,97
Jurramendi	52.485	25.427	3.976.003	75,76	156,37	35,61
Erribera	90.167	41.155	7.296.785	80,93	177,30	99,03
<b>Partzuergoko entitateak</b>	<b>282.098</b>	<b>131.809</b>	<b>23.580.440</b>	<b>84</b>	<b>178,90</b>	<b>69,17</b>
<b>IM</b>	<b>378.200</b>	<b>147.353</b>	<b>26.466.517</b>	<b>70</b>	<b>179,61</b>	<b>308,25</b>
<b>IM/Partzuergoa konparazioa</b>	<b>% 34,07</b>	<b>% 11,79</b>	<b>% 12,24</b>	<b>-% 16,28</b>	<b>% 0,40</b>	<b>% 345,64</b>

Tonako eta biztanleko diru-sarreretan alde oso handiak daude Partzuergoaren eremuan. Ezka-Zaraitzu eta Irati nabarmentzen dira, batezbestekoa baino askoz gorago baitaude. Biztanle dentsitate handiak azaldu lezake egoera hori, baina

<sup>14</sup> Medialak dira zeharkako kostuak edo kostu-zentroak, helburutzat dutenak zerbitzuak eman edo lan osagarriak egitea amaierako kostu-zentroentzat.





Bidausi ere kasu horretan legoke eta, hala ere, batezbestekoaren azpiko diru-sarrerak ditu tona bakoitzeko.

Sakanan ere diru kopuru handia biltzen da tona bakoitzeko, baina gastua ere handiagoa da, erabiltzen den bilketa sistema dela eta.

Hondakin tona bakoitzeko batez beste kobratzen den zenbatekoa antzekoa da Partzuergoaren eremuan eta Iruñeko Mankomunitatean; azken horrek ehuneko 12 gehiago jasotzen du, eta kudeatzen dituen hondakin tonen ehuneko ere handiagoa da.


Biztanleko datuen azterketan egiazta dezakegu Iruñerriko Mankomunitateak, nahiz eta ehuneko 34 biztanle gehiago dituen, ehuneko 12 hondakin tona gehiago soilik sortu duela. Horren arabera, Partzuergoko entitateetako biztanleek gehiago ordaindu behar dute hondakinen kudeaketatik Iruñerriko biztanleek baino. Konklusio hori gehiago zehaztu behar litzateke, ordea, izan ere, tasa etxebizitzako ordaintzen baita eta ez biztanleko, Mairagako kasuan izan ezik; eta, bestalde, familiei likidatutako zenbatekoa guztizkoaren ehuneko 61 da Iruñeko Mankomunitatean eta ehuneko 80-82 Partzuergoaren eremuan.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikorena Matxain auditoreak proposatuta eman da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2022ko irailaren 16an


Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador





# ERANSKINAK





## 1. eranskina. Arau-esparrua

- 94/62/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1994ko abenduaren 20koa, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa.
- 1999/31/EE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1999ko apirilaren 26koa, hondakinen isurketari buruzkoa.
- 2004/12/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko otsailaren 11koa, zeinaren bidez aldatzen baita 94/62/EE Zuzentaraua, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa - Kontseiluaren, Batzordearen eta Europako Parlamentuaren adierazpena.
- 2008/98/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa, zenbait zuzentarau indargabetzen dituen.
- 2018/851 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko maiatzaren 30koa, Hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaraua aldatzen duena.
- 2019/904 Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, plastikozko zenbait produktuk ingurumeneari duten eragina murrizteari buruzkoa.
- 1013/2006 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko ekainaren 14koa, hondakinak lekualdatzeari buruzkoa.
- Batzordearen 2000/532/EE Erabakia, 2000ko maiatzaren 3koa, honako erabaki hauek ordeztzen dituena: 94/3/EE Erabakia, zeinaren bidez hondakinen zerrenda bat ezartzen baita, bat etorri Kontseiluaren Hondakinei buruzko 75/442/EE Zuzentarauaren 1. artikuluko a) letrarekin; eta 94/904/EE Erabakia, Kontseiluarena, zeinaren bidez hondakin arriskutsuen zerrenda bat ezartzen baita, Kontseiluaren Hondakin arriskutsuei buruzko 91/689/EE Zuzentarauaren 1. artikuluko 4. apartatuaren arabera.
- 1386/2013/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko azaroaren 20koa, Europar Batasunaren 2020ra arteko ekintza programa orokor honi buruzkoa: “Ongi bizi, gure planetaren mugak errespetatuz”.
- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10koa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa
- 7/1985 Foru Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 11/1997 Legea, apirilaren 24koa, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, ekonomia zirkularerakoa.







- 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- 782/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Ontziei eta Ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzeko eta betearazteko Erregelamendua onesten duena.
- 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak zabortegetan utzita ezabatzea arautzen duena.
- 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako irizpideak eta estandarrak ezartzen dituena.
- 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duena.
- 208/2022 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, hondakinaren arloko finantza-bermei buruzkoa.
- Ministro Kontseiluaren Erabakia, 2015eko azaroaren 6koa, Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (PEMAR) onesten duena 2016-2022 aldirako.
- Ministro Kontseiluaren Erabakia, 2020ko ekainaren 2koa, Espainiako Ekonomia Zirkularrerako Estrategia-Espainia Zirkularra 2030 onesten duena.
- 14/2018 Foru Legea, ekainaren 23koa, hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoa.
- 7/2013 Foru Legea, otsailaren 25ekoa, elikagaien hondakinaren erabilerari buruzkoa.
- 4/2005 Foru Legea, martxoaren 22koa, ingurumena babesteko esku hartzeari buruzkoa.
- 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena.
- 49/2020 Foru Dekretua, uztailaren 15ekoa, Hondakinaren Funtza arautzen duena.
- 26/2022 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez onesten baita Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea garatzen duen erregelamendua.
- 103/2018 Foru Agindua, uztailaren 25ekoa, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baitira 366 ereduak (“Hondakinak hondakindegian ezabatzearen eta erraustearen gaineko zerga. Autolikidazioa”) eta aipaturiko zergaren jasanarazpena fakturan.





- 148E/2020 Foru Agindua, irailaren 17koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita Hondakinen Funtsaren 2020ko banaketa.
- Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2016ko abenduaren 14koa, Nafarroako Hondakinen Plana onesten duena 2017-2027 aldirako.
- Nafarroako Gobernuaren Erabakia, 2019ko apirilaren 3koa, Nafarroan Ekonomia Zirkularra garatzeko 2030 Agenda (NEZG 2030) onesten duena.



## 2. eranskina. Bilketa zerbitzuaren ezaugarriak mankomunitateetan

	Kontzeptua	Araxes-goiena	Bidausi	Ezka-Zaraitzu	Male-rreka	Irati	Mendi-aldea	Baztan (Udala)	Bortzi-riak	Zangoza	Izarbeibar	Sakana	Mairaga	Erribe-ragoi-ena	Jurra-mendi	Erribera	IM	
Sistema	Bilketa sistema	Kontrata-tua	Kontrata-tua	Kontra-tatua	Kontra-tatua	B.propi-oak	B.propi-oak	Kontra-tua	Kontra-tua	Kontra-tua	B.propi-oak	B.propi-oak	B.propi-oak	B.propi-oak	B.propi-oak	Kontra-tua	Kontra-tua	
	Papera eta kartoia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	
	Beira	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	
	Ontziak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	
	Errefusa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✓	
	Materia organikoa	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓
	Konpostatze komunit.	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✓	✗	✗	✗	✓
	Autokonpostatzea	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✗	✓
	Frakzio berdea	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✓
	Pilak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Arropa eta oinetakoak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Hondakin handiak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	TEEHak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Sukaldeko olioak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Abeltzaintzako siloak	✗	✓	✗	✓	✓	✓	✗	✓	✓	✗	✗	✓	✗	✗	✓	✗	✗
	Artile bilketa	✓	✓	✗	✓	✓	✗	✓	✓	✓	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗
	Berriz erabiltzeko edalontziak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓
	Garbiguneak	✗	✗	✓	✗	✓	✓	✓	✗	✓	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Birziklatze etxolak-gune mugikorak	✗	✓	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✓
	Obra txikiak	✗	✗	✗	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Langileak	Hondakinetakoa teknikaria	Kontra-tua	Propioa	EZ	Kontra-tua	EZ	Kontra-tua	Propioa	Propioa	Propioa	Propioa	Propioa	Propioa*	Propioa*	Propioa	Propioa*	Propioa	
	Kudeatzailea	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	BAI	EZ	BAI	BAI	

\* Ez dute Hondakinetakoa teknikaririk; mankomunitatearen beraren beste langile batzuek egiten dituzte Hondakinetakoa teknikariaren lanak.





### 3. eranskina. Paper-kartoiaren frakzioaren zirkuitua



- Gorriz, Partzuergoko kide diren mankomunitateak.
- Berdez, IM (ez da Partzuergoko kidea).





<b>Jatorria</b>	<b>SAICAn (Iruña) jasotzen diren paper-kartoi tonak (t)</b>
Jurramendi (hegoaldea)	299
Erribera	1.447
Mairaga	11,30*
Irati	262
Iruña	16.650
Zaraitzu	44*
<b>GUZTIRA</b>	<b>18.714</b>

\*Saicak adierazi du 11,30 tona jaso dituela Mairagatik, eta datu hori ez da koherentea.











\*Zaraitzun badira aldeak bildutako tonen eta Saicak adierazitakoen artean.

<b>Jatorria</b>	<b>IMko paper-kartoi tonak</b>
Bilketa	15.414
Industriakoak	2.088
Ontzien instalazioa	91
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.593</b>






## **LEYENDAS:**

	Muelle (Arbizu, Estella y Peralta)
	Saica (gestor reciclador) Salinas de Pamplona, <u>Martutene</u>
	Bidasoa Gestión (gestor reciclador)
	<u>Saher</u> (gestor reciclador)
	<u>Iruservi</u> S.L. (gestor reciclador)
	Servicios Ecológicos de Navarra (gestor reciclador)
	Recogida mancomunidades
	Recogida Consorcio
	A vertedero / Salida final
	Al gestor reciclador



### 4. eranskina. Ontzi arinen zirkuitua



Gorriz, Partzuergoko kide diren mankomunitateak.











Berdez, IM (ez da Partzuergoko kidea).



**AZKOIENGO SAILKAPEN INSTALAZIOAN SARTUTAKOA:**

Transferentzia instalazioa (TI) edo ZNa	Sartutako tonak
Arbizuko zamatze nasa (ZN)	807
Erriberagoieneko ZNa	879
Doneztebeko TIa	568
Tafallako TIa	781
Mairaga (zuzeneko deskarga)	188
Zangozako TIa	544
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.767</b>

**LEYENDAS:**

	Plantas de Transferencia en Santesteban, Tafalla y Sangüesa (propiedad Consorcio)
	Muelle (Arbizu, Estella y Peralta)
	Plantas de clasificación de envases (Góngora, Carcar, Peralta y Tudela)
	Planta de bioestabilizado de Estella
	Vertedero
	Gestor reciclador (Ecoembes)
	Recogida mancomunidades
	Recogida Consorcio
	A vertedero
	A gestor reciclador (Ecoembes)
*MONTEJURRA	Montejurra tiene un sistema de selección diferente al resto de Navarra y no cuenta con contenedor de resto. En las toneladas de entrada a la planta de clasificación de envases están incluidas los rodantes del pretratamiento de la orgánica (607 t) y material almacenado parada 2019 (613 t).















**HTNren CAPARROSOKO INSTALAZIOAN SARTUTAKOA:**

<b>Transferentzia instalazioa (TI) edo ZNa</b>	<b>BBFO tonak</b>
Arbizuko zamatze nasa (ZN)	680
Erriberagoieneko ZNa	811
Bortzirietako Mankomunitatea	586
IM	6.140
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.217</b>






**LEGENDAK:**

	Plantas de Transferencia en Santesteban, Tafalla y Sangüesa (propiedad Consorcio)
	Muelle (Arbizu, Estella y Peralta)
	Gestores recicladores
	Planta de bioestabilizado de Estella
	Vertedero
	Compost
	HTN (Caparroso)
	ECOFERT, Artajona (Empresa de gestión de residuos orgánicos para la producción de compost y fertilizantes). Biomendi (Bioenergía Mendi, S.L.) está en Mendigorria.
	JOSENEA (Lumbier)
	Planta de compostaje de Cárcar
	Recogida mancomunidades
	Recogida Consorcio
	A gestor reciclador
	A vertedero
*MONTEJURRA	Montejurra tiene un sistema de selección diferente al resto de Navarra y no cuenta con contenedor de resto.





### 6. eranskina. Errefus frakzioaren zirkuitua
















**\*CULEBRETEKO (TUTERA) TRATAMENDU INSTALAZIOAN SARTUTAKOA**


<b>Transferentzia instalazioa (TI) edo ZNa</b>	<b>Errefus tonak</b>
Arbizuko zamatze nasa (ZN)	5.807
Zangozako TIa	6.308
Tafallako TIa	11.199
Erriberagoieneko ZNa	9.550
Doneztebeko TIa	5.560
Erriberako Mankomunitatea	28.523
<b>GUZTIRA</b>	<b>66.947</b>



**LEGENDAK:**

	Transferentzia instalazioak Donezteben, Tafallan eta Zangozan (Partzuergoaren jabetzakoak)
	Nasa (Arbizu, Lizarra eta Azkoien)
	Tuterako biometanizazio instalazioa (Culebrete)
	Carcarko bioegonkortze instalazioa
	Hondakindegia (aurretiazko tratamenduarekin)
	Hondakindegia (ZUZENEAN)
	Kudeatzaile-birziklatzailea (Ecoembes)
	Bioegonkortzea
	Mankomunitateetako bilketa
	Partzuergoko bilketa
	Hondakindegira
	Kudeatzaile-birziklatzailera (Ecoembes)
*JURRAMENDI	Jurramendiko sailkatze sistema Nafarroako gainerakoez bestelakoa da, eta han ez dago errefusaren edukiontzirik. Sarrera hau kanpinetako errefus frakzioa baino ez da.











## 7. eranskina. Hondakin handien zirkuitua



\*Zangozako Mankomunitateak, 2020an, hondakin handiekin nahasita industria hondakinak bidali ditu hondakindegira. Beraz, ezin da jakin balorizaziorik izan ote den. 2021ean Emauseko Trapuketariekin kontratatu dute frakzio hau kudeatzeko zerbitzua.



## **LEGENDAK:**

	Transferentzia instalazioak Donezteben, Tafallan eta Zangozan (Partzuergoarenak)
	Nasa (Arbizu, Lizarra eta Azkoien)
	Garbigunea
	Kudeatzaile-birziklatzaileak (zura, txatarra... )
	Kudeatzaile-birziklatzailea (Emauseko Trapuketariak)
	Hondakindegia (aurretiazko tratamenduarekin)
	Hondakindegia (ZUZENEAN)
	Mankomunitateetako bilketa
	Kudeatzaile-birziklatzailera
	Hondakindegira





## 8. eranskina. 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Planeko hondakin-kudeaketaren adierazle nagusiak

HELBURU MOTA	FRAKZIOA	DESKRIBAPENA	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	ARAUDIA	HELBURUA			EGOERA				
						2020	2022	2027	2020	2021 (*)			
PREBENTZIOA-MURRIZKETA	Guztiak	Hondakinen sorrera murriztea halako moduan non 2020an hondakinen % 10eko murrizketa lortuko den 2010ean sortutakoan aldean, eta 2027ean % 12koa urte berarekiko	IS.OP.01	Hondakin sorreraren murrizketaren ehunekoa, fluxu bakoitzeko, erreferentziako oinarri-urtearekiko (2010)	22/2011 LEGEA	-10		-12	0,50	0,46			
					PEMAR								
					NHP 2027								
GAIKAKO BILKETA	Biohondakinak	Frakzio organikoaren bilketa selektiboa (BBFO) hedatzea	IS.RS.01	Materia organikoaren bilketa selektiboa (BBFO) eskura duten biztanleen ehunekoa, biztanleria osoaren aldean	NHP 2027	75	100	-	84	84			
					BBFOaren nahitaezko bilketa selektiboa	IS.RS.02	Bereiz bildutako materia organikoaren ehunekoa, sortutako materia organiko guztiaren aldean	NHP-Zuzent.	50	-	70	23,26	22,73
						IS.RS.02		Inpropioen ehunekoa eta materia organikoaren kalitatea. Hondakin onargarriak biohondakinak dira: janari hondakinak, sukaldeko paper inprimatu gabea eta lorezaintzako hondakinak.	NHP 2027	20	15	10	13
	Ontziak	Ontzien bilketa selektiboa handitzea (edukiontzia horia)	IS.RS.07	Bereiz bildutako ontzien kopuruaren gehikuntza-ehunekoa 2014an bildutakoan aldean	NHP 2027	5	6		10	39	41		
BERRERABILITZEKO PRESTATZEA	Ehunak, TEE-Hak, altzariak eta konpon daitezkeen beste batzuk	PERMARen ezarritako helburuak lortzea, eta are gainditzea zenbait kasutan.	IS.01.PR.01	Berrerabiltzeko prestatzera bideratzen diren etxeetako hondakinen ehunekoa, sortutako hondakin guztien aldean	NHP 2027-PEMAR	Bildutakoaren % 2	-	-	0,14	0,39			
BIRZIKLATZEA ETA BALIARAZTEA	Biohondakinak	Bildutako biohondakinetatik kopuru ahalik eta handiena birziklatzea edo/eta baliaraztea	IS.R.01	Birziklatzera bideratutako biohondakinen ehunekoa, bildutako guztien aldean.	NHP 2027	100	-	-	100	100			
	Ontziak	Ahalik eta ontzi gehien birziklatzea	IS.01.R.02	Sistemari atxikita dauden eta birziklatzera eramaten diren etxeetako ontzien ehunekoa, bildutako guztien aldean	NHP 2027	80	-	85	82	85,6			
			IS.02.R.02	Bereiz bildu eta birziklatzera edo birbalerizazio materialera bideratzen diren ontzien ehunekoa, bildutako guztien aldean	NHP 2027	90	-	95	94	95			
	GUZTIAK	PEMARen ezarritako helburuak betetzea eta zuzentarauan ezarritako estrategian aurrera egitea.	IS.R.03	Birziklatzera bideratzen diren etxeetako hondakinen ehunekoa, sortutako hondakin guztien aldean	NHP 2017-2030/2035 Zuzent.	50	-	75	46,00	48,23			
	Errefusa	Errefus frakzioaren tratamendua	IS.R.05	Errefus frakzioetatik tratatzen diren etxeetako hondakinen ehunekoa, sortutako errefus frakzio osoaren aldean	NHP 2027	100	-	-	44,52	44,17			
AHALIK ETA HONDAKIN GUTXIEN EZABATZEA		Ez eramatea hondakindegira tratatu gabeko hondakinik; hau da, zero isurketa	IS.D.04	Aurrez tratatu gabe hondakindegian ezabatzen diren etxeetako hondakinen ehunekoa, sortutako etxeetako hondakin guztien aldean	PEMAR-NHP-Zuzent.	0			32,97	32,84			
		Ahalik hondakin gutxienez eramatea hondakindegira	IS.D.05	Hondakindegian ezabatzen diren etxe eta saltokietako hondakinen ehunekoa, sortutako guztien aldean	PEMAR-NHP-Zuzent.	35	-	25	53,21	51,9			

(\*) 2021eko behin-behineko datuak





## 9. eranskina. Mankomunitateetako sorreraren, balorizazioaren eta ezabaketaren laburpen-etaula

MANKOMUNITATEAK	BIZ-TAN-LEAK	SORRERA			SORRERA FRAKZIOKA							BALIARAZTEA			Be- rre- rabil- tze- ko pre- ta- tzea	BIRZIKLAPENA FRAKZIOKA							EZABATZEA			GA- LE- RAK- MU- RRIZ- KE- TAK EZA- BA- KETA	
	Biztan- leak	Tonak	kg/bizt. ur- tean	Erre- fusa	OA	Pa- pera eta kartoia	Beira	BBFO	Auto- kon- post.	Inaus- keta eta bela- rra	Beste batzuk	t	%	kg/bizt. ur- tean		Erre- fusa	OA	Pa- pera eta kartoia	Beira	BBFO	Auto- kon- post.	Inaus- keta eta bela- rra	Beste batzuk	t	%		HON- DAKIN- DEGIA
Araxesgoiena	897	379	423	206	19	31	37	0	71	0	16	240	63,3	268	1	76	13	31	37	0	71	0	12	139	36,7		
Beste herri batzuk	899	87	97	0	0	0	87	0	0	0	0	87	100,0	97									87	0	0,0		
Bidausi	2.358	1.350	573	781	107	141	147	1	106	8	60	813	60,2	345	2	287	76	141	147	1	106	8	46	537	39,8		
Ezka-Zaraitzu	2.762	1.291	467	920	54	83	118	0	57	0	58	680	52,7	246	2	338	39	83	118	0	57	0	43	611	47,3		
Malerreka	5.435	2.462	453	1.433	122	225	193	45	306	11	128	1.472	59,8	271	1	526	87	225	193	43	306	11	80	991	40,2		
Irati	5.571	2.577	462	1.405	199	271	207	56	281	54	104	1.603	62,2	288	4	516	141	271	207	52	281	53	78	974	37,8		
Mendialdea	6.555	2.963	452	1.560	179	300	280	8	328	77	231	1.892	63,9	289	5	573	127	300	280	8	328	76	196	1.071	36,1		
Baztan	7.850	3.640	464	1.800	204	375	262	219	478	51	251	2.374	65,2	302	2	661	145	375	262	212	478	54	186	1.266	34,8		
Bortziriak	8.563	4.609	538	2.328	242	477	360	323	469	52	359	2.982	64,7	348	2	855	172	477	360	312	469	51	285	1.626	35,3		
Zangoza	9.344	4.344	465	3.203	184	444	244	24	93	0	153	2.185	50,3	234	3	1.176	131	444	244	22	93	0	73	2.159	49,7		
Izarbeibar	11.366	6.136	540	3.080	350	388	378	836	159	466	478	3.750	61,1	330	6	1.131	248	388	378	750	159	460	229	2.386	38,9		
Sakana	20.261	8.408	415	3.628	520	806	559	671	1.302	346	578	5.826	69,3	288	15	1.332	368	806	559	651	1.302	341	452	2.582	30,7	109	
Mairaga	26.327	13.041	495	8.118	619	1.067	707	1.064	117	611	737	7.145	54,8	271	6	2.982	439	1.067	707	908	117	603	316	5.896	45,2		
Erriberagoiena	32.157	14.027	436	9.550	879	1.237	541	860	0	182	776	7.065	50,4	220	5	3.508	623	1.237	541	798	180	18	154	6.962	49,6		
Jurramendi	52.485	25.427	484	356	7.846	1.583	1.307	10.547	73	44	3.671	14.919	58,7	284	27	135	3.320	1.583	1.307	7.423	73	44	1.008	10.508	41,3	10.642	
Erribera	90.167	41.155	456	28.522	2.296	3.401	1.533	301	0	1.340	3.761	18.936	46,0	210	9	10.476	1.699	3.401	1.533	202	0	1.322	294	22.219	54,0	48.341	
Irunerria	378.200	147.353	390	83.400	9.886	15.415	9.283	9.134	3.042	9.327	7.867	57.315	38,9	152	296	0	6.107	15.415	9.283	8.561	3.042	9.200	5.410	90.038	61,1	90.956	
Beste batzuk	---	2.761	---	27	0	1	0	0	0	0	2.733	1.628	59,0	---	19								1.609	1.133	41,0		
<b>Guztira*</b>	<b>661.197</b>	<b>282.009</b>	<b>427</b>	<b>150.316</b>	<b>23.705</b>	<b>26.242</b>	<b>16.244</b>	<b>24.089</b>	<b>6.882</b>	<b>12.570</b>	<b>21.961</b>	<b>130.911</b>	<b>46,4</b>	<b>198</b>	<b>404</b>	<b>24.571</b>	<b>13.734</b>	<b>26.241</b>	<b>16.157</b>	<b>19.944</b>	<b>7.061</b>	<b>12.242</b>	<b>10.557</b>	<b>151.098</b>	<b>53,6</b>	<b>150.048</b>	<b>1.050</b>





## Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

David Campi3n Ventura jaunak, Iruñerriko Mankomunitateko (aurrerantzean IM) lehendakariak,

### AZALTZEN DU:

2022ko abuztuaren 31n mankomunitate honi jakinarazi zaiola Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 115/2022 Ebazpena; horren bidez behin-behineko fiskalizazio txosten bat onesten da, “Etxeetako eta saltokietako hondakin kudeaketa. Nola hobetu administrazioen arteko koordinazioa kudeaketa eraginkorrago eta efizienteagoa lortzeko” izenekoa, eta mankomunitate honi irailaren 9ra arteko epea ematen zaio alegazioak egiteko.

Idazki honen bitartez alegazioak aurkezten dituela.

### ALEGAZIOAK:

**LEHENENGOA:** *IV. Konklusioak eta gomendioak* apartatuan (19. or.) hau baieztatzen da beste xehetasunik erantsi gabe:

• *IMk ez du betetzen isurketei buruzko Europako araudia, errefus frakzio osoa hondakindegira eramaten baitu aurretik tratatu gabe.*

Baieztapen horrekin loturik, *VI.1.2. Onetsitako plan eta programen jarraipena* apartatuan (27. or.) mankomunitateen kontra azken lau urteetan hasitako zehapen espedienteak aipatzen dira, eta IMri dagokionez adierazten da Iruñerriko Zerbitzuak SAri (aurrerantzean IZSA) zehapena jarri ziotela eta azkenik 12.000 euroko isunera murriztu zela. Jarraian hau azaltzen da:

*Hona konklusioak: oro har, ez-betetze errepikatuak izan dira, eta mankomunitateek errekurtsioak jarri izan dituzte zehapenen aurka. Zehapen handiena, 110.000 euroko isuna, 2019an ezarri zioten Iruñerriko Zerbitzuak SAri. Errekurtsioa jarri zuen, eta epaian arau-haustea arintzat kalifikatu zen, aplikatzekoa zen araudiaren ondorioz, eta isuna 12.000 eurora jaitsi. Baina 2020ko abenduan beste lege bat onetsi da ingurumenean eragiten duten jarduerak arautzeko. Horren bidez lege esparrua Estatuko araudiari egokitu zaio eta segurtasun juridiko handiagoa eman zaio Nafarroari.*

IMren ez-betetzearen aipamen gehiago daude *VI.2.2.2. Tratatzeke eta ezabatzeke instalazioak, errefus frakzioa* apartatuan (ezabatzea) (41. or.):

*Bada ez-betetze nabarmen bat, eragina duena NFK-ko adierazle nagusietako batzuetan (birziklatzera eramaten diren hondakinak, tratatzera eramaten den errefus frakzioa eta aurrez tratatu gabe ezabatzen diren hondakinak): hain zuzen ere, IMk aurrez tratatu gabe bidaltzen du hondakindegira errefus frakzio osoa, hau da, bere ESHen ehuneko 40 inguru 2020an. Kontuan izanda IMk 2023rako amaituta edukiko duela edukiontzietarako sarbideak kontrolatzeko sistemaren*





*hedapena, aurreikusten da nabarmen murriztuko dela errefus frakzioa eta, horrenbestez, tratatu gabeko tona kopurua.*

*Hala ere, zuzeneko isurketa horrek ez du araudia betetzen. LGIDek isurketak ikuskatzen eta zehapenak ezartzen ditu. Hala ere, ez dago jasorik IMk ezer egin duenik arazo honi erantzuna emateko.*

*Jada 2018an, Europako Batzordeak, hondakinen isurketari buruzko 1999/31/EE Zuzentaraua eta HEZ betetzen ote ziren aztertzeo programa pilotu batean, Espainiako bost hondakindegiri ikuskatu zituen, Gongorakoa tartean, eta presako neurriak exijitu zituen, EBko Justizia Auzitegiak Malagrottako hondakindegiri buruz emandako epaia behar bezala aplikatzeko, isurketei zegokienez.*

*LGIDek 2019ko otsailean ekintza plana aurkeztu zion Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari (MITERD), detektatutako akatsak eta ez-betetzeak zuzentzeko. Plan hori, gainerako autonomia erkidegoetakoekin batera, Europako Batzordeari aurkeztu zion MITERDek.*

*Ekintza planak hiru proposamen zituen: Iruñeko Mankomunitateko errefus frakzioa Partzuergoaren tratamendu instalazioetara eramatea; Gongoran hondakinak tratatzeko behin-behineko konponbide bat instalatzea; edo Nafarroatik kanpoko tratamendu instalazioetara bidaltzea.*

*2021eko apirilean Europako Batzordeak ekintza plan guztiak eguneratzeko eskatu zuen. Nafarroak, Gongorari dagokionez, aurreko planeko neurri berak jaso ditu, eta instalazio berriaren eraikuntzaren atzerapena aurreikusten du bertan.*

*Laburbilduz, Imarkoainen IIZ eraikitzen denean zuzeneko isurketaren arazoa konponduko da, baina, adierazi dugun bezala, 2025-2026 arte ez da aurreikusten hura erabat martxan jartzea. Beraz, epe laburrean, IMk presaz aztertu behar ditu errefus frakzioa hondakindegira eraman aurretik tratatzeko beste aukera batzuk, araudiak eskatu bezala, eta LGIDek areagotu egin behar du ikuskatze eta hertsatze ekintza, arauak behin eta berriz urratzea eragozteko.*

*Hori dela eta, txostenean azaltzen denak (ez dagoela jasorik IMk ezer egin duenik arazo honi erantzuna emateko) aditzera ematen du IMk ez duela deus ere egin salatutako egoeraren aurrean. Aitzitik, 1999. urtetik IM eta IZSA **behin eta berriz eta etengabe ahalegindu dira legea betetzen, horretarako jarduketa askotarikoak eta jarraituak garatu dituzte, eta ezin zaie egotzi horien porrotaren errua.***

*Hala, 1999ko urriaren 25ean Nafarroako Gobernuak Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plana onetsi zuen, eta helburu hauek zituen, besteak beste:*

- Baliarazi ezin den frakziora mugatzea hondakindegien erabilera.*
- Hondakindegia Europar Batasuneko 2005eko araudiari egokitzea.*





Horretarako ekintza garrantzitsuenetako bat zen biometanizazio eta konpostatze instalazioa eraikitzea Iruñerriko Mankomunitatearen instalazioetan.

Plana betetzeko asmoz, Mankomunitateak hiri hondakinak Arazurin eta Gongoran kudeatzeko UPSa sustatu zuen Nafarroako Gobernuaren aurrean, eta horrek 2001eko urriaren 29an onetsi zuen.

Helburua zen hondakinak isuri aurretik tratatzeko beharrari erantzutea instalazioak eraikiz Arazuriko HUAn eta Gongorako HHTZn.

Errekurtsoa jarri zuten Nafarroako Gobernuaren erabakiaren aurka, eta, instalazioetako obrak hasita zeudela, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak obrak eteteko agindu zuen kautelazko neurri gisa 2005eko urrian.

2007ko ekainean, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak zuzenbidearen kontratatzat jo zuen Arazuri-Gongorako UPSa, eta Iruñerriko Mankomunitateak ezin izan zuen proiektua gauzatzen jarraitu.

**Beraz, hondakinak aurretiaz tratatu behar diren arazoa konpontzeko lehen ahalegina 2001ean egin zuen Mankomunitateak, eta porrota ezin zaio berari egotzi, epaileak Nafarroako Gobernuaren egintza bat deuseztatzearen ondorio izan baitzen.**

Ebazpen judizialaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak 2010-2020 aldiko Nafarroako Hondakin Kudeaketarako Plan Integratua egiteko prozesuari ekin zion, eta 2010eko abenduaren 27an onetsi zen plan hori. Balorizazio energetikoko instalazio bat eraikitzea aurreikusten zuen, jatorrian sailkatu gabeko hondakinak tratatzeko.

2015eko urtarrilaren 16an, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak epaia eman zuen eta deusez deklaratu zuen Nafarroako Gobernuaren 2010eko abenduaren 27ko Erabakia, zeinaren bidez ingurumen ondorioen adierazpen aldekoa egin baitzen 2010-2020 aldiko Nafarroako Hondakin Kudeaketarako Planerako.

**Hots, berriz ere Nafarroako Gobernuaren egintza bat deuseztatzeak geldiarazi zuen konponbidea.**

Egoera berri hori ikusirik, 2015eko otsailaren 10ean, 51/2015 Foru Agindua bitartez, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariak 2015-2025 aldiko Nafarroako Hondakin Kudeaketarako Plan Integratua egiteko prozedura hasteko agindu zuen foru agindu bidez. Foru agindua zioen azalpenean berariaz aipatzen dira azaldu ditugun aurrekariak, eta horien gaineko erantzukizuna berresten da:

*“2015eko urtarrilaren 30ean departamentu honi jakinarazi zaio Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren 5. Atalak 2015eko urtarrilaren 16an emandako epaia. Horren bidez Nafarroako Gobernuaren kasazio-errekurtso bat ezetsi du, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko*





*Auzien Salaren Lehen Atalak 2013ko urtarrilaren 10ean emandako epaiaren aurkakoa. Epai horrek deusez deklaratu zuen Nafarroako Gobernuaren 2010eko abenduaren 27ko Erabakia, zeinak ingurumen ondorioen adierazpen aldekoa egin baitzuen 2010-2020 aldiko Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integraturako eta hura behin betiko onetsi baitzuen.*

*Azaldutakoa kontuan izanik, bidezkoa da, abian zegoen 2010-2020 aldiko Planaren berrikuspena bukatu ordez, hondakinen kudeaketarako plan integratu berri bat egitea. Plan berriak, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 14.2 eta 15. artikulua aplikatuz, Foru Komunitatearen lurraldeko hondakin-kudeaketaren egoeraren azterketa eguneratua jaso behar du”.*

Plan horrek, autonomia erkidegoen hondakin plan guztiek bezala, koordinatzeko eraginkortasuna du.

Izan ere, TAOLen aurreikuspenarekin bat, Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko eta ekonomia zirkularerako apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, bere aurrekoak bezala, autonomia erkidegoei ematen die beren lurralde eremuko hondakinen kudeaketarako plana egiteko ardura (HLKLren 12.4 artikulua):

#### **“4. Autonomia erkidegoei eta Ceutako eta Melillako hiriei dagokie:**

##### **a) Hondakinen prebentziorako programa autonomikoak eta hondakinen kudeaketarako plan autonomikoak egitea”**

HLKLren zioen azalpenak berak azpimarratzen du hondakinen kudeaketa planifikatzea hondakinen arloko politikarako funtsezko tresna dela:

*Hondakinen kudeaketa planifikatzea hondakinen arloko politikarako funtsezko beste tresna bat da. Horregatik, lege honek plan horiek garatzen ditu nazioko, autonomia erkidegoko eta tokiko mailetan: Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Planak hondakinen kudeaketarako estrategia orokorra zehazten du, bai eta gutxienerako helburuak ere. Autonomia erkidegoek, berriz, hondakinak kudeatzeko plan autonomiko bana egiten dute VII. eranskinean aipatzen diren osagaiak jasota, eta toki entitateek ere, bakarka edo batera, hondakinak kudeatzeko programak egin ahalko dituzte aurrekoekin koordinaturik.*

Hondakinen arloko plangintza, ildo horretatik, erdibidean dabil koordinatzeko ahalmenen arau-nagusitasunaren eta toki autonomiaren errespetuaren artean:

- Batetik, koordinatzeak nagusitasuna ematen du. Lankidetzazko harremanen aldean, administrazioen arteko koordinazioak esan nahi du administrazio batek nagusitasuna duela edo zuzendaritza funtzioa betetzen duela beste batzuen gain, Konstituzio Auzitegiaren 1996ko ekainaren 27ko Epaiak aitortzen duenez:





*“Honelako kasuetan, eskumenak eksklusiboak direlarik eta, beraz, eskumen-eremu berean elkar baztertzen dutelarik, Estatuaren eta autonomia erkidegoen eskumenak elkarren parekoak dira eta teknika egokia lankidetzada, borondatezkotasuna baitu ezaugarri, eta ez koordinazioa, nolabaiteko zuzendaritza-boterea ematen baitu, koordinatzailea koordinatuaren gainetik kokatuz”.*

Eta antzekoa da Konstituzio Auzitegiaren 1998ko maiatzaren 21eko Epaia:

*“Hortaz, koordinazioaren ezaugarri nagusietako bat inposaketa denez eta lankidetzazko formulena, berriz, borondatezkotasuna {cfr., gainera, KAren 331/1993 Epaia, 5.A zuzenbideko oinarria}}, argi dago koordinatze eskudantziak dituenak zilegi duela, funtsean, bere kabuz ezartzea neurri harmonizatzaileak, parte hartzen duten entitate guztien jarduna eraginkortasunez bateratzeko”.*


– Bestalde, **koordinazioak ezin du agortu erabaki autonomorako esparrua**. Konstituzio Auzitegiaren 1998ko maiatzaren 21eko Epaiak, lehenago aipatuak, honako hau dio:

*“ikuspegi horretatik, egiaz baieztatu daitezke koordinazioa «toki korporazioen eskumen propioen egikaritze betearen muga bat» dela {KAren 27/1987 Epaia, 2. zuzenbideko oinarria; orobat KAren 214/1989 Epaia, 20.f) zuzenbideko oinarria}. Hala ere, honaino iristen dira koordinazioak Konstituzioaren arabera modu baliozkoan jarduteko ematen dituen aukerak. Puntu honetatik harago, toki autonomiaren berme instituzionala hezuramaitzen duen oztopo konstituzional gaindiezina dago: «koordinazioak –zehaztu genuen KAren 27/1987 Epaian –ez die eskumen propioerik kentzen koordinatutako entitateei, soilik muga ezartzen du eskumenok egikaritzeko» (5. zuzenbideko oinarria). Horrenbestez, koordinazioa ezin da inondik ere izan «agindu zehatzak ematea, aurrez goitik behera taxutzen dutenak koordinatutako entitatearen jardueraren edukia, haren erabaki autonomoetarako esparru propioa agortuz; betiere, koordinaziorako bitartekoek eta teknikek erabaki edo irizpide askerako tarte bat errespetatu behar diete koordinaziopeko administrazioei, hura gabe ez baitago benetako autonomiarik» (6. zuzenbideko oinarria).*

Hau da, **Mankomunitatea zain egon da, noiz onetsiko zen tresna bat, bere ahalmen autonomoa Foru Komunitatearen esparru osoan beharrezkoa den koordinazioarekin uztartzea ahalbidetuko zuena**. Hori dela eta, hau azpimarratu behar da:

– Plana 2010ean hasi zen idazten, 10/1998 Legearen menpean, eta **derrigorrezkoa zuen toki zehatzak finkatzea** tratamendu instalazioak kokatzeko.





Hain zuzen ere kokalekurik ez finkatzea hartu zen oinarritzat aurreko planaren deuseztatze judizialean. Auzitegi Gorenak (137/2015 Epaia) ezetsi egin zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenaren 42/2013 Epaiaaren kontrako kasazio-errekurtsoa; azken epai horrek 2010-2020 aldiko Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Integralerako Plana deuseztatua zuen, eta egintza judizialaren zioa izan zen, hain zuzen ere, instalazioak kokatzeko lekurik ez ezartzea. Hau dio Auzitegi Gorenak, 2011-10-18ko bere epaia gogora ekarriz:

*“Hala, bada, doktrina hori ikusirik, eta aintzat harturik egindako frogen balorazioa, espedientean dagoen dokumentazioa eta auzialdian aurkaratutako plangintza-tresnaren beraren edukia, hona gure konklusioa auzi honetan: **Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratuak ez du aurreikusten non kokatuko diren hondakinak ezabatzeko instalazioak, aitzitik, zenbait kokaleku aipatzen dira baina geroko uzten da erabakia; ez da kokapenari buruzko irizpide behar bezain zehatzik ere erabiltzen aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren ondorioetarako.***

*Horrela, itxuraz soilik betetzen da, eta ez egiaz, aplikatu beharreko lege agindua, zeinak ezartzen baitu autonomia erkidegoetako hondakin planek nahitaez izan behar duten edukia. Azken batean, entitate demandatuaren ordezkari juridikoak errekurtsio hau baiestearen aurkako idazkian argudiatzen duen bezala, eta, betiere, gorago aipatutako koordinatuetan oinarrituta, hizpide dugun kasua bat dator 2011ko urriaren 18ko gure epaian ebatzitakoarekin, eta orduko doktrina bere egiten du errekurtsio honen auzialdian emandako epaiak”.*

Beraz, alde batetik, **guztiz zentzuzkoa zen Mankomunitatea planaren onepenenaren zain egotea azpiegiturak gauzatzeko urratsak egin aurretik, eta, bestetik, ezin zaizkio berari egotzi plana deuseztatzearen ondoriozko erantzukizunak.**

Hori dela eta, 2013ko apirilaren 5ean jada Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak errefus frakziorako konponbideak modu koordinatuan aztertu beharra zegoela adierazi zion Mankomunitateari, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Salak plana deuseztatu eta berehala:

*“Errefus frakzioaren kudeaketari dagokionez, arduragabekeriaz jokatuko nuke saiatuko banintz zuri ezkututzen egungo egoera ekonomikoak inoiz baino gehiago behartzen gaituela gastu publikoaren inguruko erabaki ahalik eta arrazionalenak hartzera, kontuan harturik, gainera, honelako zerbitzuek, azken batean, zergen zama handitzen dietela herritarrei eta gure ekonomiako ekoizpen sektoreari; eta horren harira, nirekin bat etorriko zara, sakonean berrikusi behar dira ohiko finantzaketa formulak, batez ere Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-ekarpenetan oinarritutakoak. Hala ere, ez dugu ahaztu behar ingurumen araudia oso zorrotza dela gai honetan eta, gainera, Iruñerrian badela denborazko konpromiso zehatz bat errefus frakzioa Gongorako hondakindegira eramateari uzteko. Horrek are gehiago premiatzen gaitu erabakiak hartzera.*







*Horregatik guztiagatik, nire lankidetzara osoa eta nire lantaldeena eskaintzen dizut, bai Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusitik bai Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusitik, gaia batera hausnar dezagun, ikuspegi instituzional eta teknikoak, arestian azaldu dizkizudan hiru premisak abiapuntutzat hartuta betiere: arrazionalizazio ekonomikoa eta araudiaren eta ezarritako epeen betetze zorrotza”.*

**– 2017-2027 aldiko Hondakinen Planari dagokionez, zalantzarik gabe berri dagokio zehaztea bai aurreikusitako askotariko teknologia posibleak bai instalazioak kokatzeko irizpideak:**

**Hain zuzen ere, hau dio hondakinei buruzko lege indardunaren VII. eranskinak:**

**Hondakinak kudeatzeko autonomia erkidegoetako planen edukia. “1.- Planen gutxieneko edukia:**

*1. Planen gutxieneko edukia:*

*f) Behar den informazioa hondakinak ezabatzeko etorkizuneko instalazioen edo hondakinak baliarazteko instalazio nagusien kokagunea identifikatzeko kokapen-irizpideei buruz eta haien ahalmenari buruz. Irizpide horiek zehazterakoan kontuan hartuko dira tokian tokiko klima baldintzak, ezbehar meteorologikoak –hala nola uholdeek edo irristatzeak– izan dezaketen inpaktua leuntzeko.*

*g) Hondakinak kudeatzeko politikak, **hondakinen kudeaketarako aurreikusitako metodoak eta teknologiak barne**, eta kudeatzeko arazo espezifikoa plan-teatzen dituzten hondakinen identifikazioa.*

Hondakinen Planak berak aurrekoa berresten du azpiegiturei buruz honako hau dioenean:


*Gongorako, Tuterako eta Carcarko hondakindegien aipamenak kentzea, horiek ixtea programatuta dagoelako eta, gainera, **Hondakinen Planak ez duelako kokalekurik zehaztu behar, helburuak eta kokatzeko irizpideak ezarri baino, eta erabakiak mankomunitate bakoitzean hartu behar direlako.***

**Berriz ere guztiz zentzuzkoa dirudi plana onetsi arte itxaron izanak, planean teknologiak eta kokapen irizpideak zehaztu eta gero garapenari eta azpiegituren exekuzioari ekiteko.**

Aurrekari horiek ikusirik, gauza nabaria da IMk eta IZSAk behar ziren jarduketak guztiak garatu dituztela behar ziren instalazioak egiteko, eta Nafarroako Gobernuaren plangintzari men egin diotela, araudiak agintzen duen bezala.

Behin onetsita egungo Hondakinen Plana, IZSAk egindako jarduketa nagusiek xedetzat izan dute Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legean, 2017-2027 aldiko Nafarroako Hondakinen Planean eta aplikatzekoa den





Estatuko eta Europako araudi osoan ezarritako helburuak eta betebeharrak betetzea.

Hain zuzen ere, jarduketa hauek azpimarra ditzakegu:

**– Edukiontzietarako sarbidea kontrolatzeko sistema (ESKS) ezartzea**

Gaikako bilketarako prozedurei buruz 2017an azterlan bat egin ondoren erabaki zen gaikako bilketa sistema hobetzea, edukiontzien sistema adimenduna diseinatuz, bilketa zerbitzua monitorizatzeko eta haren datuak lortzeko estrategia-rekin bat etorriz.

2018an esperientzia pilotu bat ezarri zen 4.000 etxetan (Artika Berria eta Azpilagaña auzoetan): materia organikoaren eta errefusaren edukiontzietan itxigailu elektronikoko helbidedunak jarri ziren. Lau urtez, pandemia tartean, jarraipena egin ondoren, Iruñerriko hirialdeetan zabaltzea erabaki zen, eta edukiontzia aldatzeko eta itxigailu elektronikokoak jartzeko inbertsioaren aurreikuspena egin zen.

Dagoeneko sistema hori hirietako biztanleen % 50engana iritsi da (I. multzoa 2021eko udazkenean eta II. multzoa 2022ko udaberrian), eta aurtengo udazkene-rako % 70engana iristea aurreikusten da (III. multzoa 2022ko udazkenean). Lortutako emaitzak pozgarriak dira. Azpimarratzekoa da, IZSAren kudeaketa planaren 1. seihilekoko ebaluazioaren arabera, jada nabarmen hobetu direla errendimenduak edukiontzi sistema berriaren eraginez:

– nabarmen hazi da gaikako bilketa (materia organikoaren % 31,37, ontzien % 9,93 eta paper-kartoiak % 9,79).

– gutxiago eramaten da hondakindegira (% 6,63 gutxitu da 2021etik, eta % 8,84 azken bost urteetan).

– tratatu gabeko hondakin gutxiago eramaten dira (% 11,71)

**Esan dezakegu, beraz, dagoeneko hobekuntza nabarmena egiaztatu dela bilketa selektiboaren emaitzetan eta, horrenbestez, Gongorako hondakindegira eramandako hondakin kopuruan. Hori guztia bat dator Nafarroako Hondakinen Planean eta ingurumen baimen integratuan eskatutakoarekin.**

**– Iruñerriko Ingurumen Zentroa Noain Elortzibarren**

Optimizazio-, egokiera- eta estrategia-arrazoiak tarteko, IM-IZSAk erabaki zuen, beste jarduketa batzuen artean, instalazio bakarrean tratamendu integrala ematea etxeetako hondakinen eta pareko hondakinen frakzio hauei: materia organikoa, ontziak eta materialak, errefusa eta zura.

**Deskribatutako egoerak hartaraturik, IZSAk jarduketa asko garatu ditu, denak helburu berarekin: lehenbailehen sustatzea Iruñerriko Ingurumen Zentroaren eraikuntza eta zerbitzuan jartzea, Mankomunitateak ISZAren bitartez eskuratu behar duen ezinbesteko azpiegitura baita, Iruñerrian**





**behingoz bete daitezten hiri hondakin solidoen kudeaketarekin lotutako lege eta ingurumen betekizun guztiak, eta, oso bereziki, hondakin horien tratamenduaren ingurukoak.**

Jarduketa garrantzitsuenak hauek izan dira:

– Nafarroako Gobernuaren aurrean izapidetzea Ingurumen Zentroaren udalez gaindiko proiektu sektoriala, interes orokorraren deklarazioarekin batera. Nafarroako Gobernuak 2021eko abenduaren 15eko bilkuran onetsi zituen.

– Ingurumen Zentroa kokatzeko lurzatiaren salerosketa kontratua sinatzeko behar ziren egintza guztiak egitea. Kontratua 2021eko azaroaren 16ko eskritura publikoan formalizatu zen, eta IZSArentzat 12.056.801,79 euroko kostua izan zuen (BEZa barne).

– Iruñerriko Ingurumen Zentroa ezartzeko behar ziren kontratu guztiak lizitatu eta adjudikatzea:

Eskaintzak baloratzeko, proiektuaren idazketa zuzentzeko, obra zuzentzeko eta Ingurumen Zentroa abian jartzeko laguntza teknikoaren kontratua; 2021eko uztailaren 21ean formalizatu zen, IDP Ingeniería y Arquitectura Iberia SLrekin, 1.329.066,82 euroko prezioan (BEZik gabe).

Proiektua idazteko, obra gauzatzeko eta Iruñerriko Ingurumen Zentroa abian jartzeko kontratua; 2021eko abenduaren 22an formalizatu zen, FCC Medio Ambiente eta FCC Construcción enpresek osatutako ABEEarekin, 66.189.924,44 euroko prezioan (BEZik gabe), eta obrak egin eta zentroa abian jartzeko 36 hilabeteko epearekin.

– **Garraioaren Hiriaren 4. faseko UPSaren aldaketa eta Iruñerriko Ingurumen Zentroaren UPROSa**

Eragiketa horiek guztiak oinarri izan zuten NASUVINSA enpresa publikoak aurretik sustatutako izapide hau: Garraioaren Hiriaren UPSaren aldaketa, Ingurumen Zentroa ezartzeko. Nafarroako Gobernuak 2019ko abenduaren 27an onetsi zuen. **Onespen horren eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak UPSaren testu bategina eta araudia onesteko emandako ebazpenaren aurka Nafarroako Auzitegi Nagusian errekurtsio bana jarri zuten partikular batek eta Noain Elortzibarko Udalak, hurrenez hurren. NASUVINSAREN eta Nafarroako Gobernuaren administrazio-egintza horietan guztietan eta geroko errekurtsioetan, IZSAk ez zuen inola ere parte hartu. Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2021eko abenduaren 23ko eta 30eko epaietan (2022ko urtarriaren 11n jakinarazi zitzaizkien alderdiei eta helarazi IZSAri), auzitegiak deusez deklaratu zuen Garraioaren Hiriaren UPSaren aldaketa. Garraioaren Hiriaren UPSaren aldaketa bertan behera gelditu eta gero, hirigintzako figura horrek ematen zuenez oinarria Ingurumen Zentroaren UPROSa izapidetzeko, argi dago IZSAk oraingoz ez duela hirigintzako babesik Ingurumen Zentroaren proiektua garatu ahal izateko, eta, ondorioz, aipatu kontratuak eten egin dira.**





Horregatik, IZSAk bere Administrazio Kontseiluan aztergai jarri zuen Nasuvinsarekin hitzarmen bat egiteko aukera, Iruñerriko hiri hondakinaren tratamendurako azpiegitura sustatzeari berriz ekiteko eta ahalik eta lasterren azpiegitura hori gauzatu ahal izateko. Hala, bada, IZSAren Administrazio Kontseiluak Nasuvinsarekin hitzarmena egitea erabaki zuen. Hitzarmen horri esker aurrera egin da Garraioaren Hiriaren UPS berriaren eta Ingurumen Zentroaren UPROS berriaren idazketan. Dagoeneko hasierako onespena jaso dute Nafarroako Gobernuaren iragan maiatzaren 25eko bilkuran, eta, behin betiko onesten direnean, berriz ekinen zaie Ingurumen Zentroa ezartzeko adjudikatutako kontratuei.

**Horrela, IZSAk Hondakinaren Plan indardunaren gidalerroei jarraitzen die; izan ere, plan horrek instalazio berri bat egitea hobesten du, eta ez Iruñerrikan kanpo dauden instalazioen gehikuntza (6.3.3.1.3 apartatua):**

*“Planak ez du jasotzen izaera publikoko azpiegitura berririk paratzea errefusaren aurretratamendurako; izan ere, aurreikuspenen arabera, 2014an sortu zenaren erdira jaitsiko da errefusa, eta planaren arabera Tuterako eta Carcarko plantak nahikoak dira Nafarroan sortzen den errefus guztia tratatzeko). Hori dela eta, planean jasota dago Iruñerrian transferentzia planta berri bat egitea, dela lehendik dauden instalazioetan, dela kokaleku berrietan, errefusa planta horietara eramaten bada.*

*Aukeran, planta bat egin liteke Iruñerrian, zeren eta Nafarroako biztanleriaren erdia baino gehiago bertan bizi baita, horrekin lotuta dagoen beste tratamendu-planta batzuetarako garraioa saiheste aldera”.*

Eta lehendik dauden instalazioetan eraikitzeari dagokionez, planak berak behin baino gehiagotan adierazten du:

*“Errespetatu egingen da Iruñerriko Mankomunitatearen eta Aranguren Ibarreko Udalaren arteko hitzarmena; hortaz, aipatu hitzarmena bukatu arte bakarrik erabiliko da zabortege hori hondakinak suntsitzeko azpiegitura gisa”.*

Halaber, 2017ko irailaren 21ean kontsulta egin zitzaion Nafarroako Hondakinaren Partzuergoari, informazio hau eskatuz: *“Bere beharrezanean aurre egiteko ahalmen gehigarria (egungoa eta bilakaeraren aurreikuspena) Partzuergoak kudeatzen dituen instalazioetan, errefus frakzioaren aurretiazko tratamenduari dagokionez”.*

Ez da erantzunik jaso, eta hori guztiz esanguratsua da, ordezeko aukerarik ez dagoen seinale.

Hori nahikoa ez eta Foru Komunitatearen lurraldetik kanpoko tratamendu aukerak ere aztertu dira. Frakzio hori hurbileko beste autonomia erkidego batean edo batzuetan tratatzeko aukera baztertu egin da hasiera batean, hainbat arrazoi tarteko: Errioxa (ahalmenik eza), Bizkaia (garraioaren eta tratamenduaren kostua), Kantabria (garraioaren eta tratamenduaren kostua), Gipuzkoa (garraioaren





eta tratamenduaren kostua). Aukera jasanezina da ikuspegi ekonomiko eta sozialetik, beste printzipio batzuk bete behar direla albora utzi gabe.

Oso argi dago IZSA planaren jarraibideak betetzen ari dela eta, bere esku dagoen heinean, aurrera egiten ari dela Iruñerriko Ingurumen Zentroa lehenbailehen ezartzeko, eta bere erabaki-eremuko jarduketa guztiak garatzen ahalik eta hondakin gutxien eramateko hondakindegira eta horren inpaktua zuzentzeko.

Hala, bada, **behin-behineko txostenean jasotako ikuspegia ez dator bat errealitatearekin, ez dituelako kontuan hartzen urte hauetan IMk eta bere sozietate kudeatzaileak legea betetzeko egin dituzten jarduketak. Jarduketa horiek ahal bezain laster garatu dira, hau da, indarrean dagoen Nafarroako Hondakinen Plana onetsi bezain laster.**

Horri gehitu behar zaio, azaldu dugun bezala, jarduketan porrota ezin zaiola IZSAri leporatu. Izan ere, jarduketei babes ematen zieten bi tresna juridikoak (UPSa eta lehengo Hondakin Plana, Nafarroako Gobernuak onetsiak) auzitegiek deuseztatu izanaren ondorio izan zen.


Eta, gorago azaldu den moduan, Ingurumen Zentroa ezartzeko egindako kontratuen exekuzioaren etenaldia ere ezin zaio IZSAri egotzi, zeren eta, berriz ere, auzitegiek deusez deklaratu baitzuten Garraioaren Hiriaren 4. faseko UPSaren aldaketa. NASUVINSAk sustatu zuen aldaketa hori, eta IZSAk ez zuen inola ere parte hartu.

**Bestalde, kontuan hartu behar dira, halaber, IMk, IZSAren bitartez, hondakin gutxiago botatzeko eta hondakindegia inpaktua zuzentzeko egin dituen jarduketak:**

– **Ahalik eta hondakin gutxien botatzea:** botatako hondakinen osaera eta ezaugarri historikoak.

Grafikoan ikus daitekeenez, hondakindegian utzitako hondakinen jatorriari eta osaerari erreparatuta, aldaketa nabarmenak egin dira Gongoran ahalik eta hondakin gutxien botatzeko. Lehenik, botatako kopurua erdira murriztu da, eta gainera osaera nabarmen aldatu da: industriako hondakinak murriztu egin dira, batez ere hondakin organikoak sortzen dituzten enpresetatik ekarritakoak.





#### – Edukiontzietarako sarbidea kontrolatzeko sistema (ESKS) ezartzea

Goiago azaldu den bezala, edukiontzietarako sarbidea kontrolatzeko sistemaren ezarpenaren ondorioz (dagoeneko Iruñerriko biztanleen %50engana hedatu da) nabarmen igo da gaikako bilketa (% 31,37 materia organikoarena, % 9,93 ontziena eta % 9,79 paper-kartoiena).

– gutxiago eramaten da hondakindegira (% 6,63 gutxitu da 2021etik, eta % 8,84 azken bost urteetan).

– tratatu gabeko hondakin gutxiago eramaten dira (% 11,71)

Hala, materia organikoaren kasuan –hondakin biodegradagarriena da, eta ondorioz kutsatzaileena–, lehen seihileko honetan berreskuratutako materiala % 28 gehiago izan da 2021ean baino, eta ekainean gehikuntza % 55etik gorakoa izan da (716 tonatik 1.113 tonara). Horrek erakusten du zenbateraino sendotu den bilketa sistema adimendun berria.

Esan dezakegu, beraz, dagoeneko hobekuntza nabarmena egiaztatu dela gaikako bilketaren emaitzetan eta, horrenbestez, berreskuratutako hondakinetan, bai eta Gongorako hondakindegira eramandako hondakin kopuruan ere. Hori guztia bat dator Nafarroako Hondakin Planean eta ingurumen baimen integratuan eskatutakoarekin.

#### – Neurri zuzentzaileak Gongorako hondakindegia ustiapenean

Gongorako hondakindegia ustiapena ingurunean ahalik eta eragin txikiena izateko moduan diseinatuta dago. Teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira bertan utzitako materia organikoaren deskonposizioan sortzen diren degradazio-






substantziak (lixibiatuak eta atmosferarako isuriak) kontrolatzeko eta tratatzeko. Tratatu ez ezik, aprobetxamendu intentsiboa aplikatzen zaie lixibiatuei eta hondakindegia-gasari, energia berriztagarriak eta ongarriak ekoizteko.

### – Lixibiatuak

Edukiontzi adimenduna hedatu ahala gero eta materia organiko gutxiago eramaten denez hondakindegira, substantzia organikoen gutxitze nabarmena sumatzen ari da hondakindegian sortutako lixibiatuetan. Erantsitako grafikoan ageri denez, kutsadura horren adierazle nagusia, oxigeno-eskari kimikoa (mg/l), murrizten ari da argi eta garbi, martxan jarri direlako materia organikoaren bilketa selektibo efizienteagoak (17.000 mg/l-tik 4.000ra pasatu da). Hori guztia etengabe hobera egiten ari garen seinale da.




Lixibiatu horiek Arazuriko araztegiara eramaten dira eta han araztu egiten dira Arga ibaira isuri baino lehen. Arazketako lohiak ekoizteko baliatzen dira, nekazaritzan birziklitzeko eta energia elektrikoaren ekoizpenerako biogasa sortzeko. Duela gutxi berriro egin da lixibiatu horiek bideratzen dituen kolektorea, hodian estankotasuna bermatzeko. Horretan bi milioi euro inguruko inbertsioa egin da.

Lixibiatu horiez gain, saneamendu kanona ordaintzen da indize zuzentzaile baten arabera. Indize horrek lixibiatuaren kutsatzaile-karga eta, beraz, tratamenduaren kostua islatzen du. Gaur egun tratamenduaren kostua milioi erdi eurokoa da. Kutsatzaile-karga murriztu ahala behera egiten joan da.

Azaldutakoa dela eta, ondorioztatu behar da eskura dauden tekninarik onenak erabilia ahalik gehien aprobetxatzen direla hondakindegira eramandako baliabideak.





## - Isuriak atmosferara

Ingurumen baimen integratuaren arabera, hiru urtean behin hondakindegia irekiten ebaluazioak egiten dira, usaina neurtzeko azterketa eginez. Azterketa horrek hondakindegia irekitzeko inguruan duten inpaktua neurtzen du. Emaitzak onak dira, inguruaren gaineko eragin oso txikiekin.

Hondakindegia zeldaka ustiatzen da, erabat zigilatuta egon dadin, eta hondakin deskonposizio anaerobioan sortutako hondakin-degi-gasa ateratzeko sistema ahalik eta eraginkorra izan dadin isuriak atxikitzen. Sortutako biogasa errektantza-motorretan baliatzen da, energia berriztagarria sortuz Gongorako zentrorako.

Azaldutakoak erakusten duenez, isurien gaineko ingurumen kontrolak eraginkorrak dira inpaktua ahalik gehien arintzeko, eta, gainera, sortutako biogasa ko-gerazio instalazio batean baliatzen da energia berriztagarria ekoizteko.

**Azaldutako datuetatik atera beharreko ondorio gisa, garrantzitsutzat jotzen dugu txostenean aitortzea, halaber, behin-behineko txosteneko konklusioetan salatzen den egungo ez-betetze egoera ekarri duten inguruabarrak, bai eta entitate honek legea betetzeko eta ingurumena babesteko egindako jarduketak ere.**

**BIGARRENA:** VI.2.2.2. *Tratatze eta ezabatze instalazioak* apartatuan, *Tratatze eta ezabatze instalazioak, materia organikoa* puntuan (38. or.), hau adierazten da:

*Txosten hau bukatzerakoan eraikita dago Arbizuko instalazioa eta 2022-2024 TIPean jasota dago bi instalazio berri eraikitzea Tafallan eta Donezteben.*

**Uste dugu hau jaso behar dela: IMren kasuan, lurra erosi dira Garraioaren Hirian, Imarkoainen, Iruñerriko Ingurumen Zentroa (IIZ) eraikitze, eta bertan tratatuko dira Iruñerriko hondakinak. Zentro horrek badu bere eraikuntza proiektua. Zentro horretarako udalez gaindiko proiektu sektoriala ere izapidetzen ari da, obrak 2023an hasteko.**

**HIRUGARRENA:** VI.2.2.2. *Tratatze eta ezabatze instalazioak* apartatuan, *Tratatze eta ezabatze instalazioak, errefus frakzioa, birziklatzea* puntuan (40. or.), hau adierazten da:


*NHPk Iruñerriko Ingurumen Zentro berria ere jasotzen du. Imarkoainen proiektatuta dago eta 2025-2026 aldera abiaraztekoa da.*

Halaber, 42. orrialdean, IIZ martxan jartzeari dagokionez, berriz adierazten da:

*Laburbilduz, Imarkoainen IIZ eraikitzen denean zuzeneko isurketaren arazoa konponduko da, baina, adierazi dugun bezala, 2025-2026 arte ez da aurreikusten hura erabat martxan jartzea.*







**Argitu beharra dago 2025erako aurreikusten dela IIZ martxan jartzea, non Nafarroako Iparraldeko errefus frakzioa tratatuko baita.**

**LAUGARRENA:**

*VI.3. Hondakin zerbitzuaren ondoriozko gastuak eta diru-sarrerak apartatuan (52. or.) hau adierazten da:*





## 3.1 puntua.– Hondakinen bilketa eta tratamendu tasak

Entitatea	Ones- pen ur- tea	Bilketa tasa 2020	Tratamendu tasa 2020	Guztira
Mendialdea Mank.	2020	86,90	65,68	152,58
Erriberako Hondakin Solidoen Mank.	2020	71,76	65,68	137,44
Sakanako Mank.	2020	83,16	65,68	148,84
Erriberagoieneko H.H.S. Mank.	2020	59,17	65,68	124,85
Izarbeibarko Mank.	2020	89,32	65,68	155,00
Malerrekako Mank.	2020	75,82	65,68	141,50
Mairagako Mank.	2019	13,28 + 0,281080 €/m <sup>3</sup>	65,68	Dat.ez
Bortzirietako H.H.S. Mank.	2019	79,80	65,68	145,48
Araxesgoieneko Mank.	2008	40,00	65,68	105,68
Jurramendiko Mank.	2020	39,95	65,68	105,63
Zangozako. Esk. Zerb. Mank.	2020	70,26	65,68	135,94
Irati H.H.S. Mank. (10. eremua)	Dat.ez	56,25	65,68	121,93
Baztango Udala	2020	67,77	65,68	133,45
Bidausi H.S. Mank.	2013	45,40	65,68	111,08
Ezka-Zaraitzu H.S. Mank.	2009	66,18	65,68	131,86
Iruñerriko Mank.	2020	47,36 + Katastro balioaren arab. kuota. Gehienez	128,52	

Tasen taula horretan guztizko tasa 128,52 euro da, baina, 2022ko abuztuaren 19ko bileran eta 2022ko abuztuaren 22an bidalitako mezu elektronikoa jakinarazi genizuen bezala:

*“IMren eremuan, etxebizitza-erabilerarako batez besteko tarifa 103,65 eurokoa izan zen 2020an. Honela kalkulatu da batez besteko tarifa hori: 2020-12-31n etxebizitza-erabilerako 164.994 kontratu genituen. Kontratu horiei fakturazioaren simulazioa egin zaie urte horretarako onetsitako tarifekin, eta hortik atera dira batezbestekoak. (54. orrialdea)”*

Uste dugu datu hori zuzendu egin behar dela, txostenean jasoz IMren eremuko etxebizitza-erabilerako batez besteko tarifa.

**BOSGARRENA:**

VI.3. Hondakin zerbitzuaren ondoriozko gastuak eta diru-sarrerak apartatuan (53. or.) hau adierazten da:

## 3.2 puntua

*Kasu honetan bilketa gastuak mankomunitateka aztertu ditugu, IMkoak kanpoan utzita, ez daukagulako haren bilketa daturik tratamendu datuetatik bereiz.*

Hori dela eta, adierazi behar dugu 2021eko maiatzaren 5ean izan genuen bileran, beste datu batzuen artean, hondakinen arloko gastuak eta diru-sarrerak eskatu zenizkigutela. Esan genizuen datuen laburpena bidaliko genizuela partidaka, eta, edozein informazio osagarri behar izanez gero, noiznahi eskatzeko. 2021eko maiatzaren 18an bidali genizkizuen bilera horretan eskatutako datu guztiak.





Gerora beste datu batzuk eskatu izan dizkiguzue, baina batere ez bilketa eta tratamendu kostu bereiziei buruz. Zehazki, 2022ko apirilaren 4an hau eskatu zeniguten:

*Behinola, beste gauza batzuen artean, sozietateak 2020an izandako gastuen eta diru-sarreraren excela eman zeniguten.*

*Orri horretan hiru motatako diru-sarrerak azaltzen dira:*

- *Salmenten eta hitzarmenen bidezko diru-sarrerak: 6.967.106,65 €*
- *Hondakinen fakturazioa: 26.466.517,03 €*
- *HTZ tasaren bidezko diru-sarrerak Gongora: 395.176,52 €*

*Kontzeptu horien xehetasun gehiago nahi genituzke. Batetik –uste dut jada esan dizuegula–, batez ere etxe eta saltokietako hondakinekin eginen dugu lana, eta jakin behar genuke kopuru horietatik zenbat dagokien mota horretako hondakinei eta zenbat gainerakoei.*

*Eta etxeetako eta saltokietako hondakinen barnean, bereizten ari gara familiariek ordaindutakoa (etxebizitzetako) eta gainerakoek ordaindutakoa.*

*Gastuei dagokienez, hondakinen gaineko zerga dela-eta ordaindutako zenbatekoa jakin nahi dugu. Excelean 2.008.374,03 euro ageri dira hondakinak direla-eta, eta jakin behar dugu zenbat den hondakinen gaineko zerga, eta zerga horretatik zenbat dagokien Mankomunitateko etxe eta saltokietako hondakinei.*

*Ez dakit ba ote dituzuen xehakapen horiek; nahi duzunean hitz eginen dugu.”*

*Informazio hori 2022ko apirilaren 12an bidali genizuen.*

2022ko abuztuaren 5ean txostenaren zirriborroa bidali zeniguten, eta hau zioen goian aipatutako paragrafoak:

*Kasu honetan bilketa gastuak mankomunitateka aztertu ditugu, IMkoak kanpoan utzita, ez daukagulako haren bilketari buruzko daturik tratamendu datuetatik bereiz.*

Azaldu dugun bezala, datu horiek ez zitzaizkigun aurretik eskatu, eta duela urte askotatik beti egiten ditugun kostu-xehakapenak dira. Gastuen kontabilitate bereizia eramaten dugu, kontuan izanik, besteak beste, bilketa edo tratamendu gastu espezifikoak diren.

2022ko abuztuaren 19an, Kontuen Ganberako auditorearekin bildu ginen gai horretaz eta txostenaren zirriborroko beste gai batzuez hitz egiteko. Bilera berean adostu genuen moduan, hurrengo egun baliodunean, 2022ko abuztuaren 22an, hondakinen gastuak bidali genizkizuen bilketan, tratamenduan eta prebentzioan banatuta, ohar honekin: “Bilketa, tratamendu eta prebentzio kostuen banaketa.





(Urtero prestatzen ditugu). Bada bilketa, tratamendu eta prebentzio gastu arruntei dagokien zenbateko txiki bat, banatuta behar baduzue, gastuen proportzioan banatuko litzatekeena.”

Hala ere, hasieran jada esan dugun bezala, informazio hori ez da jaso txostenean, eta gainera jarraitzen duzue esaten ez daukazuela datu horiek bereizita.

**Horregatik eskatzen dugu aintzat har dadila aurretik bidalitako informazioa, eta behin betiko txostenean jaso dadila.**

### **SEIGARRENA:**

Hondakinen Funtsari dagokionez –eta funts horretarako ekarpena entitateei itzultzeari, hondakinen kudeaketa hobetu ditzaten–, azpimarratu behar da ekarpenak isurketen proportzioan egiten direla, zentzuzkoa denez, baina ekarpenak entitateei itzultzean ez dela kontuan hartzen haien tamaina, ezta kudeaketa ego-kia egin ahal izateko behar duten finantzaketa ere.

Argi dago Nafarroako biztanleriaren erdia baino gehiago zerbitzatzeak hondakin kopuru handia kudeatzea dakarrela, eta hondakinetakoko batzuk hondakindegira eramanez dira beste aukerarik ez dagoen bitartean; behar diren inbertsioak ere ez dira berdinak entitate txiki batean eta IMn, eta ondorioz, gaur egun, IMren kasuan, prozesua hobetzeko itzulketa hori ez da iristen ezta egindako munta handiko ekarpenaren % 20ra ere.

**Horregatik, eskatu nahi dugu entitate bakoitzak zerbitzu ematen dion biztanle kopuruaren araberako formula aurreikus dadila Funtsaren itzulketan.**

Horrenbestez

**ESKATZEN DUT** alegazio horiek aintzat har daitezela, eta proposatzen dituzten aldaketak jaso daitezela “Etxeetako eta saltokietako hondakinen kudeaketa. Nola hobetu administrazioen arteko koordinazioa kudeaketa eraginkorrago eta efizienteagoa lortzeko” izeneko behin betiko fiskalizazio txostenean.

Iruñean, sinadura elektronikoen egunean.

LEHENDAKARIA,

David Campión Ventura





## **Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna**

Eskerrak eman nahi dizkiogu Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Horiek aztertu ondoren, lehenengotik hirugarrenera bitartekoak eta bosgarrena txostenari erantsi dizkiogu.

Uste dugu gainerako alegazioetan emandako informazioak ez dituela aldarazten behin-behineko txosteneko konklusio orokorrak, eta txosten hori behin betikotzat ematen dugu. Halere, Ganberak honako hau adierazi nahi du:

- Laugarren alegazioari dagokionez, esan behar da bilketa tasen taulan mankomunitate guztiek eta Baztango Udalak 2020rako onetsitako tasak jaso direla, eta ez batez besteko tarifak. Beraz, ez dago zuzendu beharrik.

Iruñean, 2022ko irailaren 16an

Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak elektronikoki sinatua

